

TRATAKTUS FILOSOFIKUM SAKONIS



X. GALARRETA

© Marjinalia Bilduma
© Xabier Galarreta
1999. urtea (otsaila)
Legezko Gordailua: SS-271/99

«Joxe Mielek ez zekien motibazioa non arraio aurkitu». Eta hori ziurraski gertatzen zitzaion bizitzan inoiz ez zuelako ezerekiko motibaziorik izan, zeren noizbait motibatuta egon balitz, ez zukeen bilatuko behin edukitakoa bere eguneroko mediokritatean. Oso arrazoizkoa hau guztiau, ezta? Azken batean, denoi gertatzen zaigu berdin: ez daukaguna maite dugula, ez daukagunaren irrikan gaudela. Baina ez dut ezezkor agertu nahi, buruzko jarrera hori zuei uztea nahiago dut-eta, asperdurak bultzata liburu baten aurrean jartzea erabaki duzuenetz. Arren, ez haserretu nirekin. Zeren, aukeran, zer nahiago? Nire liburua irakurtzea, ala Karibeko hondartza basati horietako batean eguzkitan egotea, koko-ura edaten eta limoi sentsualekin amesten? Ikusten al duzue? Nik asko dakit giza izaerari buruz, asperdurari buruz alegia. Sermoi-itxura duela honek? Eta zer...? Ez al didazue esango ikusminik eragiten ez dizuela erlijioari ez-loturiko sermoi baten eduki-mamiak? Tira, tira... Hau ez da nobela arrosa; ezta pornografia ere; eta ez dut inor hiltzeko asmorik liburuak iraundako bide espazial osoan. Nik aldeztatik ematen dizuet horren berri. Badaezpada ere... Zeren askotan gertatzen baitzaio bati nahi ez zuen tokira joatea, zinemara esaterako (zeinen nazkagarria den zinema, ezetz? zeinen arrunta!

zeinen kalitate gutxikoa! zeinen beterik dagoen diruzale, ezjakin, sexu-izar eta arte-etsaiez!). Ez, orri hauetan ez dut inor hil nahi. Eta barkatuko didazue atrebentzia, baina haurrentzako eleberririk ere ez dut idatzi nahi. Beraz, latza daukat argitaratzeko. Gainera, pasata daukat Durangoko erlijio-ospakizunak; eta horrek zaildu baino ez du egingo nire liburuaren argitalpena. Begira, nik ez diot inori irakaspenik eman nahi, ezta pedantearena egin ere. Niretzat erraza litzateke hiztegiari heldu eta filologoen laguntzaz nire «neurri gabeko jakituriaz» zuek guztiak aho zabalik uztea. «Oi, oi! Euskal Literaturaren erregina ni! Oi, oi! Ni puten artean putena! Oi, oi! Nire alutxo literarioa nork nahi du dastatu? nork nahi dio mihiaz kili-kili egin? Tuti-fruti eta guzti dauka!». Farkatu, erresfetagarriok. Farkatu berriro. Ez dut ferriro egingo. Fenetan. Ifilduko naiz eta nire forondate onaren ferri ifan defafuen, oraintxe fertan jarriko ditut ordefko hortzak fere tokian. Orain hobeto, ezta? Beno, ba. Hasiak gara elkar ezagutzen. Dena den, eta badaezpada ere, ez zaizu inportako «kulo el por tomar a» bidaltzen bazaitut, ezta? Tira, nik ez dakit zer egin duzun nirekin honez gero. Baliteke nire izen ona larderiatsen ibili izana Euskal Herriko leku guztietatik, Erriberakoetatik barne. Eskubidea dut nire buruaren alde egiteko. Eta niri zer axola, gainera, zuk literaturaz ulertzen duzula uste baduzu? Ez, ez. Ez dizut ezer aurpegiratu nahi; bakarrik «zalantzan» jarri nahi zaitut, hala irakurle bezala nola gizaki bezala ere. Zeren mundu honetan ez dago ez ezertaz ez inortaz

fidatzerik, lagun...! Bai, zuhurrak izan behar dugu. Zuhurrak eta tuntunak. Horixe ziurtatzen digu mundu honetan ontasuna. Ni, esaterako, idazlea izan nahi nuen. Eta Administrazioan amaitu dut, nire izena urtean hamar milioi aldiz idaztera zigortuta. Beno, behintzat onartu behar dut boligrafoari eragitea zer den badakidala... Hau dena barregarria da. Liburu bat hasi dudan bakoitzean, arnasestuka aritu naiz lehen orritik bertatik, amaierara noiz iritsiko. Behin, amaieratik ere hasi nintzen, lehenago bukatzeko. Baina argitaratzaileari ez zitzaion ideia ona iruditu, zeren nire liburu hark berrehun eta berrogeita hamar orri zituen eta esaten zuen halako xahukeria iruditzen zitzaiola berrehun eta berrogeita hamar orriko liburua argitara ematea, orri guztiak zuriz azkenekoa izan ezik. Eta ez zuen ezer entzun nahi izan proposatu nionean amaiera hasieran jartzea eta orri bakarreko liburua argitara ematea, merke-merke aterako zitzaiola, jendea aspertzea ezinezkoa izango zela eta hitzaurrea neronek idatziko niokeela, eta horrela lauzpabost lerro gehiago ziurtatuta izango genituzkeela... Ezer ez. Pu-si-lani-me hutsa zen argitaratzaile hura. Tira, neronek argitaratu nuen. Bai, hartu orria, fotokopia-dendara eraman eta hamar mila kopia (osea, bost mila DIN A4, zeren DIN A4 batetik bi DIN A5 ateratzen baitira —hori edonork daki—). Eta pentsatu nuen luxuzko azalak jartzea, baina buzoneatzekoa zenez, zegoen bezala «banatzea» erabaki nuen. Eta abenduko gau hotz eta poetiko hartan, elurra mara-mara eta produktu labeldunak milaka saltzen ari

zirela, Olentzaroren eta Jesus haurraren eta Pricaren omenezko Gabon-kanten artean, Amara Berriko etxe guztietara heldu zen nire lehendabiziko argitalpena... Zoritxarrez, fotokopia-dendakoa tronpatu egin zen, edo ni. Auskalo (ez zidan dirua itzuli nahi izan). Kontua da amaieraren ordeztasunerako fotokopiatu zuela. Osea, ezer ez. Zeren hasieraren ordeztasunera amaiera jartzeko ideia bertan behera utzi bainuen argitaratzailearen gustukoa ez zela ikusi nuenean. Beraz, hor nonbait orria traspapelatu eta kopiagileari pasatako orijinalak ez omen zeukan ezer, ezta letra bakar bat ere, zeren lehenengo orria zenez ez bainuen ez burukorik (cabecera, ez badakizu...) ez zenbakirik jarri. Enfin, Pepín, kontua da hamar mila DIN A5 neuzkala, elurra bezain zuriak denak, eta Gabon hartako afari-merienda guztiei zegozkien sosa xahututa, endemas. Beraz, hartu hamar mila orritxoak eta denak banatu nituen nik neuk, zeren esan nion enpresa bati banatzeko baina ikusi zutenean orriak zuri-zuri zeudela ez zuten lana onartu nahi izan, ulertu ezin dudana, zeren beraiei zer axola orriak hutsik edo idatzita egotea, azken batean ni ordaintzeko prest nengoan. Baina hala ere ez zuten ezer jakin nahi izan. Kabrones. Ni umiliatzeko egingo zuten, seguru. Kabronazos de la puta mierda. «*Putxa putxaren kabroitzarrak*». Nork esan zuen euskaraz 'utaidearipeztudala? Jo, jo-ri-jo-jó. Eta azentuak. E? Horiek ere behar-beharrezkoak dira. Batez ere, hiltzen ari zarenean. Zuk imajina dezakezu inor hiltzea hola, ondoan azentu zorritsu bakar bat ere izan gabe? A! Banekien nik zerbait

ahazten ari zitzaidala! ARGUMENTUA! Cojones!
«*Kojoiak*» Jo-jo-ri-jo-jó. Bai, argumentua
(argudioa????) hori funtsezkoa da, zeren argudiorik
gabeko nobela izango bailitzateke amaierarik
gabeko liburua bezalakoxea, osea
amaitezinaaaaa...

Atodaostiabehardutasmatunolabaitekoargumentu
(argudio —yo argudio, tú argudias, él argudia—
)ren bat, ezer larririk gertatu baino lehen. Baina
nori axola dio argumentuak? Hau ez da zinema.
Hau ez da filme nazkagarri horietako bat.
«Argumentua» nahi baduzu, zoaz filme nazkagarri
horietako bat ikustera. Hemen soberan daude
argumentu guztiak. Eta zu ere soberan zaude. Eta
baita ni ere (kontsola zaitez, kabronazo). Gu
argumentuaren gainean gaude, hala nola Jainkoak
gure argumentuaren azpian dago, eta gu horren
gainean, katagorri zoroak izango bagina bezala
iraganera katapultatuta (okindegiko neskak, berriz,
«benetakoa» zen errealitate zuri hartan flotatzea
lortu zuen). Baina baliteke zu izorratzeko daukadan
gogoaren esklaboa izatea ni... Tira, besteek baino
okerrago ez dut uste egingo dudanik. Ez, ba. Hori
ezinezkoa izango litzateke. Gure artean tontolapiko
harroputz asko daudelako. Uste dute jakin
badakitela eta dakiten guztia da idazle zahar eta
aspergarriak modu txarrean plagiitzen, ez-dakit-
zein-aitzaki-literario-filologikoen izenean. Ez dut
esan nahi neu naizela idazten dakien bakarra...
Ez... Noski, ez... beno, edo bai. Bai! Zergatik ez,
pingüino hori! Begira, niretzat ez litzateke bat ere
zaila izango eleberri (lehen eleberri esan behar zen

nahitaez) melenga eta aspergarriren bat asmatzea, baina ez daukat denborarik. Gainera, ahaztu zait ni ez nagoela inon Elkartuta, esan nahi dut ez naizela ez dakit nongo Elkartekoa eta ondorioz herriekimenetan eta horrelakoetan gutxitan ibiltzen naizela, eta ez dut hori esaten neure burua zuritzeko ezta neure buruaren lotsagarri izan dadin ere, baizik esaten dudala egia puta horixe delako. Begira, latinez jakingo banu, pasarte bat edo beste latinez idatziko nuke, eta horrek puntu asko emango lizkidake latinez puta ideiarik PUTAIDEIARIK ez daukaten guztien aurrean. Baina edozein modutan, nire esku legoke latinez dakien bati erdipurdiko esaldi batzuk latinez jartzeko enkargatzea (pagatuz, noski) eta horrekin konponduko nuke arazoa eta bide batez saihestu egingo nuke bost urtez denbora alferrikaltzen ibiltzea «*Euskal*» Filologia Klasikoa Fakultatean. Gero, beste bati esango nioke hainbat esaldi greko klasikoan jartzeko eta horrekin hartuko nuke kristoren izena ezjakin guztien aurrean. Zeren garrantzitsuena horixe baita, tontoek zu tontoa ez zarela pentsatzea, nahiz eta oker egon. Zer egingo diogu, ba! Azkarrak jada gutxi dira-eta gure artean. Denak filmak (*pilikulak*) ikusten ari dira, denak elikatzen dira intelektualki zabor horretaz. Egia esan, arrazoi du nire lagun batek esaten duenean dirurik gehien uzten duten negozio bakarrak diskagintza (horteroa) eta filmagintza pornografikoa direla, gustu txarrekoak milioika kontatzen direlako (baita gure artean ere —batez ere, gure artean, zeren besteen artean nola gutxitan ibiltzen naizen ba ezin kritikatu—) eta azken

batean horixe da arte garaikidearen helburua (eta arazoa): dirua. Berdin dio nola irabazten dituzun sosak, baldin eta sosak irabazten badituzu. Eta zenbat eta gehiago irabazi, orduan eta goi mailakoagoa da zure artea. Musika klasikoa, esaterako, horregatik joan da popatik hartzera. Musikariak jotzen duen bitartean, gau horretako emanaldian zenbat irabaziko duen pentsatzen ari delako; eta entzulea, berriz, zenbat ordaindu duen gau horretako kontzertuan egon ahal izateko. Txakuraren putza. Eta azken finean, baliteke gauzak horrela ez izatea. Baina, neurri batean, baliteke gauzak horrelaxe izatea. Eta orduan, nora jo behar dugu? *Noiz* ezin dudan garbi esan. Uste dut desbariatzen ari naizela. Eta gainera, auskalo baten frustrazioak non hasi eta non amaitzen diren. Baina nik ez dut argumenturik asmatu nahi. Hori bukatu egin da. Argumentua nahi baldin baduzue, asma ezazue zeuek. Nik ez dizuet orain arte ezer eskatu, ezta? Ba orduan zer dela-eta eskatzen didazue niri argumentua (argudioa —yo argudio, tú argudias, él argudia—jo-jo-rijo-jó) asmatzeko? Nahigo dut, aukeran, kontzeptuak lantzea, argudioak baino. Esaterako: «Me duelen las pelotas». Kontzeptu interesgarria denik ezin inork ukatu (zer pedanteria! S.O.S.!). Esan nahi dut hor sufrimendua dagoela, batetik; eta itzulpen-kontua bestetik. «Me duelen las pelotas», hasteko, ez pentsa hain erraza denik asmatzea euskaraz. Bai, noski, zeozer egin liteke, baina... nik 1.750 pta. kobratzen ditut orriko. Tira. Gaur, dohainik lan egingo dut. Horretarako gaude Gabonetan.

«Petroetan (edo barrabletan) mina izan; potroetako mina izan; potroetan mina hartu»... Arimako mina izan, ere bai. Zeren mina potroetan edo ariman izatea, berdin da. Ezta? Auskalo arima non den, baldin bada halakorik. Baina minik handiena (gizonon kasuan bederen) barrabil aldean badago, garbi dago hor biltzen direla sentimendu handiko minak, tragikoenak, tentazioak eta aldrebeskeriak. Begira, ni zu banintz, orduan ez nizuke kasu handirik egingo. Ondo esanda dago? Oi, Luk! Oi, Luk! Begira, denok nahi dugu besteen gainean eraginik izan. Hori da kontua. Besteen bizitzetan, galtzontziloetan eta kuleroetan sartuta egotea. Horrek itxaropena ematen digu, zerbaitetarako balio izan dugula, eta ez garela bestek bezain erraz hilko. Denbora pasatzeko moduko zerbait ere bada. Esaterako, espioi-kontakizunak asmatzeko arazorik ez nuke izango, baina egia esan, bigarren orrian bertan aharrasika hasiko nintzateke. Benetan. Gorroto ditut gauza errazak. Gainera, nortzuk zarete zuek ni epaitzeko? Ez al dakigu denok euskal itzulpengintzak duen goi-mailako kalitatea gorabehera, arazo handiak dituela saltzeko? eta hala eta guztiz ere, irakurleek nahiago dituztela kalitate kaskarreko liburuak goi mailakoak baino? Bada orduan nor zara ni epaitzeko, alderantziz hain zuzen gertatzen bazait? Bai, apenas irensten ditudan hemengo jendeak idazten dituen liburuak, eta plazerrik handiena ematen didatenak kanpotarrek idatzi eta gure itzultzaileek euskaraz jarritakoak direla aitortu beharrean nago. Ea hori ere ez ote den harropuzkeria? Edo mendekua

bezalakoa: «Ni ez...? Ba orduan besteak ere ez...». Auskalo, Mandalo (Mandalo Afrikako Tulhandian bizi den lagun baten izena da. Ez da beltza, baina halako izena jarri zioten gurasoek —hara joan baitziren lurralde hartako ahalik eta aberastasunik gehien lapurtzera, horixe baita gizakion patua; batez ere, gizaki puten patua—: lapurretan aritzea eta aitzakia ederrak asmatzea, lapurreta horiek guztiak nolabait justifikatzeko). Oso ondo, kabronazo. Hortxe jarraitzen duzu, beraz? A, zelako pazientzia zurea! Zartailuaz ere egingo zintuzket zoriontsu. Lastima, «orriak gure artean ezartzen duen muga fisikoa» ezin zeharkatzea, benetan zoriontsu egingo baitzintuzket nire zartailuarekin. Baina lehenago esan dut hau ez dela eleberri pornografikoa ez erotikoa... ez eleberria, ziurraski... Eta nori axola dio? Behintzat, idazteko orduan ez dut gogoan izan «zer gustatuko zaio nire argitaratzaileari/irakurleari?». Eta hori abiapuntu ona da, dudarik gabe. Onartu behar dut, hala ere, argitaratzeko tentazioa handiegia dela, eta beti ez dela erraza infernuko kalamitateei belarriak ixtea, zeren nik ez dut inoiz oso garbi izan zer alde dagoen mitologiaren eta mikologiaren artean. Dena den, ez naiz harritzen zeren amak beti esaten zidan oso «micoa» nintzela. Txiste txarra da, ezta? Baina, beno, hobeagorik merezi duzula uste baduzu... Gainera, gustatzen ez bazaizu nola egiten dudan zergatik jarraitzen duzu irakurtzen? Bai, begira. Espazio zuri honetatik aurrera hel diezaiokezu nire zera honen zerari. Ez? Ez zara animatzen? Ez da hain erraza, ezta? Lasai, aholku on bat emango

dizut (eta bigarren aldia da zerbait dohainik egiten dudala zugatik): utzi gurasoen etxea eta bakar zaitez. Eta zoaz bizitzera mendira, leku urrun batera. Eta gosez eta bakartamenduz hiltzen ari zarenean, entzun nire hitzak : izorra zaitez, kabronazo. Horra giza-gupida, urrikaltasuna. Globo puztua, alegia. Barruan ez zegoen ezer. Baina biderik onena idazteko hori da: sufrimendua, bakar zaitez, bihur zaitez suizida eta azkenik, hil zaitez txakur baten gisara. Eta gero, ahal baldin baduzu, idatzi, kabronazo. Ez hartu gaizki. Benetan. Zure onerako egiten dut-eta. Gainera, horretarako ordaintzen didate. Zu entretenitzeko... Goi mailako literatura eskainiko banizu, ziur nago aspertu zinatekeela. Beraz, hobe da behetik hastea... Eta aurrerago, ikusiko dugu zugandik atarramentu onik ateratzea badagoen ala zer arraio (baina ez dut uste, ez; aurpegi horrekin...) Aizu, baina ikusi al duzu ispiluan zer aurpegi duzun? Joder! Zu mundu honetara ekartzea zer izan zen, mendekuren bat edo...? Begira zer egin duzun, ispilua puskatu duzu-eta! Eta berria zen! Badakizu zer gertatzen zaion ispilu bat puskatzen duenari, ezta? Eskuko hatz guztiak minipimerraz mozten zaizkiola. Hori bai zorte txarra!

Dena den, onartu beharra daukat argumenturik gabeko liburua gauza tristea dela, bizitzan ez lagunik ez familiarik ez izatea bezala. Zerbait behar da beti, «gauza materiala» alegia, zeri heldu; bestela, pausatzerik ez daukaten hegaztiak bezalakoak bilakatzen gara. Zeren, behinola, horixe gertatu baitzitaion hegazti-talde bati. Hegazti-

taldeak buruzagiari jarraitzen zion beti. Baina buruzagia erotu eta lurrera ez jaistea erabaki omen zuen. Orduan, hegazti-talde osoak hegan egiten jarraitu zuen, eta ahitu, eta banaka-banaka denak lurrera erori ziren, bat izan ezik: taldeko burua, hau da, hegazti eroa. Hura ez zen inoiz erori, eta oraindik zerutik hegan egiten ikusten zaio, zeren ikasi baitzuen gure atmosferatik kanpo hegan egiten, eta denboraren poderioz konstelazio bihurtu zen. Eta horrek frogatzen du batzuetan zorotasuna ona dela, taldetik ihes egiteko eta espazio zabalagoetara hegan egiteko. Hori dena, esaterako, nire argumentuaren mamia izan zitekeen. Baina nik ez dut horrelakorik nahi. Gustatzen zait poliki-poliki bidaiatzea. Gaur hemen, bihar han. Ostatu honetan sudurra sartu, eta hoteltxo horretan bihar. Paris aurkitzeko, kale handietan ezezik, kale txikietan ere ibili beharra dagoelako. Bakarrik, noski. Edo lagun min batekin. Inoiz ez ezkontidearekin. Ezkontideak Parisen xarma izorratuko dizu; poesia alegia. Turista bihurtuko zaitu. Eta orduan, hiltzen hasi zarela irudituko zaizu. Eta badakizu zer esaten duten jakintsuek: leherketa batean bezala hil behar dela, ez duela merezi heriotzaren zain geratzea, hori ez dela bizitzea; eta onartu beharra dagoela edozein heriotza-mota, edozein momentutan gertaturik ere. Heroikotasuna da hori. Gure garaiotan falta dena, hain zuzen. Zeren heroikotasuna eta erosotasuna ez baitatoz bat. Ulertzekoa denez. Heroia izateko, On Kixote bezalakoa izan behar duzu: ausarta, zoroa... Ezin duzu mundua den bezala ikusi; harantzago

joan behar da, mundua amaitzen den tokira iritsi arte. Munduaren ertza ukitu, hortzekin ukitu, eta edan hortik isurtzen den ura, ur magikoa baita, bizitzen ematen diguna, negar egiteko gauza egiten gaituena. Oso ondo, kabronazo. Egin negar pixka bat, Aitor Zabaletaren omenez. Kabronazo, non daukazu labana? Nora bota zenuen, kabronazo? Baina zuri ere irakatsiko dizu denborak negar egiten, kabronazo. Eta egun horretan belauniko eroriko zara tximistak jota bezala, eta sinesten hasiko zara Jainkoarengan, sinetsi gabe. Oso ondo, kabronazo. Ez gaitezen hain triste jarri. Eta pasa gaitezen bigarren atalera. Zeren, liburu honetan ere, atalik badago, ezta? Eta zergatik ez, gero? Nire liburua da. Nahi dudana egiten dut nik nire liburuekin. Besteen liburuekin ere egin nahi nuke berdin, baina ez didate uzten. Kabronazos. Dirua baino ez dute gogoan, beti egile-eskubideak gora egile-eskubideak behera. Alferrontzi galantak denak. Lan egin. Horra zer egin beharko luketen. Lan egin. Eta kezkatu gutxiago idazteaz. Horrela, bide batez, ez lukete egile-eskubideez arduratu beharko. Eta denok biziko ginateke zoriontsu. Puta mierda de felicidad. Beno, ez nuen hori esan nahi. Baina, azken batean, ez nauzu irakurriko OHOKo bigarren ikasturteko ez dakit nongo ikastolatan, ezta? Hori ez baita nire tokia, baina ezta zurea ere. Horregatik egin duzu piperra, ezta, kabronazo? Eta horregatik ez didate inoiz liburutxo hau argitaratuko, zeren ikastola batean saltzerik ez dagoenez, bada orduan izorrak, motel. Hemen negozioari begiratzen diogu batik-bat; a, eta

hezkuntza onari. Hori ere oso garrantzitsua baita kabronazo on bat izateko. Hezkuntza; eta txanponak. Eta lasai bizitzea besteen miseriaz akordatu gabe, zeren hori oso gauza tristea baita eta gu denok alegerak izan nahi dugu. Hemen bukatzen da bigarren atala eta hasten da hirugarrena. Okerrena, berriz, lehen atala idaztea ahaztu zaidala. Baina berdin dio. Amaieran idatziko dut. Edo epilgorako utzi. Ez dakit. Eta egia esan, ez dut uste garrantzirik bat ere duenik. Esaldi hutsalak ez ditut maite, ezta idazle hutsalak ere. Hiztegiari begira idazten dutenak, esaterako. Edo akonjonatuta dauden beste idazle horiek, eta ondorioz, ausartzen ez direnak benetan «beren» ekipaia erabiltzen, eta ibili behar dute beti liburutegietan pijadak aurkitzen, denon muturren aurrean horiek erakusteko, aurkitu izan balute bezala Kristo aurreko hirugarren mendeko lehen euskal odolkia, eta hortxe hasten dira denak barra-barra kopiatzen batek bere sintaxiaren bidez erakutsitako nortasuna eta... zer arraioa! Hirugarren atala idatzi nahi dudala eta idatzi egingo dut. Eta zu ez zara inor niri esateko noiz hasi behar dudan hirugarren atalarekin, kabronazo! Bai, hilik bazeunden zu bestearen ordezkari askoz hobeto denontzat. Baina tokatzen zaizu sufritzea, ezkutatzea, bihotzeko harra jasatea. Ja, ja. Hobe zaitugu bizirik, bai, zure sufrimendua sakonagoa izan dadin. Kabronazo. Kabronazo gizarajoa... Ipurdiko arima duzu alkoholez ondo bustita, non nahasten baita zure buru kaskamotzeko pentsamendu barregarrien haria. Hobe duzu, bai, eskapatzen jarraitzea. «El

fugitivo». Kaiku alua. Izarretako zulo beltz batetik eroria zara betiko, eta ez mundu honetan ez bestean ez duzu salbaziorik izango. Zeren beste mundurik ere badago. Ez al zenekien? Hori denek dakite, hik izan ezik, lapikotonto. Bi mundu baitaude, bizitzea tokatzen zaiguna eta hiltzea tokatzen zaiguna. Bosgarren dimentsioa bezalako zerbait. Hitz-andana bat komunetik botatzea bezala. Usain txarra, ezta? Tira kateatik, eta hitzak desagertu egingo dira. Oihuka hasiko zaizkizu: «Ai, nagusi, atera gaitzazu hemendik! ez dugu txorongo baten ondoan hil nahi!» Baina ez dute gehiago merezi, ondo hilda daude hitzak, zuek, txorongoak eta... Tira, ez dakit nora heldu nahi dudan; edo hobeto esan, badakit nora ez dudan heldu nahi; edo hobeto esan, badakit nora ez dudan nahi heldu nahi; edo hobeto esan... Bai, kanta bat kantatzen hasiko gara zeren horretarako gaude gabonetan, ezta, kabronazos? Pozik gaude. Turroia, pinua, jostailuak, tripako zorriak bapo asebeste... Lizeoko atezainari emango diot nire obra irakurtzera, kultura handiko gizona baita, goi mailako ikasketak eginak dauzkaten seme-alabak eman baititu mundura. Eta hori ez da gutxi, zeinen tontolapikotradizioa daukagun ikusita. Hi-ru-ga-rren a-ta-la. Kortxo! Non dago? Zergatik ez dut hasi oraindik? Zuek uzten ez didazuelako, beharbada. Zeren ez zarete orain esaten hasiko nik ez dudala borondate ona erakutsi, ezta? Hemen, zenbat eta hobearen, orduan eta hobeto pagatzen dizuten. Bai, horretarako pagatzen dituzten hain ondo idazleak, ahoa itxita izan dezaten. Botereak ere behar du

intelektualtasunaren dirdira, laguntza. Baina horretarako, onena da kazetaritza ikastea. Hortxe daukazu bi gauzak batera lortzeko aukera: dirua eta literatura. Izan ere, mundu puta honetan denetarik egon behar: ni neu, esaterako...

Eta orain, jaun-andreok, laugarren atala. Bai, laugarrena zeren benetan aspertuta nago jada hirugarren atalaz. Gainera, atal hori nik esango nuke soberan zegoela, ezer gutxi ekartzen baitzion kontakizunari. Beraz, ezer gutxi ekartzen bazion, zertarako asmatu? Denbora galtzea izango litzateke hori; eta nik ez dut nire denbora galdu nahi, are gutxiago zuena. Modestia, apaltasuna izan da nire birtuterik onenetarikoa; bestea, nire handitasuna, noski. Porky gauzak onartu behar diren holaxe: handia bazara, ba zer egingo diogun. Nik badakit gehienek ez dakiten gauza bat: gutxi balio dudala. Eurotan, esaterako, txakurrik ez nuke neure buruaren alde emango; ezta zuen buruen alde ere. Baina nire auzoko bat ezagutuko bazenute, oraindik gutxiago emango zenukete. Eta hori ez da nire errua, nire auzokoena baizik. Begira, esango dizut zehatz-mehatz zer nahi dudan: ondradua izan. Bai, ondradua; munta gutxiko lapurrik gehienak diren bezala. Eta gogoratu. Bai, batez ere ondo gogoratu nire aspaldiko ametsez eta ez utzi gaurkotasun nazkagarriari nire amets horiek besterik gabe hondatzen. Ez, benetan. Ez da nire asmoa

deskripziorik ematea eskuizkribu honetan (zeren eskuizkribua baita, «te lo juro»); deskripzioak ongi daude goi mailako artea adierazteko; baina ez dut horrelako asmorik, beste arrazoi batzuen artean, zuretzat lan egiten ari naizelako, kabronazo. Ez hartu gaizki. Ez dizut ezer txarrrik desiratzen, heriotza-zigorra izan ezik. Aitor Zabaleta erail izanagatik. Baina aitortu behar dut pixka bat nazkatuta nagoela, zutaz bereziki, beti hor zaudelako, isilik, ezer esan gabe, putak baino pasiboagoa, kritikatzeko prest. Lotsa eman beharko lizuke, kotila alua, kabronazo... Baina ez haserretu nirekin. Begira, nigatik balitz, ez nizuke ezer kobratuko honen truke. Liburua oparitzen dizut zure ama putari opari diezaiozun haren urtebetetze-egunean. Gainera, nire hitzak debalde heltzen bazaizkizu, horrek nahitaez esan nahi du hitz txarrak direla, merkeak alegia, eta horrela ez duzu kritika literarioaren beharrik izango nire hitzak gaitzesteko. Izan zaitez kontsumitzaile zintzoa: «Ona izango bada, ordaindu; eta zenbat eta garestiago ordaindu, orduan eta hobea». Ez al da horrela, pirulo? Bai, hemendik aurrera, kabronazoaren orde, pirulo deituko zaitut. Ez zaizu inporta, ezta, pirulo?

Esto merece un aparte. Nork esan du idazle izatea ez dela lanbide gogorra, fisikoki esan nahi dut? Zuk ba al dakizu zer den teklatu baten aurrean hamabi orduz jarraian etengabe teklatzen aritzea?

Gihar guztiak aldatzen zaizkizu tokiz, eta hezurak klin-klan-klonka hasi. Bai, edertasunak badu bere prezioa. Eta prezio hori, nolabait, lotuta dago heroikotasunari. Ala ez... Den-dena al da teknika? Nola jakin dezaket hori? Baina galdera ez da edonolako galdera, gero! Artearen mamia ezkututzen baita hor, galdera horren atzean. Teknika omen da gorputza, eta inspirazioa arima. Bigarreneira nola heltzen den jakitea ez da erraza; eta gainera, esan liteke bakoitza bere bidetik iristen dela horra. Teknikaren bidea, berriz, errazagoa da azaltzea: nekea, izerdi-usaina, aldageletako izerdi-usain berbera. Inori gustatzen ez zaion bidea, jakina. Jainkoak bagina, dena suntsituko genuke (bigarren aldiz), eta handik urte batzuetara hankasartze izugarria izan zela onartu. Baina jainkoak ere ez dira hain apalak izaten. Horregatik, kabronazo, lurrean zulo bat eginda ere ezin izango zara gure gorrototik eskapatu. Inork ezin du hori lortu. Gu, lur honetan gaudenok eskaparate baten aurrean egongo bagina bezala gaude, Mendebaldeko kulturak daukan asperdura mamigabe horren erdian, zapata berriak erosteak poza (une batekoa) emango digun gauza bakarra denez; eta gainera, kexaka beti gutxi irabazten dugulako, besteen zorigaitzak eguna goibeldu digulako (hipokrita!), edota erakustoki hartan lapurtu genuen gitarra egun batean guri ere lapurtu zigutelako (ziur zeu izan zinela, kabronazo). Zuek uste al duzue liburu bat zortzi-hamar ordutan idatz daitekeela? Nik uste dut baietz. Zelan den. Ona ala txarra alegia. Gakoa hor dago, kalitateari dagokionez. Baina salmentari

bakarrik begiraten badiogu, nori axola dio kalitateak? Benetan uste al duzue bi gauza horiek lotuta daudela? A, zeinen erraza den bidea galtzea! Itsu batek esan zion bere bidargiari: «Engainatzen ez banauzu, tontoa zarelako da». Orduan, itsumutilak labana sartu zion itsuari, eta negarrez alde egin zuen handik. Gizarajoak ez zuen inoiz itsua engainatu, eta hitz haietan ikusi zuen mespretxua, burla; eta... haren maitasunaz ez zekiela ezer. Zeren pertsonen arteko atxikimendu-mota guztiak maitasun orokorrari lotzen baitira, gure ustekerien arabera sailkatuta egon arren.

Laugarren atala (bis). Bosgarren atalarekin hasteko asmoa nuen, baina laugarrena zeinen ongi ateratzen ari zaidan ikustean, laugarrena berriz hastea erabaki dut, zeren zorrea ez baita tentatu behar, esan nahi dut hobe dela aurreko bidetik jarraitzea, bide horrek eman dizkigun emaitzak onak badira. Esaterako, demagun laugarren atalak ondo funtzionatzen duela. Beno, ba orduan eleberri osoa jarrai dezakezu beti laugarren atalarekin. Eta laugarren atala amaitzen zaizunean, ba berriro hasten duzu eta kito. Oso erraza da. Eta batez ere, logikoa. Zeren, nire ustez, logika oso garrantzitsua da. Bestela, ilogikoa izaten amaitzen zara eta hori ez zaio inori gustatzen. Igual zuri, bai, gustatzen zaizu. Baina kontuan izan behar duzu gizona ez dela irla, eta ondorioz, besteek zutaz zer iritzi duten kontuan hartzea oso garrantzitsua dela. Esaterako,

Estatu Batuetako lehendakaria izan nahi baduzu, besteek zutaz zer iritzi daukaten kontuan izatea oso-oso garrantzitsua da. Ezetz, Mister Klinton? Baina, por kontra, Mississippiko kartzela zikin batean usteltzen ari bazara, orduan, garrantzi putarik ere ez du besteek zutaz zer iritzi daukaten kontuan izateak ala ez. Salbuespenik salbuespen, noski. Dena den, nik nahiago dut halako faunoa izatea. Faunoa, bai, basoetan libre, neskato birjinal guztien atzetik, xirula eta larrua jotzen, denborari barre eginez, zahartzea zer izan daitekeen jakin gabe, egunsentiko une ditxosoak adoratzuz eta ilunabarreko kanta magikoei jarraituz, sute on baten inguruan, mendian, eta basoan, eta oihanetan, nire lagun zuhaitzekin hizketan, inspirazioari emanda beti. Hori da sinfonia: bizitzako sinfonia. Izan ere, beti esan dut bizitza soinu-multzoa dela. Soinuak. Hizkuntza bezala, eta gainerako guztia bezala. Baina soinu horien harmonia antolatzea gure eginkizuna da. Gai bazara, orduan lagunak eta porruak izango dituzu; bestela, gehienez jota, por kulo emango dizute. Ba, begira, gogoratzen dut behin, Cabezuela del Vallen, beti idazten ari zen batek esan zidana: zenbait tokitan lan egiteko, ipurtzuloa handi samarra eduki beharra dagoela. Aizu, ez dut esaten hori egia edo gezurra denik. Baina esanez gero, atsekabe bat baino gehiago ekarriko dizkidala, hori gauza segurua da. Dena den, ez dut ezer esan. Nik bakarrik esan dut beste hark esan zuena. Erantzukizunik ez dut onartzen eta bestalde errebindikatu, exijitu egiten dut nire kolaboratzaileen nortasuna anonimatu

gordetzeko daukadan eskubidea bete dadila. Gainera, ez naiz inongoa. Nonbaitekoa izatekotan, nire portalekoa naiz. Osea, gauza handirik ez nire aldetik. Baina, tira. Okerragoa ere izan zitekeen. Uste dut pixka bat urduri jarri naizela. Orri-kopuruari begiratzen hasi naizela alegia. Badakizue... «Bukatu ahal dezaket? Nahikoa al da?» Idazle kaskar guztien kezka. Idazten ari zarena kaka putza gogorra bezain zail ateratzen zaizula? indar eta indar eginik ere ipurtzuloa haustea besterik lortzen ez duzula? Ba efektu bera. Halakoxea da bizitza: gutxitan ongi ateratzen den puzkerra alegia. Filosofia merkea, bai, hurrengo urteaz geroztik edaten hasiko garen ardoa bezain merkea (esportazioen errua da hori, gehiegi saldu omen dute-eta...). Eta orain bazkaltzera noa. Nik bakarrik bazkaltzen dut beti. Eta zuk? Batzuetan, eguneroko menua jatera joaten naiz, baina bakardade-sentsazioa gero eta jasangaitzagoa egiten zait eta etxean bazkaltzea nahiago dut, lasai, bakarrik egonda ere. Dilistak lukainkarekin. Neuk eginak. Eta piperra, azenarioa, tipula eta... estarlux! Goi mailako sukaldaritzan falta ezin daitekeen osagaia. Bekatua! Bekatua! Tira, kabronazo, on egin.

Hamargarren atala. Non kontatzen baita Felicitas lagunari gertatu zitzaiona, behin, Kosta Klara inguruetara eginiko bidaian, luze gabe azalduko dena (gorabehera askorekin), han

bizitakoak merezi du-eta, horretan denak ados agertzen direnez, bai herriko jendea bai kanpoko jendea, kanpokoan belarrira ere iritsi baitziren Felicitasen balentriak, gauez batik bat gertatu zirenak, indigenen laguntzarik gabe kontatzea oso zaila izango ziren gorabeherak, beste arrazoi batzuen artetik Felicitas honez gero hilik egongo delako, oihanean bizirik irauten ideiarik tipiena ez zuelako, eta ez da harritzekoa, halakoxea baita mundua, ajenoa, arrotza, ajenoa gure aldameneko auzokoaren bizitza bezalakoa, baina oihanean are ajenoagoa, auzokorik ez dagoenez, edo bai, badira, baina ez dira ikusten, eta ikusten dituzunean damu egiten zaizu, dena, bizitza, oihaneko bizitza, hirikoa, zu, dena damutzen zaizu ulertzen duzulako zu ez zarela bizkotxo gozoa baizik, arrain txikia alegia, eta orduan krudelkeria ulertzen duzula iruditzen zaizu, eta ankerkeria dela mundua ibilarazten duena, zainetan, odolean daramagulako, ezin delako saihestu odolaren deiari jarraitzea. A! Animaliak akabatu, herri osoak suntsitu, sentimentalismoz, tragedia handiak idatzi ahal izateko, Neron-ek egin zuen bezala, bere sute anker hartan, denboraren oroimena gainditu zuenean, eta orduan Jainkoa izan zenean baina izan gabe halere. Aizue, nork zigortu zuen denbora-hasieretako jainkoek erakutsitako ankerkeria?, jainkoak beraiek ankerrak baziren, noiz hasi zen justizia, eta ondorioz, noiz zuzenbide naturala? zeren naturaltasun osoz hiltzen baikenuen garai haietan, hala nola gure garaiotan ere, hipokresiarik gabe gauzak esanez gero, kontua hori baita, alegia gure

anckerkeriak etorkizunean bizirik irauteko gai izatea —ontasunak bere bideak baditu ere—, ez baita dena beltza, hala nola ez den dena arrosa, edo urdina, edo... tira, zuk esango didazu zein den itxaropenaren kolorea euskaldunen artean. Baina demagun ez dagoela halakorik; edo demagun pertsona batek bere kolore propioa eduki nahi duela, gaizki ikusita dagoena, batez ere gure artean, euskaldunon artean, zeren toki guztietara joan behar baitugu saldoka, ondo elkartuta, gure eskuzabaltasuna erakutsiz, zeinen handiak garen hamar mila elkartzen garenean. Biharamunean, ordu gutxira, ohartuko gara zeinen gizabanako soil garen, zeinen isolaturik gure nahiekin, gure gezurrekin, gure egiekin, eta azken batean gure patua inor gutxiri axola zaiola, beharbada ezta guri ere, zeren nik ez baitut sinesten zenbakietan, gezur hutsezkoak direlako, abstraktuegiak nolabait esateko, eta pentsa une batez filosofia irakurtzeari emango banio, zenbat hitz: tonaka, milioika, orain konputagailuekin erraz kontatzen direnak, laster esateko modua izango dugularik «bi milioi zazpiehun ta berrogeita hamar mila lauhun eta hirurogeita bi hitzeko gizona (idazlea alegia) zen». Ez da gutxi, zenbakiak batzuentzat zeinen garrantzitsuak diren ikusita. Baina gu ez gara horietakoak; gu besteetakoak gara, ezta? Diferenteak alegia. Txakurraren putza ez, baizik putzaren txakurra. Horra diferentzia zertan den: atzekoz aurrera edo aurrekoz atzera bideratzea gauzak. Puntu bat non bostekoa luzatzen diogun elkarri, eskuko hatz guztiak ondo birrinduta uzteko,

noski (adiskidetasuna baita etsaitasunaren ataria, eta besterik ez). Gainerakoa, berez dator. Pazientzia kontua, noski. Eta urteak —irakaslerik onenak—. Jakintza zaharrari bizkarra eman diogun arren. Gure onerako eta gure txarrerako. Baina orain beranduegi da eta idi-begirada jartzea baino ezin dugu egin. Zeruak goian jarraitzen du, eta egunen batean odol tankerako txua botako digu aurpegira. Egun horretan jakingo dugu ezereza eta bizia garela (Pavesek zioen bezala); egun horretan urtuko zaigu itxaropena bekokian eta jakingo dugu, ere bai, azken judizioko eguna iritsi dela. Baina ez gaitezen erlijiozaleak izan. Zeren, hori dela-eta ez dizuet katramilarik sortu nahi. Ondo izan.

Ondo da. Seigarren eta zazpigarren atala bukatutzat emango ditugu. Liseriketa bakoitzak denbora eskatzen du-eta. Bizitzak bezala. Halako zentzu filosofiko batean esaten dut. Hori modan dago. Badakizu. Filosofiaz hitz egin filosofiari buruzko lau liburutxo irakurrita. Hori edonork egin dezake, baita zuk ere, kabronazo. Anima zaitez. Horixe behar dugu denok. Baina nik, benetan, ez nago oso ziur zer egin nahi dudan. Beharbada, hemen bertan moztu beharko nuke. Ez dut idatzi nahi, soilik «liburu luzea» idazteagatik. Hori bost axola. Eta argitaratzea ere berdin. Beno, hori ez da guztiz egia. Argitaratu, modu asko daude argitaratzeko. Goi mailako argialetxe batean argitaratzea nuen gogoan. Baina beste bide batzuk

ere badaude. Internet, Infranet, Euskonet, Bidenet (bidet+net)... Mundu mutu hau onartu beharra dago txiki samarra dela; baina hala ere, denontzako lekua dago. Esaterako, zorrientzako tokia dago. Eta zorrientzako tokia badago, ba orduan guretzako ere bai. Merezimendu gutxiagoarekin —hori ere onartu beharra dago-eta—. Dena den, mikroskopía da zientzía benetan interesgarria. Bai. Zeinen ezdeus garen erakusten digu. Gure handitasuna apurtu egiten da milaka atomotan, zelulatan, bakteriatan... Azkenik, bizirik dauden mendiak bezalakoak gara. Apur bat jainkoztatuta. Zeren hori baita bide bakarra jainkoa existitzen dela frogatzeko: gu geu jainko bihurtzea. Eta orduan, gudan sinestea baino ez daukagu. Edo gure eszeptizismoa azken muturreraino eraman: gu jainkoa gara, baina hala eta guztiz ere, jainkoa ez da existitzen. Beraz, gu ez gara existitzen. Horrela, bi gauza lortzen ditugu: bata, jainkoaren existentzia ukatzea; eta bigarrena, gure existentzia ere ukatzea. Horrela, bi gauzak batera deuseztatzen ditugu: garena eta ez garena. Jolas polita da, hala ere, filosofiarena. Gauzeekin berriro hausteko aukera izango banu, uste dut gehiago saiaturko nintzatekeela filosofiarekin. Baina berriz jaiotzekotan, euskaldun jaio nahi nuke, denborarik galdu beharrik ez izateko euskaraz ikasten, eta horrela, bide batez, filosofia ondo ikasi. Niri ere kristoren putada egin zidan diktadoreak. Denoi bezala, denbora kendu zigun. Hogei urte gutxienez. Bizitza oso bat, azken finean. Txakurraren putza harentzat. Orain argumentu baten falta nabaritzen hasi naiz. Badakizu, idazleak

zer esan ez dakiela geratzen denean, ba orduan argudioaz baliatzen hasten da edo, esaterako, pertsonaiez. Bai, berriketan hasteko agintzen die. Edo, kasurik onenean, deskripzio polit batean galtzen da. Hori ere ez dago gaizki. Baina jakin behar... Tira, egia esan, pazientzia kontua ere bada. Entziklopediak, liburutegiko lana, hiztegiak... Dena den, idazlerik onenak dira gauzak berezkitasunez kontatzen dakitenak. Ni, behintzat, sinetsita nago posible dela gauza guztiak «buruz» esatea. Noski, denak ez dira hori egiteko gauza. Gainera, idazleari inguratzen zaion kulturak, gizarteak alegia, badu bere garrantzia. Tira, ez dut puzkarbide honetatik jarraitu nahi. Iruditzen zait puzkarrizketa honetan itotzeko arriskua handiegia dela. «Ekintza» falta dela. Pertsonaia bat edo beste. Falta zaigula arratsaldea beste modu batean igarotzeko erabakia hartzeko ausartasuna. Ni puntu txiki batean nago. Eta ez dizut esango puntu txiki horretan galduta nagoenik ez bailitzateke egia izango. Puntu hori norberaren tokia da. Eta lekuz aldatzen garenean ere, puntua geurekin eramaten dugula iruditzen zait, lekuz aldatuko ez bagina bezala izan dadin. Beharbada, penarik handiena ematen didana da ikustea aurreko ataletan erakutsitako umorea galtzen ari naizela. Baina ez naiz harrizkoa. Ezin ditut saihestu umore-aldaketa horiek. Mundu hau, den bezala, ordenagailuaren pantailan idazten duguna bezain fantasmagorikoa da. Letra horiek... edozein momentutan auskalo nora desagertzen direnak... Inoiz ez al duzue pentsatu, ezen, geuk, gizakiok asmatzen dugun

guztia geure «patuaren» ildo beretik doala? Esaterako, asmatzen ditugun kotxeak gu geu bezalakoak dira: jaio, bizi, zahartu eta hil egiten dira. Jaiotzea da fabrikazioa; biziitzea, erabilera; zahartu horixe bera, aberiak hasten direnean alegia; eta hiltzea, automobila bota beharra. Gauza bera gertatzen da asmatzen ditugun gauza guztiakin: etxetresnak, teknologiarik onena,... Den-dena asmatzen dugu aldi baterako. Ezin dugu gainditu geronen bizi-iraupenari buruz ezin duguna gainditu. Hiltzeko jaiok gara eta hiltzeko asmatzen dugu dena. Dena den, teknikan ere uste dut halako hilezkortasun bat bilatzen dugula, artean edo literaturan ere bilatzen duguna (ala kontzeptu zaharregia da hori? grekoen garaikoa, esaterako?). Bai, jaun-andreok, tristura eta barregura iturri beretik sortzen dira, eta leku berean itzali. Eta nik ez dakit nor naizen, nor zaren, zer nahi dudan, zer nahi duzun. Itxaropen bakarra dut, oraindik orri batzuk gehiago idazteko gai izatea. Baldin eta hori itxaropena bada... Nori axola? Zortzigarren atala hasteko garaia badela uste dut. Eta ikusiko dugu, orduan, nolako aldar-tean nagoen ordurako! Hala biz.

Bederatzigarren atal honen aurrean, bi gauza argitu nahi ditut: ez duela merezi liburu aspergarriak irakurtzea; eta ez dagoela inolako obligaziorik hasitako liburua bukatzeko. Horrek sinplea irudi arren, zaila gertatzen da batzuetan.

Zenbat lagunek ez ote digute noizbait esan: «Ba liburu hori ez zait gustatu, ez. Aspergarria edo astuna iruditu zait». Ondo da. Eta orduan, zertarako irakurri dituzu liburuak letra txiki-txikian idatzita zeuzkan hirurehun orriak? Galdera ona da, dudarik gabe. Halako kasuetan nire buruari galde egiten diot zer bilatzen dugun irakurketan. Bistan dago «indar jarkiezin» batek bultzatzen gaituela hasitakoa bukatzera. Badirudi gure izaeraren zati dela halako jokaera, bizitzako beste hainbat alderditan ere nabarmen jartzen dena. Baina indar jarkiezin bati buruz hitz egiteak ez al dakar «magikotasuna» aipatzea? Edozelan ere, merkeegia iruditzen zait «liburuak magikoak» direla esaten hasia. Esaldi batzuk oso erabiliak badira, ba orduan hobe da baztertzea, erakutsi nahi ez baduzu, behintzat, irudimenik edota kulturarik gabeko idazlea/kritikaria/irakurlea/irakaslea zarenik. Banuen adiskide bat esaten zuena mundu honetako pertsonarik patetikoena kulturarik gabeko idazlea zela. Eta ez zebilen erratua. Baina idazleari eskatzen zaiona eskatu-beharrekoa da beste edozeini, irakurleari barne. Niretzat ez du balio eta... zera... kof-kof... ajum-ajum. E... Beno... Hurrengo atalera pasatzea izango da onena.

Hamaikagarren atala. Joxe Mielek nekaturik begiratu zion handik nekaturik pasatzen ari zen gizakiari, eta iruditu zitzaion hura ez zela gizakia, lanpas edo zerria baizik. Eta harengana hurbildu eta

labana sartu zion saihetsezurretan eta gero alde egin zuen begiratu ere egin gabe lekukorik bazegoen. Eta bai, noski, lekukorik bazegoen zeren eguerdiko hamabiak ziren eta kalean une hartan ehunka pertsona zeuden, eta banku bateko bideokamerak den-dena grabatu zuen eta kasualitatez han grabatzen ari ziren ez dakit zein telebista-kateetakoek ere den-dena filmatu ahal izan zuten, eta Bideos de Primeran saria irabazi zuen bideozaleak ere Joxe Mielen ekintza jaso zuen zehaztasun harrigarritz. Beraz, garbi zegoen Joxe Miel erabat kakaztuta zegoela eta ondorioz ez duela merezi berataz gehiago hitz egitea. Hala ere, aurrerago, kartzelan bisitatzerako joango gatzazkio eta galde egingo diogu ea zergatik egin zuen, ea askatasunaren falta nabaritzen duen kartzelan dagoenetik, eta oro har, audientzia entretenitzeko egin ohi diren galdera lerdo horiek guztiak egingo dizkiogu guk ere, besteak bainoago ez garenez, ezta nahi ere, zeren gu apalak gara, eta «decentes», puta ondraduak bezain «decentes». Begira, nik ez dut ezer puten aurka, baina maila apaleko auzo batean jaioa naiz, Amara Berrin hain zuzen, eta han denetik irakasten zizun bizitzak.

Hamabigarren atala, non kontatzen baitira entzutea bakarrik beldurra ematen duten gauzak. Eta ez dut inor beldurru nahi; beraz, hori hain zuzen ez dizut kontatuko. Baina gauza beldurgarriak ezagutu nahi badituzu, ikasi Zuzenbidea eta izan

probetxu handiko gizona, izan zintzoa, eman botoa behar den garaian, garbitu hortzak egunean hiru aldiz, eta behatzetako azkazalak mozteaz ere ez ahaztu (gauza benetan zikina baita, azkazal azpikoak beltz izatea). Halakoxea da gure komeria existentzialista hau: partzuergo ahaztu bat basamortuaren erdian, eta ehiza-hegazkinak zure buruaren gainetik bonbardatzen zure familia, zure etxea, zure ahuntzak. Hori da justizia. Eta berrogeita hamar urte pasa eta gero, esan damu zaizula, halakorik ez dela berriro gertatu behar, dena «hanka-sartze» izugarria izan dela, txantxa ia-ia, eta historiak ematen dizkigun irakaspenetatik ikasi behar dugula, eta jarraian oka egin, bai, oka egin zure aurpegiaren gainean (ahal baduzu), eta masturba zaitez oinekin eskuak moztu badizkizute (ez uko egin plazerrari), mundu honetan den-dena ikasten baita borondate ona izanez gero, urkatzen ere bai, eta barkatzen, eta mendekua betirako gordetzen. Ikasten diren gauzak dira horiek. Baina nola ikasten diren gauzak, holaxe ere ahaztu egiten zaizkigu, batez ere hilaren bukaeran nomina jasotzen dugunean. Okerrena da, hilaren bukaeran zure tripako zorrien deia besterik ez jasotzea. Orduan da okerrena. Orduan akordatzen zara mundu honetan izan diren kabroi eta santu guztiez. Eta orduan ere kriston pena emango dizu bonba bat gure planetak eguerdiko hamabietan pasatu behar duen tokian, hain zuzen, ezin jarri izateak. Ulertzen duzu zer esan nahi dudan, kabronazo?

Hamahirugarren atala. «Zeinen aldakorrak garen izpirituz». Esan nahi da gure gogo-egoera izugarri aldatzen dela une batetik bestera. Agian, hori da idazlea gehien harritzen duena. Idazteko orduan, esan nahi dut. Zeren nolako aldarlean zauden, halako gauzak ateratzen zaizkio idazleari. Begi-bistakoa da, ezta? Bai, baina beharrezkoa da begi-bistakoak diren gauzez jakinaren ganean egotea; bestela, gure ondotik pasatzen dira ez balira bezala. Eta hori, egia esan, berez ez litzateke txarra izango. Esan nahi da berdina dela zergatik hiltzen zaren jakitea edo ez. Kontua da hiltzen zarela, ezta? Baina bizirik zauden bitartean, zerbaitekin distraitu behar eta horretarako dago kultura, jakintza, artea, teknologia, gerra. Ostrukek uste dut burua lurpean sartzen dutela, saihestu ezin duten arriskuaren aurrean. Guk idatzi egiten dugu, koadroak pintatu, eskulturak egin, eraikin ederrak altxatu (dakiena, noski). Azken honetaz gogoeta pixka bat egitea merezi du. Begira, garbi dago pintore, eskultore, idazle gazteek e.a. benetako artea egiteko asmoz ekiten diotela beren lanbide zail eta arriskuz beterikoari; baina arkitektoaren kasuan ez dago hain garbi. Zergatik? Ba, diruagatik. Denok badakigu artisten lagunik litezkeenak zorriak direla; baina arkitektura ikasten hasten diren ikasleen kasuan erabat desberdina da: karrera amaitu eta gero, badakite-eta diru asko irabazteko aukera izango dutela. Hori ordea ez da artistekin gertatzen, ezta ikasketa akademikoak egiten

dituztenekin ere. Bost urteko Arte Ederren ondoren, zeinek pentsatzen du diru asko irabazteko aukera handiak dituenik? Popeye el Marinok igual... Eta idazleekin ere berdin gertatzen da. Noski, ez dago Idazgintza-Fakultaterik (zorionez); baina igual da, goi mailako ikasketa akademikoak dituzten idazleak ere ugariak dira-ta. Hala ere, idazle lan egin eta irabaziak hortik atera nahi badituzte... jai daukate! Beno ba, hor dago desberdintasuna. Gaiez aldatzeko. Lehengo egunean, kartel batzuk ikusi nituen Donostian. Esaten zuten: «La Ciudad de la Diferencia». Nire artean barre egin nuen, kartela euskaratu zuenak oso ongi egin zuelako, hau da, «Desberdinak Hirikide» itzuli zuen. Nik, ordea, nire itzulpen-senari kontzienteki muzin egingo niokeen, eta horren ordezt, hitzez hitz horrela itzuliko nukeen testua: «Desberdintasunaren Hiri». Behar da gauza bakoitzari dagokion izena ematea. Horren truke lanpostua galdu arren. Jo-jo-jori-jo-jó.

Hamahirugarren atala. Non kontatzen baita zeinen koldarrok garen ondo bizi garen guztiok, eta nola gure elkartasuna amaitzen baita gure ontasuna amaitzen den tokian. Noski, nik ez daukat bat ere iritzi onik gizakiaz, neronen buruaz barne. Baina zer egingo diogun! Orain, zaharregia naiz-eta aldatzeko. Nahita ere, ezin izango nituzke nire haragi-puska hauek bertan behera utzi, horien ordezt haragi-puska berriak janzteko. Edo bai...? Egia

esan, tokiak egiten gaitu; lurraldeak moldatzen gaitu. Willy Lomanen auzokoak esaten zuen: «Lurraldeak berak sortzen ditu halako gizonak». Eta egia hutsa da. Nepalera bizitzera joango bagina, berrogeita hamar urteren burua Budari otoizka arituko ginатеke. Ezin da saihestu. Paisajeak berak bultzatzen gaitu hartara; paisajea zainetan sartzen zaigu; eta paisajearekin batera, paisaje horren historia, bertoko gizakiena eta animaliena... Animaliak... Zeinen ergelak garen! Zergatik uste dugu existentziaren zentroa gu, gizakiok, garela? Zergatik ezin dugu onartu animalien artean beste animalia batzuk baino ez garela? Hori onura ekarriko lioke fauna osoari, oro har, eta bide batez, baita guri ere, onarpen horrek apalagoak egingo gintuzkeelako. Ni naturazalea naiz, ekologista, berdea. Errebindikatu egiten dut nire planeta, bertan dauden animalia eta landare guztiekin. Baina batzuetan zalantzak izaten ditut. Esaterako, gizakion ankerkeria ikusita, ez ote litzateke hobe izango gizakiari uztea bere burua suntsitzen? Hemen bi gauza desberdin daude. Alde batetik, gizakiaren suntsipena dago; eta beste alde batetik, animalia eta landareena. Lehena baliteke beharrezkoa izatea; baina bigarrena, naturazaleen ikuspuntutik, ez. Nik, ordea, ez ditut gauzak hain garbi ikusten. Zeren ez al gatoz gizakiok animaliangandik, eta animaliak baino lehen, ez al ziren landareak izan, eta horrelaxe lehen zelularaino iritsi arte? Beraz, animaliak eta landareak bizirik utziko bagenitu, baliteke prozesu berbera berriz hastea, eta bostehun mila urte barru

(gizakiak suntsitu zirenetik) gizakia berriro Lurrera itzuli, Lurrean gorpuztu alegia. Eta den-dena hasiko litzateke berriz. Edo ez...? Gainera, izadia jakintsua da. Izadiak badaki nora doan. Izadiak gizakiaren suntsipena prestatzen badu, horretarako arrazoi onak (eta sekretuak) izan behar dituen seinale. Guri, egia esan, iruditzen zaigu planeta arriskuan jartzen dugula, izadia pikotara bidaltzeko zerbait egin dezakegula. Baina hori barregarria da. Guk ez dugu ezer asmatu Lurrean bertan ez zegoenik. Gure osagai kimikorik arriskutsuenak hortxe zeuden, norbaitek noiz aurkituko zain, nolabait esanda. Esaterako, energia nuklearra erabilia Lurra «suntsituko bagenu», egiatan, suntsitutakoak geu izango ginateke, Lurra baino. Izadiak aurrera jarraituko luke, gurekin edo gu gabe. Bizi-forma batzuk baino ez gara gu izadiarentzat; gure beharrik ez du naturak. Beste bizi-forma batzuk asmatuko lituzke, eta kito. Agian, hobeak. Kontua da... Nola geratzen gara gu? Esan nahi dut, «gutziz» desagertuko ginateke? edo izadiaren barruan beste leku bat okupatzera pasatuko ginen? Galdera zaharra da hori, denbora bezain zaharra. Eta zoritxarrez, ez du erantzunik. Hala ere, beti pentsatu dut guretzat, gizakiontzat, erabat ezinezkoa dela ezereza irudikatzea. Beraz, ezin gara izan irudikatu ezin dezakeguna. Era berean, irudika dezakegun guztia izan gaitzke. Julio Verne, esaterako, irudikatu egin zituen geroago egia bihurtuko ziren makinak (urpekuntzia, kasu). Eta fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak, halabeharrak baino, gure irudimenak

ezartzen duela nork ez du noizbait pentsatu? Baina horregatik, hain zuzen, ezinezkoa da ezereza gertatzea. Itxi begiak, une batez, eta saiatu ezereza irudikatzen. Ezin duzu. Ezereza «zerbait bezala» deskribatzen hasiko zara, eta horrek esan nahi du «zerbait» irudikatu duzula. Beraz, ezereza ezin da existitu hura irudikatzerik ez daukagulako. Eta norbaitek esango dit: eta hildakoak ere gai al dira «ezereza» irudikatzeko? Baina ni bizitakoaz ari naiz, hau da, Donostian banago ezin naiz ibili Bartzelonako kaleetatik; horretarako, Bartzelonara joan beharko dut-eta lehenik. Hala ere ez dut jakingo Bartzelonako kaleetan ibiltzea zer den, han egon arte. Beraz, heriotzan egon arte ezin izango dut jakin zer den heriotzako kaleetan ibiltzea. Beraz, beharturik nago gauza bakoitza bere tokian, bere momentuan, bere espazioan pentsatzera, bizitzera. Halako zentzu praktikoaz naturak berak hornitzen gaitu.

Hamalagarren atala. Non esaten baita ez dela beharrezkoa alde aurretik helbururik izatea, nolabaiteko helburuak lortzeko, predestinazioaren eragina helburuetaraino ere iristen baita; izan ere, grekoen patua bizirik dago gure egunotan ere, hau da, patuari ihes egitea zaila dela. Baina patua aipatzen dudanez, hemen ere halako bereizketa bat egin behar da. Zeren, alde batetik, gizabanakoen patua dago; eta beste alde batetik, taldeko patua edo patu kolektiboa. Guri dagokigun patuari

dagokionez, ez naiz hasiko filosofia zaharrak jada nahiko marruskatuta daukana berriz marruskatzen, hau da, benetan ote garen gure patuaren jabe, edo nor bere bidetik ezinbestez ibiltzera beharturik dagoen, denbora oso gai interesgarria izan arren, zeren ardo ona beti baita ona, zaharra izan arren, eta plazerra ematen digunak plazerra ematen jarraitzen badu, zergatik ez dugu plazer horretara itzuli behar nahi adina aldiz? Gainera, kontzepturik zaharrena, ideiarik txikienak, erabilienak beti berriak dira batek beretzat eta besteentzat lehen aldiz pentsatzen dituenen. Hori da gure gizartearen gaitzik handiena: gutxi pentsatzen duela, denbora gehiegi galtzen duela telebistari begira. Eta telebista, hala nola zinemetako pantailak, pentsamenduaren munstroak dira, pentsamendua jaten, desagerrarazten dutelako. Jarrera pasiboa eskatzen dute (eta hori baliteke gure mende hau emakumearen mendea izateari lotuta egoteagatik, zeren nik halako pasibotasun bat ikusten dut emakumearengan, baina pasibotasun existentzialari buruz ari naiz, hau da, ez naiz egunerokotasunaz ari —nahiz alor horretan ere antzinako pasibotasun horren isla egon—). Patua, berriz, gizabanakoaren patua den aldetik, mitologiatik hurbilago ikusten dut aldaezina denaren ideiarik lotuta agertzen zaigunean; eta mitologiaz hitz egitea, literaturaz hitz egitea da, arteaz, magia... Bestea, nork bere patua bideratzeko errebindikazioa, esango nuke horixe dela, arrazoimenaren errebindikazioa, kristautasuna galdu baino lehenagoko premia. Lehena da, noski,

ederrena, poetikoena. Artearen iturburuei zuzen lotuta. Eta bestea, gure heriotza kimikoaren egiaztagiria sinatu duena. Zeren lehenik heriotza mitikoa izan zen; gero, heriotza fisikoa (kristautasunarekin); eta azkenez, heriotza kimikoa heldu zen. Gizakiok ziztrinak gara, eta horregatik banandu behar dugu geure historia (eta geure patua) hainbat zatitan, eta zati bakoitzari izen bat eman, hortxe islatzen delarik gure ahultasuna, espazioan flotatzen bagina bezala eta espazioan bertan «iltzatutako» segurtasun-kateak jarri izan bagenitu bezala, horiek ere espazioan flotatzen, gurekin batera, espazioari lotuta, aske. Bai. Espazioan mugarik gabe (heriotza) mugitu ahal izateak aske egiten gaituelako. Eta hori da patua, gizabanakoaren patua. Eta bi kontzepzioak biak bat dira. Eta horra zerbait berri atera dugula antzinako gogoeta hauetatik, zeren nik diot gure esku dagoen patua eta jaiotzatik bertatik inposatu zaigun patua patu bera direla. Espazioan flotatzen goaz kateatuta, bai; gure kateak ez daudenez inora iltzatuta, gu aske gara eta kateek gure patua erdibanatzen dute eta guk erdibanatzen dugu geure kateen patua, gauza materialen patua dena —eta ondorioz, gurea baino posizio txikiagoan, bigarren mailan edo—. Eta beste alde batetik, taldeko patua dago, edo patu kolektiboa. Euskaldunon kasuan, ondo legoke herri-patua esatea, hain «herrizaleok» garenez. Baina hemen gauzak aztertzea konplexuagoa da, zeren-eta, gizabanakoaren patua osagai bakarrez osaturik dagoen bitartean, herri-patua osagai ugariz osatuta baitago. Beraz, herri-

patuaren nondik norakoa aztertu ahal izateko, ezinbestekoa dugu gizabanako bakoitzaren patua ezagutzea, gauza ezinezkoa dena, guk ez daukagulako Jainkoak daukan oroz-ezagutzaren dohaina. Arimen labirintoan sartzea bezalakoa litzateke. Arimak, garai guztietan bizitakoak, inorena ez den lurralde batean bilduta daude, beraiek bakarrik dakiten helburuarekin; eta horien artean behin nahastuz gero, eztago bueltako bidea aurkitzerik. Eta hori da heriotza, ez bakarrik gorputzaren heriotza mitiko, fisiko eta kimikoa, baina baita arimaren heriotza ere, labirinto batean sartzen delako, eta hortik ateratzerik jada ez dagoelako. Nahi ukan ere ez: pentsamendua pentsamendu erraldoi batean isurtzea bezalakoa baita. Eta hori da, azken batean, herri-patua: pentsamendu labirintikoa, ASMO bihurtuta, eta gerorantz proiektatuta. Proiektzio horrek heriotzarekin topo egiten du, hiltzea baita zientziak oraindik irtenbiderik eman ez digun ezinbesteko isuria. Eta ez al da «bekatua» horrela hitz egitea, hau da, «oraindik irtenbiderik ematen ez digun...?». Babel dorrea datorkit gogora. Baina, ni ere, kristautasunaren kulturen hazia naiz. Beraz, nik ere bulkadak ditut —kristautasunaren oihartzuna, esaterako—, nire buruan durunditzen dutenak. Eta oso zaila da historiatic eskapatzea —ezinezkoa ez bada—. Baina nortzuk izango gara zortzi mila urte barru? Ez da denbora asko; nahikoa, bai, ordea —galderaren nondik-norakoa eskuen artetik labain ez dakigun.

Hamabosgarren atala. Non tratatzen baita zeinen zaila den —ezinezkoa ez bada— norberaren pentsamenduaren jabe izatea, eta hizkuntzek horretan duten garrantzia. Baten buruan hizkuntza gaixorik badago, orduan pertsona horren existentzia osoa dago gaixorik. Eta hori bai arazo larria (gure egunerokotasunari begira, behintzat; unibertsaltasunari begira, ordea, bost axola. Mexikon, esaterako, lurrikara batean bost mila pertsona batera hiltzea bezain garrantzigabea. Guk, hala ere, mina neurtzen dugu sentiarazten gaituenagatik, eta ez unibertsoan edota eremu «kosmikoan» eragin dezakeenagatik). Pentsamendua tutua bezalakoa da, eta bertatik pasatzen dira burmuinetan sortzen diren hitzak, baina modu ordenatuan. Ulertzen al duzu, kabronazo? Zeinu matematikoetan pentsamendua bilakatzea zaila bada, hori zure erruagatik baino ez da gertatzen. Matematikako zeinuetan, hala ere, pentsamendua jaio eta berriz hil egiten da, musikarekin gertatzen den bezala. Hain abstraktuak direnez, hizkera hori erabili ahal izateko egin behar den ahalegina pentsamendua birjaiotzera eramaten du, eta jaiotzen den guztia hiltzen denez, berriz ere hiltzera. Erdian ez dago ezer, eta bukaeran... animalion adiskide zahar eta beldurgarria.

Hamaseigarren atala. Non ez da ezertaz tratatzen. Bai, igarri duzue, triste nagoelako. Liburu-dendara joan naiz eta liburu interesgarri pila ikusi dut. Horregatik nago triste. Ohartu baina ez dudala aukerarik kultura horri guztiorri ñaka-ñaka egiteko, beren kasa astolana egiten duten autonomo horietakoa naizelako, ezkondu eta seme baten gurasoa naizelako, nire denbora jada ez delako nire denbora, nire ongitasun madarikatuarena baino. Eta horrek tristatu nau, oso. Eta berriz ere pentsatzen hasi naiz sarritan pentsatu ohi dudana; edo pentsatu baino, desiratzen; bai, desiratzen hasi naiz zaharra izatea, erretiroa, alde aurretiko erretiroa hartzeko garaira heltzea; eta hirurogei urterekin, esaterako, erretiroa hartzen dudala, eta laurogei urteak bete arteko denbora guztia kulturaz blaitzeko aukera dudala, soldataz gehiago arduratu gabe, soil-soilik irakurri, eta hizkuntza berriak ikasi (bereziki latina eta grekoa eta baita alemanera pixka bat ere), eta jarraipen osoa ematea artista naizen aldetik dagokidan bilakuntzari, eboluzioari. Bai, artistek segidako eboluzioaren beharra dute, bestela galdu, hondatu egiten dira. Eta ikustea gai zarela halako toki batera iristeko, eta jakin badakizula hartu-beharreko bidea zein den, baina ezin EZIN heldu bide horri jaten ematen dizunaz arduratu beharra daukazulako...! Eta gainera —pentsatzen duzu— hain hurbil nengoenean, argitaletxeak niri deika hasi zirenean, baina hala eta guztiz ere, ezin urrats hori eman, zeren... helburu hori lortzeko, Jesukristori jarraitu behar izango bainioke: «Uztazu dena eta jarraitu

niri; uztazu lana, familia, etxea... eta jarraitu niri». Hor dago akatsa. Ni ez naizela hain indartsua — ezta hain kristaua ere—. Eta gainera, Jesukristok berak ez dut uste hainbeste ere nahi zuenik. Bera kontent egongo zen ziurraski, hori guztiori eduki baino lehen, hari jarraitzeko prest zeudenekin. Zeren hitz horien misterioa horixe baita. Nolatan esango zion Jesukristok gizon bati bere familia abandonatzeko? Baina familia bati kateatu gabe dagoen gizonari (ezkongabeari), bai, hari bereziki esaten zion berari jarraitzeko, ez engaiatzeko besteekin, zeren berak beste haien beharra zuen, gauza jakina baita ezkongabeen artean aurkitzen dela ezkonduetakoen artean aurkitzen ez den eskuzabaltasuna, libertatea (besteengana jotzeko), inozotasuna; hortik hasten baita inoiz amatatzen ez den maitasuna, zeren bestea berehala itzaltzen baita, eta ohitura edo obligazio bihurtu, izadiak halaxe agintzen du-eta. Beraz, horregatik diotsu, kabronazo, gaur ez dizudala ezer kontatu nahi. Triste nagoelako. Ni ez nintzen hain gizon indartsua eta azkenik uko egin nion nire askatasunari. Beraz, legezkoa da zorrak pagatzea, eta burua umiliatu. Mundua baita indartsuenena, dudarik ez: gizateria maitatzeko bihotzik handiena duten haietaz ari naiz, noski.

Hamazazpigarren atala. Non hitz egiten baita, labur, itzulpenaren teoriaz. Horretaz, hala ere, ezin dut sakon hitz egin, ia erabat ezezagun

zaidan teoria izanik —jo-jó—. Eta baten bat harrituko da zeharo, jakinik itzulpengintza dudala ogibide. Nik, ordea, horretaz ezer gutxi lotsatu. Eta azalduko dizut zergatik. Begira, kabronazo, itzulpenaren teoria itzulpenari buruzko alde filosofikoa da. Demagun heriotzari buruzko filosofia ez dudala ezagutzen (eta horrek esan nahiko luke filosofiaz ezer ez dakidala, heriotza baita filosofia ororen ezinbesteko abiapuntu eta oinarria). Baina ni berdin hiltzen naiz; hau da, heriotzaren gainean filosofatzeko gai izan ala ez, ni berdin-berdin hilko naiz. Bai, ezjakin hilko naiz, egia, baina egitea bat-bera da ezjakinarentzat eta jakintsuarentzat. Heriotzaren gaineko alderdi fisikoak, zientifikoak, medikoak gutxi bezala menderatzeak ezer gutxi lagunduko dio erudituari haren heriotzaren orduan. Bada horixe bera gertatzen da itzulpen teoriarekin ere: nik badakit itzultzen, baina ez dakit nire lana teorizatzen, ikuspegi filosofiko batetik azaltzen. Baina horrek ez dit eragozten nire lana ondo, uste dut, egitea. Eta edozein modutan ere, itzulpenaren teoriari buruz asko ikasia banintz ere, horrek ez ninduke trebeagoa egingo itzultzailea naizen aldetik, jakintsuagoa bai, baina itzultzaile hobea ez. Halako adibideak bizitzako edozein alorretan aplikatzekoak dira. Esaterako, nik ez nuke jakingo adierazten zer dela-eta egiten dudan igeri, edo hobeto esan, egintza horri buruzko azalpen tekniko, zientifikoak ematea latza izango litzateke niretzat, baina... ez naiz horrengatik itoko. Egon ziur.

Hamazortzigarren atala. Non hartzen baita mintzagai artistaren profesionalizazioa eta egoera honi dagozkion hainbat zertzelada. Eta zertzeladak aipatu ditudanez, has gaitezen horietako bat aireratuz. Artistaren sakralizazioa aipatzetik abiatuko naiz. Sakralizazioa, bai. Artista(ri) bakartu egiten baita (baitzaio) mundutik (mundua). Izerdi-usaina txarra da kreaziorako. Tripako zorriak oso gogoan dituen artistaren inspirazioa bide benetan arriskutsuan sartuko da konponbidea laster aurkitu izan ezik. Ez dut esan nahi ezinbestez aberatsa izan behar duzunik, zeren aberastasuna ez baita ekonomikoa izan behar, ez behintzat, nahitaez. Baina «oreka» aurkitzea, berriz, urrezko araua da edozein artistarentzat. Artistak jakin behar du kanpotik heltzen zaion zaratari bidea ixten. Ez ezkontzea, ez izatea famili loturarik izan ohi da biderik onena horrelako nahiak bete ahal izateko. Ez da, hala ere, panazea, egundoko irtenbidea alegia, zeren izadia, maltzurra izanik maltzurra den bezala, sorpresa bat baino gehiago gordetzen dio bere legeetatik ihes egin nahi duenari, horietako bat sexua bera delarik, falta denean erraza baita artistak horren atzean burua galtzea, eta mota guztietako erokeriak egin eta indarrak ahitu helburu hutsal (?) horren atzetik. Halaxe sortzen dira «On Juan» bezalako mitoak: artistaren izaera garbia dutenak baina zakileko minaren sendabidea asmatzen jakin izan ez dutenak, sendagai bakarra familia tradizionala da-eta, ziurtatzen duena (nola ez!)

asperdura, bidaiei agur egitea, eta goian ere esan dudanez, Parisen turista bihurtzea. Profesionalizazioari helduz gero, garbi esan behar da funtzionario-motako loturak txarrak direla; hasteko, artistaren askatasuna zapaltzen dutelako. Morrontza-loturak, gaur egun, kazetaritzari lotuta (eta barkatu erredundantzia) ikusten ditut gehienbat, gaurko kazetaritzak (dirua edota soldata antzekorik ematen duenak) botere-organoen azpian egoten delako, eta leku horietan sartu ahal izateko, hitzak neurtu behar direlako, eta pentsamendua nolabait «bideratu». Hor galtzen da idazlea, eta idazlea izatetik hitzontzia izatera igarotzen da. Halako hitzontziek teknikaren aldetik lortzen duten maila esan behar da nahiko ona izan daitekeela, baina arima deabruari saldu diotenez, ez dira gai sentimenduz ezer esateko, eta ondorioz, haien hitzak hitz hutsalak dira; zeren gauza on bakarra teknika menperatzetik datorrenean, emaitza soporiferoa izaten baita, lo egiteko erabiltzen diren musika klasikoko kontzertu arimagabeak bezala. Eta jakina denez —poeten eta pintoreen eta musikarien artean batez ere—, «bohemiak» halako xarma bat dakarkie artisten bizitzei, berez poesiaren muintzat har litekeena: artistak bizitzako poesia sentitu behar du lehenik gizona den aldetik, eta bigarrenik, artista den aldetik. Lehenengo deia entzuteko gai ez denak, gehienez jota, pop musikako letrak idazten amaituko du (berariaz, diru asko dagoela horren atzean; horregatik dira hain horteroak eta patetikoak musika-alor horretan aritzen direnak).

Hemeretzigarren atala. «Heriotza esperientzia ikaragarria XXI. mendeko zibilizazioaren aurrean». Sinposium baterako izen ponpoxoa, bistan denez. Gaur egun, hurrengo mendean jartzen dugu itxaropena (eta normala da, zeren joandako mendeetan ez dago, egon ere, itxaropena non jarri). «Bost axola besteen miseriak, badut nahikoa eta neurearekin». Zinismoa esaten zaio horri. Baina zinismoa erabiltzen duena «biktima» denean, barkatu egiten zaio. Louis Ferdinand Célinerekin halaxe gertatzen da. Torturatzen bazaituzte eta hala ere torturaren aldeko jarrera agertzen baduzu, badago «barkatu egiten zaituen zerbait», edo bestela, santutasun hutsa. Baina santuak ez dira zinikoak. Horregatik ez naiz guztiz santua, ezta guztiz zinikoa ere. Nire mediokritatearen erdian geratu naizelako. Holaxe da existentzia, latz samarra pobreekin, eta ez hain latza aberatsekin (hamaika ikusteko jaiok gara, ene Jesus!). Edozein modutan, okerrenak ankerrak dira. Gaurko juduak esaterako. Edo, nahi baduzue, gaurko juduen zati handi bat. Nik ez daukat ezer 2. Mundu-Gerran hildako milioika juduen aurka; alderantziz, horiekiko elkartasuna sentitzea ez zait bat ere kostatzen (txakurrik ordaindu behar ez dudanez, zeren kasu horretan ziur nago ez litzaidakeela iritsiko daukadan fortunarekin). Baina ez dut politiziaziorik egin nahi. Abstrakziara jotzea erabaki dut. Horretarako deitzen naiz-eta Gustabo.

Bai. Gustabo izena duzunean, abstrakziora jo baino beste biderik ez daukazu. Jarrera transzendentala da hori, heriotzaren gainetik oihu luzea bidaltzea bezala. Zeren Gustabo izena izatea pixka bat hilda egotea bezala baita, joandako denborari kateatuta, gorrotatzen duzun familia baten erdian jaio izan zaren seinale, eta hortik, noski, erraza da drogen sarean erortzea. Ui, begira: «erortze»ari «r»a kentzen badiogu, «erotze» geratzen zaigu. Hori ezin da kasualitatea izan. Zera esan nahi da: Gustabo izena izatea «erotzeko» modukoa dela; eta aldi beran, drogen amildegia hor dagoela. Uf. Zeren ez naiz sinplista horietakoa; ni, je-je, Gustabo baino ez naiz. Jo-jo-jori-jo-jó. Txiste penagarria, ezta? Ez, ez daukat abildaderik txisteak kontatzeko. Eta aldi berean ezin dut saihestu noizean behin halakoren bat botatzea (nik bakarrik barre egiteko sikiera...). Bide batez, bikoiztasuna gainditzeko aukera hortik lortzen dut, bakartasunari itzuri eginez. Baina itzul gaitezen geure hasierako gaira: heriotza XXI. mendean e.a. Horterada hutsa, igarri duzuenez. Heriotza guztiak berdinak baitira garai guztietan, ezta? Según-eta nola begiratzen zaion. Existentziaren aurrean garai bakoitzak bere begirada propioa gorde badu, pentsatzekoa da heriotzaren aurrean ere beste horrenbeste egin duela. Egia da iraganetik zubi moduko bat iristen zaigula, gaurko egunotako heriotzarekin zuzenezuzenean erlazionaturik dagoen zubi bat, baina ez naiz gai sentitzen zubi horren azterketa egiteko, sumatzen baitut lan eskerga horretarako kultura, informazioa alegia, falta zaidala. Ni, badakizue, ez

naiz eruditua. Itzultzailea, bai, ordea. Eta hortik datorkit denetik jakiteko grina, sakontasun gutxiko putzuetan murgiltzeko joera, eta oinarri zientifiko handirik gabeko baieztapenak emateko irrika. Ezer ez. Nire berritsukeriaren gatibua naiz, zeren bizio asko ditut, eta batzuk oso itsusiak gainera. Baina ez pentsa zuen aurrean biluzteko prest nagoenik. Egia da letretako putatxoa naizela (itzultzaile tekniko naizenez), baina nitaz zerbait jakin nahi duenak ordaindu egin beharko du. Eta eskatzen dudan prezioa ez da diruz berdintzen, dirua berez lar merkea izanik. Esfera altuagoetan jarrita daukat begirada. Eta puntu horretan galdu egiten naiz, ni eta nire sexukoak, plazerra maite baitut nire bizitza baino gehiago, eta ez nuke jakingo zer egin plazer hori gabe. Heriotza heldu zaidala pentsatuko nuke, edota heriotza jasotzeko momentua. Eta une hori heltzen denean, espero dut ordurako edukitzea oraindik gizontasun pixka bat, nire semeari erakusteko nola hiltzen diren gizonak. Apaltasunez, ene maiteok. Apaltasunez.

Hogeigarren atala. Jatorrira itzuli edo galdutako paradisua berreskuratzea. Hori da gaia. Eta ez zait damu, nahiko zaila izan arren. Jatorrira itzultzea niretzat ama-hizkuntzari uko egin eta bigarren hizkuntza ama-hizkuntzatzat hartzea da, baina inguru kultural baten barruan. Esaterako, Donostian bizi izanda, ama-hizkuntza japonieraren bitartez ordezkatzea erridikuloa irudituko

litzaidake, edo esan berri dudanez, kultura-
ingurutik kanpo geratzea. Horregatik iruditzen
zaizkit barregarri samarrak ingelesez edo frantsesez
edo alemaneraz edo errusieraz gogor —eta ez hain
gogor— ikasteari ekiten diotenak, Euskal Herrian
bizi izanda euskaraz puta ideiarik izan gabe. Eta
hizkuntza-ikasle horien %95en patua badakigu
denok zein izaten den: porrota, denbora alferrik
galdu izanaren sentsazioa. Zeren hizkuntza horien
inguru kulturala faltatzean, zeinu eta soinu eta hitz
arrotz-multzo baten aurrean geratzen baitira
gehien-gehientsuenak. Eta horra nola botatzen
duten komunetik urteetako lana eta sosak (ingeles
akademiak garestitxoak dira, lagun). Baina hor ere
badago halako konnotazio politiko bat, urruna
baina latentea, eta horri itzuri egiten diot modu
asko kontzienteaz, abstrakziorantz abiatzen ez den
asmoak pentsamendua eragotziko bailidan. Eta, une
honetan, batez ere hori egin nahi dut: pentsatu,
pentsatu eta pentsatu. Eta euskaraz egin, zeren
badut pentsatu gabe luzaro egon naizen sentsazioa,
eta bat-batean pentsatzeko beharra, premia piztu
zait barru-barruan, nire burua berraurkitzen egongo
banintz bezala (beti aurrean baina orain arte
erreparatu gabeko paisaia bailitzan). Eta hori beti
da gauza ederra, eta txundigarria. Guk, ordea,,
hizkuntzen bidez jatorrira edo paradisura itzultzeaz
hitz egin nahi dugu, gaizki gogoratzen ez banaiz.
Eta horixe egingo dugu hemendik aurrera. Zer
zegoen *hiz-kuntzak* baino lehen? Ezer ez. Gehienez
jota, *anima-liak*. Basa animaliak (zeren abereak ere
hizkuntza agertzearen ondorio dira, hizkuntzaren

baten jabe ziren gizakiak agertu arte ez baitzen animaliak hezteko urratsa gauzatu). Ni, berriz, 1961. urtean jaioa naizenez, lasai asko esan dezaket familia hizkuntzadun batean jaioa naizela, eta beraz, naturak ezarritako zikloi jarraituz, nire familia horren hizkuntza poliki-poliki neureganatu nuen, erabat menperatu arte («menperatu» esan nahi dut halako zentzu «pagano» batean). Baina horra gauza benetan harrigarria egin nuela: jadanik osatuta neukan hizkuntzari uko egin nion, horren orde bestea hizkuntza bati heltzeko. Beno bada, nik horri deitzen diot jatorrira itzultzea edo paradisu galduaren bila jotzea (utopia hutsa). Hizkuntzarik ez zegoen garaira itzultzea baita nik egin nuena; misterio horretatik bereizten gaituen distantzia berriz korritzea (mendeetan, milurtekoetan atzera egin nahi izan banu bezala). Eta hasieratik bertatik hasi nintzen. Lehen hitzak ikasten. Lehen zorriak. Lehen oinarrizko eraketa linguistikoak. Arkakuso eta guzti. Eta ikasi nuen «kaixo, Xabier naiz» lehen aldiz esaten. Eta mihia usteldu zitzaidan. Eta neronen izen-abizenak hasieratik bertatik idazten eta ahoskatzen ikasi behar izan nuen. Eta zakilean korapiloa egin zitzaidan. Eta sentitu nuen, sentitu dut, oraindik ere sentitzen dut, halako indefentsio bat, jaioberriaren parekoa, umearena, besteen laguntza behar duen haurarena. Eta poliki-poliki, ahuldade horretatik abiatu, indartu, sendotu eta giza-jatorritik edo paradisutik bereizten gaituen distantzia berriz egiten hasi nintzen. Lehenik nire denboratik hango denbora hartara; eta segituan, denbora hartatik nire denborara. Eta hanka

pixontzian sartuta neukanik ere ez nuen ikusten. Eta holaxe, bai, mende luzeetan nire barnetik ibiliz, denboraren bidaiari ausarta bihurtuta. Nire kakak pasaporte bihurtuta. Eta hor, hain zuzen, oinarritzen da nire jakituria (baldin-eta nonbait oinarritzen bada, zeren nik ez dut uste ez eta benetako jakituria denik). Kontua da nire perspektiba bikoitza eta aldi berean bakuna dela. Lukainkak legez. Izan ere, bi esperientziok eraman naute ondorio bakar batera. Eta aitortu behar dut pixka bat «arro(t)za» sentitzen naizela... nire amaren aurrean izan ezik. Santo Tomas eguneko taloaren barruan marmelada sartu izan balidate bezain arro(t)z. Horregatik, Euskal Herriko itzultzailearen bati legez eta ohorez badagokio Albert Camusen «Arro(t)za» euskaraz jartzea, zalantzarik gabe ni naiz bila ari zareten predestinatua. Baina gure argitaratzaileetarik asko oso arduratuta dabilta Durangoko salmentak prestatzen, eta gu ez gara ezer, ezta gure kolegen artean ere, horietako asko ere txit arduratuta dabiltzalarik poltsikoak betetzen (lortu gabe, noski). Azken hau, egia esan, pozoia baino ez da. Nire frustraziotik darion garraztasuna. Tira, nik ez nieke garrantzi handirik emango legez kanpoko ateraldi hauei, frustrazio horretatik edaten baitu zinezko artistak eta garraztasun horretaz blaitzen, funtsean, bere burua, nonbaitera iritsiko bada. «Benetan esaten dizuet ez dudala neure burua ezagutzen».

Hogeita batgarren atala. «Auskalo — pentsatu zuen— honek, lagundu baino, ez ote nauen zuloan sakonago lurperatuko». Eleberriko pertsonaia-elkarrizketa piura duen esaldi hori gogoeta misteriotsuaren mailara igo nahi nuke, pentsamenduaren bideak zeinen ugariak diren baliaturik. Badago barne-ahots bat konfrontazio guztien artetik gailentzen dena eta jainko-egia bailitzan halako arrasto bat uzten duena sortzen denetik (burmuinetan) itzaltzen den arte (bularrean). Jakina, bularrera iristen dena ez da jada letra ukiezinez osaturiko esaldia, edota hitzen bidez gorpuztu den ideia; baizik horrek eragindako sentimendua —benetako iparrorratza—, ideiaurre neurria eta tamaina zein den esaten digulako — gidatzen gaitu alegia—, ideien zeru goibela zeharkatzen duten ideia guztien artean onena aukeratzea ez baita erraza, eta horretarako, gainera, guztiz ezinbestekoa zaigu ideiek utzitako sentimenduari «entzutea». Goi mailako literaturan ere halako esaldiak dira goi mailako irakurleek gehien maite dituztenak, beraiengan uzten duten sentimendu horretxegatik, irakurle batetik bestera pasatzen denagatik, gizabanakotasunaren mugak hautsi eta ezinezko armiarma kontagaitzak bezalakoak sortzen dituenagatik (hala idazlearen eta irakurleen artean nola irakurleen beraien artean ere). Horra batasuna ugaritasun bihurtuta; «ni» «gu» naiz eta «gu» «bera» gara. Horrek espazio itxiaren lege guztiak hausten ditu, ezta? Izan ere, espazioa sarea eskergea baino ez da, itzela baina itxia; teoriarik posible izanik amaierara (itxitura

dagoen tokira) iristea, nahiz praktikan erabat ezinezkoa izan (tamaina unibertsala ezin baita inoiz korritu, arrazoi horregatixe: unibertsala delako). Beraz, espazio itxia izan arren, hain da handia, ezen, amaigabea izatearen ondorio berberak dituen. Jolas hutsa da dena. Baina gauza bat frogatzen du: euskaraz edozer pentsa daitekeela. Prestakuntza ona baino ez dela behar; esaterako, Filosofia Fakultatetik igarotzea, eta denbora ondo aprobetxatzea, eta ikasketa ofizialak amaitutakoan «beste ikasketak» hasi, nork bere ikasketak alegia, horren falta handia baitago euskal ikasleen artean, oso arduratuta politikaz eta gutxi arduratuta kulturaz, zentzu orokor eta zentzu zehatzean esanda. Ez dakit lehenago esan dudan, baina askatasuna errealitatean oinarritutako ekintzetan bilatzea, arrunkeria iruditzen zait. Askatasuna nork berak aurkitu beharra dauka, taldetik berezita, «herri» kontzeptuaren eta norberaren artean halako distantzia bat jarrita. Bere kultura pertsonala aurreratzen duen gizabakoak bere herri osoaren kultura aurreratzen du aldi berean, denak partehartzaile bilakatzen dituelarik. Eta orduan, bai, «herri» hitzaren kontzeptua, edo dena delakoa, bere esangurarik distiratsuenean azaltzen zaigu. Gizabanakoak lehen; herriak gero. Baina berriz iruditzen zait abstraitzeko gaitasuna galtzen ari naizela, eta une honetan inolaz ere galdu nahi ez nukeena hori denez, isildu eta gaiz aldatzea baino beste aukerarik ez daukat. Hala biz, anai-arrebok, hala biz.

Hogeita bigarren atala. Non ematen diren zenbait aholku itzulpenari buruz. Argitu beharra dago aholku horiek ez zaizkiela zuzentzen itzultzaile esperimentatuei, ezta profesionaltasunez langintza horretan aritzen direnei ere. Gauza jakina da Euskal Herrian hiru hizkuntzarekin batera bizi garela, eta horietako bi hizkuntza (gaztelania eta frantsesa) oso garatuta eta euskaldunen eguneroko bizitzan oso errotuta eta nahasita daudenez, euskararen erabiltzailerik xumeenak ere egoten dira itzulpenak egin beharrean, askotan konturatu ere egin gabe egiten dituztelarik; eta konturatzen direnean, halako beldur batez, beren buruan konfiantza faltako balitzaie bezala, edota are okerragoa, euskara bi erdara horien morroi ibiliko balitz bezala. Agian, ondoko lerroetan dauden aholkuak baliagarriak izango zaizkio edonori. Baina gera bedi argi eta garbi ez dela nire asmoa jakintsuarena egitea, baizik-eta, nik topatu ditudan zailtasunak gainditu ahal izateko, baliagarriak gertatu zaizkidan zenbait baliabide eta gogoeta eskaintzea:.....

.....

Ez. Hau ez da tokirik egokiena horri buruz hitz egiteko. Nire buruari iruzur egiteko zorian egon naiz.

Hogeita hirugarren atala. Non hitzematzen baita egilea ez dela berriz horrelako errazkerietan eroriko, eta aurrerantzean irakasle-kontuak utziko dituela irakasleen esku, zeren egia esan, zorionez (haren ustez) bera ez da irakaslea, eta izateko asmo putarik ere ez (ez zuelako karrera bukatu, noski). Izorra dadila. Munduan denetik egon behar du-eta, baita tontoak ere. Lapikoak alegia. Mundua lapiko itzela delako. Eta bertan egosten dira giza-errezeta guztiak, zapore txar samarra edukitzen dutenak, gaiztakeria arras zabalduta dagoelako, gure artean, eta batez ere gure barruan (gizabanakoon barruan), non hasten baita gaiztotasuna, zeina gaiztakeriaren gainetik dagoen, hain gaiztoa izanik koalitate (tasun) izaera hartzera iritsi dena. Baina utz dezagun bide hori hildakoentzat eta hitz egin dezagun benetan probetxugarriak diren gauzei buruz. Esaterako... Tira, ez zait ezer okurritzen, probetxuzko ezer ez alegia. Kezkagarria. Areago pentsalari batentzat. Pentsa dezagun bada. Horretarako jaioa naiz-eta. Zer da pentsatzea? Argudiatzea. Arrazoiak aurkitzea. Ezerezari (gure jatorri eta patuari) logikaren bat bilatzea. Ez erotzeko bederen (eta hori ez da gutxi). Gure inguruan mundua erotzen baitzaigu minutuero, beroaren eraginez puskatu egiten den iceberg erraldoiaren gisa. Eta besterik egin ezin dugunez, pentsatzeari ekiten diogu, arrazoiak bilatzeari. Harri bati otoitz egitea bezain alferrikakoa. Harri bat musukatu eta gorputz atal bakoitzarekin amodioa egitea errazagoa litzateke, beste hura baino. Eta pentsamenduaz ezereza laztandu, gure

tipitasunari laguntzarren, bihotz ematearren. Hankak moztu dizkigutela ospitale batean esnatzean, ezer ez zaigula falta egiaztatzea da lehenik, geu izaten jarraitzen dugula alegia, bizirik egotea desesperazio itzela dela konturatuta, sufrimendu horretan gure izate miserablea azkenik gainditu ahal izango dugulakoan, eta gure jendeari «agur!» oihukatu, gure fikziozko denboran sortzen den ekaitza eta itsaso berde-ilunean zehar haurtzarorantz abiatu, gure heriotza oharkabean besarkatzen, negar egiteko astirik ere izan gabe, gutaz, geure heriotzaz, besteenaz, geure buruari galdetuz zeinen den latzena, gure egoismoa ala gure heroikotasuna. Eta orduan, burua jaitsi eta beti gorrotatu zizun (auskalo zergatik) auzoko haren aurrean aitortzea garaitu zaituela, baina ez dizula bat ere inporta... Tira, kabronazo, ez zaitez tristatu. Besteren bat hiltzeko aukera izango duzu oraindik. Horrek pizten dizu animua, ezta? Odola, odola... Nola deitzen gaituen odolak, harakinak izateko jaiok gaituk...

Hogeita laugarren atala. Non pentsamendua aitzakiatzat harturik, eguneroko transzendentzia purtzila zeharkatu eta globo puztua bezalakoa den gure benetako izatearekin geratzen garen, filosofian doktore-titulua non arraio galdu genuen ezin ulerturik, bizitza ziztrin samarra dela ohartuta (lehenago ere uste dut esan dizuedala gauza bera; baina berdin dio —gauza garrantzitsuak behin eta

berriz gogoratu behar dira-eta; bestela, behin eta berriz ahazten zaizkigu—). Bi zenbakiren artean dagoen hutsunea, esaterako, ez dakit berez zer-nolako emaitza ematen duen: zentesimak, dezi(a)mal/i/ak (dezimal animaliak = animales decimales) edo, akaso, etxeko atea eta leiho batera irekitzean lortzen dena: haize-korrontea, ezer ez den eta aldi berean zerbait (garrantzitsu gainera!) dena. Tontoagoa banintz, hortik hasiko nintzateke tratatzen hau prestatzen, mahukatik atera izan banu bezala (hortik ateratzen baitira mundu honetako misteriorik tubularrenak), adimena falta denean (eta nik ez dut soberan) hitzontzikeria nagusitzen baita. Hala ere, gai nintzateke... Beno, ez, ez. Ahaztu. Ni ez nintzateke ezertarako gai izango. Transzendentala baino ez dut izan nahi, esnobismo hutsez, beste ezertaz baino. Egia esan, ondo ere ez dakit transzendentzia zehatz-mehatz zer den. Jitez zeozer datorkit endelegamendura, baina kultur espezifikotasunaren birrinketatik pasatu gabe. Sagardoa laranjekin egitea bezala, hi. Baina zuri ez zaizu inporta, ezta, kabronazo? Zu hor oso gustura zaude «Kara al Eguzki» kantatzen, zure labana odol berrirako zorrozten. Zuk ere bide bat aurkitu duzulako zeure transzendentziari bidea emateko. Denok lortzen dugu hori, lehenago edo beranduago. Diferentzia da nola lortzen dugun: geure bizkar edo besteen bizkar. Zapaltzea gauza kitzikagarria baita. Eta ez dut horrekin esan nahi kitzikagarria den gutzia egiten saiatu behar dugunik. Baina, edozein modutan, lehenago ere esana dut ez naizelako irakaslea, karrerak bukatugabe (ia hasi gabe)

dauzkadalako eta kulturari buruz pentsatze hutsak gaixo jartzen nauelako. Bizitzari aspalditik eskatzen diot zerbait, keinu bat, diru pixka bat poltsikoan esaterako (hortik hasten baitira zorionmota guztiak), eta aldi berean, atzera joatea (aurreratu ahal izateko), baina kontu handiz, hori bai, ez behaztopatzearren bideko zabor-poltsa bakoitzaren aurrean irekitzen den infortunioarekin, non pilatzen baita nire infamia, nire zerbait izateko nahia, frustraziorik gabe, zeren frustrazioak ahulenzako dira, eta ni zizarea bezain indartsua naiz. Kaka jatea gustatzen zaidala esan nahi dut. Eta batzuetan iruditzen zait horixe izan dela nire bizitzako plazerrik gozoena, ia bakarra. Eta horrek animatzen nau txit interesgarria iruditzen zaidan beste gai bat aipatzera: elikadura bakarraz elikatzen diren animaliena, hain zuzen. Oso gai polita dena eta hain berandu izango ez balitz hizpide emango ligukeena horretaz luze eta zabal hitz egiteko, baina emaztea dut lantokian ni eta nire Yamaha noiz azalduko zain eta zertzelada hobego baterako utzi beharrean daukat zoritxarreko gai hau. Hala ere, ez naiz inora joaten, ikusten duzueenez beti itzultzen naizelako. Bai, gu, euliok, beti itzultzen gara, gu, giza euliok. Ez dakit zer aurkitzen dugun kakan, baina erakarri egiten gaitu. Koloreagatik izango da. Edo euren biguntasunagatik. Titiak bezain bigunak. Batez ere, silikonazkoak. Inoiz ukitu al duzu silikonazko tititxoa? Nik ere ez. Bai, gezurra esan dizut, baina arrazoi literarioak tartean. Gezurra esateak ez du garrantzirik, baldin-eta arrazoi on batengatik egiten baduzu. Esaterako, zure senarra

engainatzen ari bazara, ez aitortu inoiz, zure kasa bizitzeko gai ez bazara (hori, esaterako, arrazoi ona da). Baina kontuz, gero! Esan dugu ez dugula zinikoak izan nahi, abstraktuak bai, baina zinikoak ez. Hala eta guztiz ere... zinismoa ez al da abstrakzio hutsa? Ez, noski, jarrera zinikoaren ondorioa baino ez da —zeinaren emaitzaz egintza ia materialak lor daitezkeen—. Has gaitezen hasieratik, beti bezala: zer da zinismoa? Filosofian nik uste holaxe eratzen dira pentsamendu desberdinen korronteak. Lehenik, galdera bat, eta gero beste bat, eta beste bat... Holaxe, infinituraino. Zenbat eta galdera eta erantzun gehiago, orduan eta handiagoa pentsamendukorronte horren konplexutasuna. Kuboak elkarren gainean jartzea bezala. Baina barrutik kuboak daude hutsik, eta orduan jartzen da agerian gure izaera hutsala (guri dagokiguna, bizitzako eremu guztietan, heriotzarenean izan ezik, nola jaiotzean hala hiltzean jainko bihurtzen baikara, une batez, behintzat, misterioa besarkatzen dugunean).

Hogeita bosgarren atala. Gauza bakoitzak nola daukan berari propio dagokion esparrua. Esaterako, itzulpen teknikoak egiteko jazza gomendatzen dut nik; baina literatura idazteko, musika klasikoa. Parekoak diren gauzek elkar erakartzen dutelako. Jazza, bere konplexutasun guztiarekin, itzulpen teknikoarekin konpara daitekeela uste dut. Eta musika klasikoa, bere

edertasun guztiarekin, literaturarekin. Biak dira, azken batean, sormen-lana, eta literatur kreaiziorako bata zein bestea onak dira. Kalitatea da egiatan balio duena. Aspaldi honetan, badirudi kalitatea eta kontsumismo hitzak nolabait lotuta agertzen direla. Berez ez dago gaizki; esan nahi dut, harakindegian erosten dugun oilaskoari (edo hura saldu digunari, hobeto esan) kalitatea eskatzea gauza arrazoizkoa iruditzen zaidala; baina, zer gertatzen da «kalitate eskatze» hori «oilasko» bezalako produktuetan bakar-bakarrik agertzen denean? Esan nahi dut, kutsaduraz (beste arrazoi batzuen artean) hiltzen ari den planeta batean bizi bagara, zer esan nahi du «oilaskoarengana» (harakinarengana, hobeto esan) kalitate-eske joatea? Kalera papertxo bat bota dugulako kristorenak entzun behar, eta jarraian gure ibaietan geratzen diren arrain eskasak kutsaduraz hil? Stop. Ez dut bide horretatik jarraitu nahi. Ez. Nahiago dut «Farorantz» hamalau aldiz irakurtzea bide horretatik jarraitu baino lehen. Ez. Ez dut ezer Lupus-en aurka (gezurra); baina hala ere iruditzen zait ezinezkoa dela literatur proiektu oso bat oinarritzea baliabide literaio batean. Literatur baliabideak horretarako daude-eta: paragrafo batean edota zenbait pasartetan aplikatzeko, hala egoki irizten badiozu; baina liburu oso bat literatur baliabide bihurtu? Ja, jai! Ulertzen dut, hala ere, honelako «esperimentazioak», «sinbolismoak», «aurrerapausoak» e.a. lehen aldiz erabiltzean, horiekiko berotasun handiagatik edo, neurria galdu eta «asmakizun berriok» behar ez den legez

erabiltzea. Baina denbora pasatzen denean, non gelditzen dira? Amets bat kontatu eta deskriba daiteke, eta horren sentsazioa helarazi. Baina ametsa ezin duzu lo bihurtu eta lauhun orritako tanke batean gauzak bere horretan utzi, zeren orduan irakurlea lotan geratzen zaizu... Nik, egia esan, liburu biziak behar ditut, «kafeina» bezalako efektua eragiten didatenak. Esaterako, «Laino». Bai, Unamuno jauna pentsalari eta idazle aparta izan zen. Hala ere, «laino» eleberria zenbait pasartetan «zaharkiturik» aurkitu dut, edota efektu batzuk «errazegiak» egin zaizkit. Edozein modutan, begiak orriei atxikita geratzen zitzaizkidan, eta nobelaren erritmoa sentitzeko ez nuen ezer egin behar. Joder! Orain kritikoarena egiten ari naiz! Tira, ez da hori. Ez naiz kritikoa zeren nire ustez literatur kritikariak ez dira idazleak izan behar, hala nola pintura-kritikariek ez dute pintoreak izan behar. Ondratasun-kontua da, profesionala izatea ala ez. Hortxe dago aldea. Kritikariak zerbait izatekotan, literaturan esaterako (eta ez nahitaez) literaturan edo filologian lizentziatua izan behar du; baina idazlea bada, orduan kritikarien jarreratik urrundu eta besteen liburuei buruz hitz egiteko idazlearen jarrera hartu behar du. Ez dut esaten ez dagokionik besteek idazten dituzten liburuez bere iritzia ematea, baina beti idazle baten ikuspuntutik. Horrenbestez amaitzen da gaurko atala. Bukatu baino lehen, ordea, esan nahi dizuet «Kristautasunaren Hilzoria» liburuaz maitemindurik egon nintzela garai batean. Eta hori bakarrik esaten dizuet Unamuno aipatu dudalako.

«Garai batean» diot, baina gaur egun ere baliteke berdin gertatzea. Ez dakit. Jakiteko, egunean hamabi ordu niretzako izan beharko nituzke, aspaldiko garaietan bezala, eta berriro hasi nire burua ikuspegi literario batetik ezagutzen. Edozelan ere, nire lagun hura oker zegoen: uste zuen artista-bizimodua eta artistaren lana bi gauza desberdin zirela. Eta zeharo tronpatu zen. Baina ni ere tronpatu nintzen. Eta zu, kabronazo. Ez didazu ezetz esango, ezta? Ba al dakizue zer erabaki dudan? Hobe dela nork bere liburuak idaztea, besteen liburuak itzultzea baino. Lan gutxiago eskatzen du lehenak; atseginagoa da; ez zaitu esklabo bihurtzen eta ez duzu, gainera, egile-eskubide askotan abusiboekin behin eta berriz borrokan ibili behar. Duela gutxi arte, egile-eskubideek hirurogei urte zirauten; ez dakit urte-kopurua igo duten aspaldiko partez... Aristokrazia berria. Laster, «derecho de pernada» ere emango zaie idazleei. Ja, ja. Kultur multinazionalen beste garaipen bat.

Hogeita sei garren atala. Non filosofatzen baita denborari buruz, eta «traktus filosofikum sakonis» hau zabalagoa izan dadin ahalegin berezia egingo da, hurbileko ideiak, kontzeptuak eta gauzak (batez ere, zirikatu egiten gaituztenak), aztertuz eta ahal den neurrian gutaz eta batez ere zutaz, kabronazo, barre eginez. «Denbora». Heriotza hor dago, eta gure eta heriotzaren artean

dagoenari, hau da, heriotzatik bereizten gaituen «sentsazioari» denbora deitzen diogu. Tira, badakizue denok erreferentziak behar ditugula. Esaterako, zerbait «urrun» edo «hurbil» dagoela esaten dugunean, erreferentziaren batez baliatzen gara, kontzienteki ala ez. Baina zerekin geratzen gara erreferentziak kentzen baditugu? Ez luke zentzurik izango gauza bat «hurbil» edo «urrun» dagoela esatea, eta egia esan, ez legoke ez hurbil ez urrun. Egongo litzateke, besterik gabe. Espazio hutsa, edota heriotzaren kasuan, sentsazio hutsa. Zein sentsazio-mota? Ba hiltzen garen sentsazioa. Eta zer da «hiltzen garen sentsazio» hori? Ziurtasuna. Bai, zerbaitekiko ziurtasuna; adibidez, orain dugun zerbait galtzen dugula (bizia, Pinotxoren hitzekin esanda), gutaz dugun sentsazioa galdu, edo behintzat, beste zerbait bilakatzen zaigula. Baina bilakatu zertan? A, hori beste kontu bat da. Filma nola bukatzen den, ordea, ez zaio inori esaten. Gu filma egiten ari gara. Geure filmeko protagonistak gara, eta zuzendariak baino ez daki nola bukatzen den hau... Ez, zehaztasuna falta da. Bukatu, nola bukatzen den badakigu, heriotza fisikoa eta abar. Baina gure filmaren garapena, gorabeherak, ezustekoak e.a. erabat ezezagunak dira. Edozein idazleren ametsa: hartu idazluma, zabaldu orria eta idazteko agindu. Hortxe hasten da idazluma bere kasa idazten, esku eta asmo ikusezin batek gidatuta. Baina nork agintzen dio idazlumari? Nik? Ni orduan jainkoa naiz? Baina ni ere hiltzen naiz. Beraz, jainkoa ere hiltzen da? Eta hala bada, nola salbatuko gaitu, orduan?

Bera ere hiltzen bada nola salbatuko gaitu heriotzatik? Jesukristo hil egin zen. Jesukristo idazluma bezalakoa zen, haren Aitarentzat idatzi zuena, haren Aitak —Jainkoak— aginduta. Baina, Jainkoa ahalguztiduna bada, zergatik obsesionatzen da heriotzarekin? Ez dut ezer ulertzen. Zer egiten ari gara hemen? Zer indar misterioitsuk sortu gintuen, sortu zuen unibertso infinitua? Baina benetan ote gara? Harri bat, bidearen erdian ikusten dugun harri hori, benetan al da harria? benetan da ezer? Ukitu eta materia ukitzen dut. Baina benetan ez al naiz materia hori zeharkatzen ari? Nola ikusiko zen kontaktu hori (nire eskua harria ukitzean) mikroskopio hiper indartsua erabiliko bagenu? Eta X izpien bidez?) Eta zertan geratzen zaigu gorputza, izpi infragorrien bidez ikusten badugu, geure hezurdura dantzan ikusten dugunean alegia? Sorginak dantzan ari dira San Joanetako sutean; deabruari eskatzen diote zoritxarra munduan zabal dezan (jainko-deabruen mundutik bereizten gaituena halaxe urratzen baita, gure gorputzak urratuko diren bezala gure autopsiaren egunean). Beharbada, kabronazo, horregatik hiltzen duzu, ezta? Ezin duzulako soportatu jakitea zure barruan azienda oso bat daramazula. Eta nola ezin duzun (ez daukazun barrabilik) labana zure gibelean sartzeko, iltzatzeko, besteen gibelak, bihotzak aukeratzen dituzu, ikusteko nola hiltzen diren besteak. Bai, hori ikuskizun danteskoa! Besteen heriotza ikustea. Luxua! Erromatarren garaietatik ikuskizun dena. Txartela atera beharrean, txartela zeuk banatzen duzu. Eta

lehengo besaulkian esertzen zara, besteen heriotza hurbiletik ikusteko, gozatzeko, liluratzeko. Gure heriotzaren ikusleak ezin garenez (protagonistak soil-soilik), ez dago beste erremediorik besteak hiltzea baino, nola hiltzen diren ikusteko, egiaztatzeko egia dela, ez digutela ziririk sartu, hiru mila milioi eta seiehun herritarretatik bakar bat ere ez dela hilezina, baina badaezpada ere hura bilatu behar, hiltzeko (noski), gu denok hiltzen bagara zer dela-eta bizirik utzi bakar bat? Hori botere handiegia litzateke pertsona bakarrarentzako. Beraz, gizon/emakume hilezina aurkitu beharra dago, ziur existitzen denik ez badakigu ere, baina edozein modutan, hura aurkitzeko (eta aurkitzekotan) denak hiltzea baino beste biderik ez dagoelarik. Eta aukeran, heriotzarik ankerrenak aukeratu; hori zuretzat luxu handia bada ere, ezta, kabronazo? Zeren poliki-poliki, presarik gabe, errefinamendu handiz hiltzeko, horretarako Estatuak baino ez du eskubidea. Eta zu, Kabronazo, oso urrun zaude Estatua izatetik. Baina kontsola zaitetz, gizaki guztiok halako Estatu bat daramagu-eta barruan. Horregatik gara ustelak, ez zientziaren bideak zabaldu zigun sagarra jan genuelako, baina gizon bakoitza halako Estatu bat delako (estatu, eta ez estatua, kabronazo). Eta estatu guztiak indarrean oinarritzen direnez, gure idiosinkrasian bertan bilatu behar ditugu geure izaera gaiztoaren erroak, denboran eta espazioan sustraitzen direnak, hari amaigabeak bailiran, zeren dena baitago lotuta. Dena den, edertasuna da gure sortzaileari eskertzen diodan gauza bakarra. Esaterako, pinu baten

adarrak zeru azpian zabukatzen; eta paisaiarekin bat egiten duten egurrezko etxe polit horiek; eta naturaren edertasuna, batez ere naturarena, zeren gizakiona ez baitzait gehiegi interesatzen, jainkoaren isla eta oparia ere izan arren, zeren. Stop. Zer esaten ari naiz? Jainkoaren oparia? Baina, nik uste nuen atea nintzela. Jainkogabea alegia. Tira, ez dago aukerarik: edo jainkoan sinesten duzu, edo izadian sinesten duzu; hau da, izadia jainko bihurtuta. Indartsua da, behintzat (izadia). Eta heriotza ere barreiatzen du gure artean. Onartu behar da jainkoarekin ezaugarri asko eta asko erdibanatzen dituela. Isiltasuna eta indiferentzia, esaterako. Noski, esango du norbaitek «eta nork asmatu zuen izadia? nork sortu zituen zeru-goiak, mendiak, ibaiak...?». Bai, bai. Baina galde ere egin genezake: «eta nork sortu zuen jainkoa?». Ala jainkoak bere burua sortu zuen? Baina «sortu baldin bazen», horrek esan nahi luke lehen ez zela. Beraz, Jainkoak ere ezagutu du ezereza, heriotza alegia. Eta horregatik du gure beharra. Bai, Jainkoak (kristauen Jainkoak) behar gaitu existitzen ahal izateko, bere erresuma gure artean finkatu zuelako, eta batez ere, gure maitasunean, gure zintzotasunean oinarritu ere. Gure maitasuna, gure zintzotasuna Lurrean galtzen badira, orduan jainkoa suntsitu egiten dugu, suntsitu egiten da. Horregatik, Jainkoak egindako obretan ere heriotza present dago, hilezkortasuna alegia, bera ere hilezkorra izan daitekeelako (ez dut esaten Jainkoa hiltzen dela gu hiltzen garen moduan, urte-kopuru jakina pasata e.a., baina hiltzeko probabilitatea dagoela):

gu gabe Jainkoa ez baita ezer. Jainkoa hil egiten dugu geure zitalkeria lagun. Tira, 2000. urterako kristautasun berriaren oinarriak finkatzeko balio lezake honako honek. Eta hik, kabronazo horrek, zer iritzi daukak hik?

Hogeita zazpigarren atala. Non pentsatzen baita minari buruz eta horren ondorioei buruz. Mina, gorputza eta arima bitan banatzen duen kontrolatzailea. Zeinen ikuspegi desberdina gurea, osasuntsu gaudenean! Nola iruditzen zaigun betiko biziko garela, amaiezinak garela, hilezinak. Besteak baino ez dira hiltzen. Baina halako batean, goizaldeko lauretan, min sorgor batek esnatzen zaitu; hasieran, mina ez da oso gogorra, baina bai ordea kezkatzekoa. Jaiki, kamamila prestatu, ibilalditxo bat egin etxeko korridoretik... «Puzkerrak baino ez dira izango». Baina mina ez da joaten; bertan segitzen du. Eta gora eta gora doa. Bi ordu pasata, etxeko egongelako lurreen zaude, kizkurturik, umeen sentimendu berberaz negar egiten. Kito. Dena aldatu da. Gizon osasuntsuaren ikuspegiak jada ez dizu balio. Konturatu egiten zara zu halako bi zarella: bata zure gorputza eta bestea «zu» (zure ni-a, zure arima, zure izpiritua, zure burmuina...). Edozein modutan, ohartzen zara gorputza ontzia bezalakoa dela —«zu» biltzen zaituen ontzia—. Eta ontzi horren barruan harrapatutik zaude eta mina ezin duzu gehiago jasan eta negar egitea baino beste ezer ezin duzu

egin. Eta pentsatzen duzu, une horretan eskapatzea gustatuko litzaizukeela; zure gorputzetik eskapatu, alegia. Eta hobeto ulertzen dituzu halako sufrimendua egunetan, urtetan jasotzen duten pertsonak. Haien lekuan jarri eta ulertzen duzu minak hartaratuta oso erraza izan behar duela hiltzea, hilda egotea desiratzea. Heriotzari deitzea bezain erraza/zaila: atera nazazu oinazeztatzen nauen gorputz honetatik. Hemendik kanpo zer dagoen ez dakit, baina izanak izan, hau baino okerragoa ezin daiteke izan. Handik aurrera, gaixoaren ikuspegiaz begiratzen diozu munduari: lehen hain garrantzitsuak ziren gauzak bigarren maila batera baztertzen dituzu; zirtzilak ziren, garrantzigabeak. Minak transzedentziarako bidea zabaltzen digu, gure heriotzan pentsarazten digu, gure jatorria eta gure antzinako beldurak eta gure patu hauskorra jartzen dizkigu aurrean. Minak gure inmaterialtasuna bihurtzen digu materia: gure izpiritua «solidifikatu» egiten da une batez (minak iraun artean). Bihar goizean, hil ez bazara, sendagileak esango dizu: gastritis. Jódete, kabronazo.

Hogeita zortzigarren atala. Non aztertzen naizen. Baina horretarako erreferente batzuk bilatuta. Erreferente hitzaren ordeaz abiapuntu hitza ere erabil nezake. Hala ere, bigarren kasu horretan, «halako mugimendua» nabaritzen dut, hau da, nonbaitetik «abiatzea», «abian jartzea» bailitzan.

Nik, ordea, ez dut mugimendurik nahi, ezta hori gogora ekarriko didan ezer ere. Nire burua aztertzeke nahiago baitut unibertsoa «geldiaraztea», baldin-eta horrelakorik egitea posible bada. Zeren hor ere gertatzen da «ezereza» irudikatzean gertatzen zitzaiguna, hots, nahi eta ezin. Hala nola gizakiok zerbait garen, mamiz eta funtsaz, halaxe ere ukaturik daukagu ezereza asmatzea (kristauen Jainkoak berak ezin izango luke hori egin, ezerezean maitasun-arrastorik ez dagoenez —hala, bai...?—). Zer ote dago, bestela, maitasunetik eta gorrototik hurbilagorik eta urrunagorik ezereza baino, non sentimendu/grina guztiak desegiten diren?). Erreferenteak —jakina— heriotza eta denbora dira. Lehena etorkizunari lotuta; eta bigarrena, iraganari. Bai, heriotza etorkizuneko denbora da, beti aurrerantz proiektaturik. Gu aztertzeke, berriz, denbora erreferentetzat hartzen badugu, orduan iragandako urteetara itzuliko gara nahitaez. Badago gutaz mutagaitz irauten duen halako sentazio bat, denboraren iragatea zalantzan edo jartzen diguna. Funtsean, sentazio hori da garrantzitsuena geure burua espazioan kokatzeko. Beste sentazioa, mugimenduari lotzen dena (baina «denbora» kontzeptutik atera gabe) erabat gezurrezkoa da. Bidaiatzea bezain hutsala: itxi begiak; eta zortzi ordu barru, hegazkinak mila kilometrora utzi bazaitu ere, zuk hortxe jarraitzen duzu, zure gorputzaren barruan, zure burmuinetatik atera gabe, zure larruan, zure «arimaren» barruan. Denboran zehar bidaiatzeko makina, ikusten duzue,

aspalditik asmatuta zegoen. Makina da, gehienez jota, mugitzen dena; makina barruko progonistak, berriz, geldi dirau. Dena den, baliteke makinak ere geldirik irautea. Esaterako, gu eta gure gorputza geldi gaude abiadura osoan dabilen hegazkinaren edo trenaren barruan. Eta erreferenteak bilatu nahi izanez gero, «kanpoan», «paisajea» bilatu beharko ditugu. Adibidez, urruneko mendiak, urrunegi ez dagoen zuhaitza... Gurekin batera mugitzen dena erreferentetzat hartzea, hori zoroen gauza litzateke! Eta nahasmen hori gero eta handiagoa izango da, erreferente higikorra zenbat eta azkarrago mugitzen den. Azkenik, ohar zaitezte erreferenteak galdu egiten direla, batez ere daudenak (guri axola zaizkigunak) edota askoz motel edota azkarrago dabiltzanak. Edozein modutan, denbora badirudi erreferente higikorra dela; edo higikorra baino, mugikorra (zeren niri beldurra ematen baitit «higatu» zentzuarekin gerta litekeen nahasteak —denbora higatzeko ideia oso poetikoa, eta ondorioz, «polita» iruditu arren—). Baina mugitzen al da denbora, benetan? ala geu gara denboran mugitzen garenok? Heriotza, behintzat, helmuga den neurrian, elementu geldoa da, tinkoa. Ia-ia esan liteke «denboran finkatuta» dagoela (hondartzan iltzaturiko taketa bezala, marea bakoitzarekin gora eta behera mugitzen dela ematen duenean...). Hor garbi ikusten da denbora askoz transzendentetagoa dela, heriotza «zeharkatzen duelako», heriotzaz harantzago proiektatzen delako. Bai, guk nola edo hala sumatzen dugun heriotzaren ondoko

existentzia, denborari esker soil-soilik da posible. Hona hemen iragana (denbora) heriotza (etorkizun) bihurtuta. Eta bien bitartean, non nago ni? eta zelan dago, bidenabar, nire burua aztertzeko saioa? Hasteko, bi erreferente behar nituela esan dut eta badauzkat: heriotza eta denbora. Eta horiek gain-gainetik aztertzean, kokatzean, neronen burua aztertu eta kokatu dut. Ondorioztatzen denak, ordea, ez du inor zur eta lur utziko: hiltzen garela, heriotza benetakoa dela, eta denbora nolabait igarotzen dela. Honako ondorioa baino sinplekeria handiagorik! Baina, azken batean, horixe bera gertatzen zaie filosofoei ere: eurak ere hiltzen direla; eta bizi artean, guk bezalaxe heriotza «beregianatu» behar dutela. Beharbada, horretarako ezer idaztea merezi ote zuen jarriko didazu ezbaian zuk orain, kabronazo horrek. Baina beti bezala, oker zaude: entretenimendurik gabeko bizialdia horixe baita: heriotzara aldezturik iristea, eta heriotzaren aurreko denbora miserableki geldotasunean alferrikaltzea (hala balitz, beharbada ez genuke mugikortasuna sekula santan berreskuratuko, «animalia» bihurtuko ginatke alegia: tximino, uso, txakur, suge edo asto. Desastrearen ondoko arraza berriak).

Hogeita bederatzigarren atala. Non gogoetatzen den. Eta ataltxo honetan osasuna nahi dut mintzagai hartu, oso okerra baita hitz horri ematen diogun esanahia, benetan gaixoturik

gaudenean «osasuntsu» gaudela uste dugu-eta; eta alderantziz, zenbat eta osasuntsuago egon, orduan eta gaixoago gu. Azalduko dut zergatik: gaixoak — noizbait esan dudan bezala—, beste ikuspegi batetik begirutzen dio munduari. Ikuspegi hori gizatiarragoa da, bestea baino. Elkartasuna, sufrimendua, eskuzabaltasuna... giza-izaeraren alde «ahul» dira horiek, gaixotasunaren atetik sartuta. Baina behin suspertu eta gero, orduan gaixoaren koalitate horiek guztiak galdu egiten dira, eta ondorioz, berriro ere geurekoi, bekaizti, anker bilakatzen gara, hau da, giza-izaeraren alde «indartsua» inposatzen da. Labur esanda, gaixo dagoen gorputzak «izpiritua» suspertzen du; osasuntsu dagoen gorputzak, berriz, «izpiritua» gaixotzen du. Baina ez dut transzendenteegia izan nahi (nahita ere ezin izango nintzateke hori izan); eta ahal izango banintz ere, horrek zuri behintzat ez lizuke ezertarako balio izango. Horregatik asmatu zaitut, kabronazo, ondorio hori baliogabetzeko. Transendentzia da gainditzen gaituena, euskal «zer» garrantzitsua. Eta bururatzten zait «el ser» kontzeptua «zer» izenordainaz eman genezakeela, bi kasuetan edukiaren pertsonalizazioa ezin hobeto gauzatzen delako, itzulpenaren kadentzia eta mamiarekin batera. Gaixo egoteak beste alde on bat daukala otu zait: lelokeriak esateko astirik eza, gogorik eza alegia. Ikusten duzu! Gaixotzen garenean, jakintsuago bilakatzen gara. Agian, horretan datza jakituria: gaixotasun kronikoan.

Hogeita hamargarren atala. Non lepoa mozten diodan kaleko haizeari eta bide batez poesia errebindikatzen dudan, beti —itxuraz, behintzat— alferrontzi handia izan naizelako. Horrek ez du ezer esan nahi. Baina hortxe dago kontakizunaren benetako xarma. Gainera, beti aipatzen dugu abstrakzioaren kontu hori, eta poesia baino abstrakzio handiagorik... Filosofia, noski. Baina gauzak bereizi egin behar dira: gauza bat da pentsamenduaren abstrakzioa (filosofia) eta beste gauza bat da sentimenaren abstrakzioa (poesia) eta beste bat irudimenaren abstrakzioa (eleberria, esaterako), eta koloreena (pintura) eta zenbakiena (matematika) eta formena (eskultura) eta... Baina ez dut aipatu denetatik abstraktuena: musikarena. Eta abstraktuena delako, hain zuzen, iruditzen zait ederrena. Musika espazioan zehar bidaiatzea bezalakoa da. Toki batean eta aldi berean inon ez egotea. Sentsazioa ukitzea. Edertasuna, azken batean (heriotzaz ahazteko). Zeren gauza guztien gainetik heriotza dago, eta pentsamendu beldurgarri horri aurre egiteko baliatzen gara arteaz; ez da soilik distrakzioa, denbora-pasa; hori bainoagoa da: beharra, itxaropena (badakizue: asmatzeko gai garen guztia bada, gauzagarri den seinale). Heriotza tunela balitz bezala irudikatzen dute batzuek (hiltorian egondakoek batik bat). Heriotzari espazio biribil eta luzea ematen diote —bizitzatik bereizten gaituena—, halako lurralde fisikoa balitz bezala. Tankera horretako lekukotasunak beti interesgarriak dira, bene-benetan ezer frogatzen ez

badute ere. Baina fedeak ez du frogaren beharrik (hori aspaldiko kontua da). Eta inork ezer ziur esaterik ez duenez, hobe da bakoitzari uztea gehien gustatzen zaiona sinesten. Niri, hala ere, pena latza ematen dit budistak ikustea gaur egungo egoeran: Txinako agintariek jezarrita txakurrak bailiran. Zer eskaini behar diote Txinako agintariek monje budistei? benetan uste al dute «egiaren» jabe direla? Lau militar kaskamotz baino ez dira, beren agintea krudelkerian oinarritu dutenak. Zeren, arrazoa falta denean, halakoek soberan dute indarra. Militar malapartatuak. Aberria aitzakiatzat hartuta mila deabrukeria egiteko prest daude beti. Kondekorazio baten truke, azken finean. Kobardeen (boteretsuen) txaloak belarrietan durunditzen entzuteko. Eta fede-kontua denez, zergatik ez sinestu halakoak egunen batean (hil eta gero, esaterako) suge edo txerri bihurtuko direla? Hori ez al da benetako infernua baino mila aldiz izugarriagoa? Esaterako, pertsona izandakoa suge bihurtzea baina... izandako gizakiaren kontzientzia kendu gabe. Tira, zertarako hasiko gara orain infernua benetan dagoen ala ez? edota hura kokatzeko ahalegin alferretan? Gainera, infernurik egongo balitz, auskalo gu denok hortxe amaituko ez ginatekeen. Bota zuk lehen harria, kabronazo...

Hogeita hamaikagarren atala. Non asperduran amiltzen naizen. Asperdura amildegia delako. Kolperik handiena hortxe topatzen dugu

gizaki gehienok: asperduraren amildegian. Ezin dugu saihestu, antza. Badakizue: e-ran-tzu-ki-zu-nak. Familia, seme-alabak, lanpostua, automobila, oporrak... Hori da asperdura: ongizatea; «zoriontasuna». Orduan, burmuinetan pantuflak jantzi eta erretiroa hartzeko falta zaizkigun urteak (egunak) kontatzen hasten gara. Horra gure gaztaroko iraultza: gazta irabiatua amaieran. Sabelkontua? Baliteke, bai. Baina nago batez ere adorekontua dela. Noraino zauden iristeko prest. Zer heriotza-mota nahi dugun: ohean goxo-goxo hil, erdi-lotan, gure oinordeko guztiak guri begira... edo auskalo non eta nola: hiri erraldoi bateko auzo zorritsuren batean; oihaneko krokodilo baten sabellean... Barka, azkena gehiegikeria da. Badaude beste aukera batzuk. Esaterako, mutilzahar intelektualarena (Ihesak jota —izaeraz oso santua ez bada, behintzat—). Eta ni ez nintzen. Horregatik ezkondu nintzen. Iragarri nuelako nire etorkizuna zein izango zen: Ihesaz jota amaitzea. Beraz, ezkondu egin nintzen. Neuk ere zorionaren bila jo nuen. Pantuflak jantzi nituen. Uko egin nien nire ametsei eta orain zuri idazten ari natzaizu horren guztiorren berri izan dezazun, kabronazo. Zuk Aitor Zabaleta hiltzeko eskubidea baldin baduzu nik orduan eskubidea dut zu nire hitzez lurperatzeko. Agian, hori ere bilatzen dut niretzako: hitzen azpian neure burua lurperatzea. Odolik gabeko suizidioa. Erosoa. Garbia. Isila. Paris jada ez da existitzen. Zeren Paris existitu ahal izateko, erotismoa berreskuratu beharko nuke (garai hartakoa eta gaur egungoa), eta ametsetan hura

abiarazi. Orduan, gauzen poesia berreskuratuko nuke. Begiradak berak gidatuko ninduke.

Hogeita hamabigarren atala. Non nire ahuldadeaz miresten naizen. Miretsi, bai, eta ez da gutxiagorako. Nire asmorik onenak airean desagertzen baitira. Ez dut borondaterik. Baina nork dauka? Zuk, esaterako, kabronazo...? Zeru azpian ez dago min ematen duen hedadura tipi bat baino (tipia bezain erraldoia: kontradikzio guztiak sentitzeko gai garenez). Gure unibertsaltasunaren ondorioa da hori. Gauza bera gertatzen zaigu begiak ixtean. Gure gorputzak ezartzen digun muga fisikoa sentitzeko gai garela; baina aldi berean, konturatzen gara hor barruan (gure barruan; begiak itxita zabaltzen zaigun espazio zabal horretan) unibertso mugagabea dagoela. Azken batean, zer da infinitua horren sentsazioa baino? Eta nori axola dio infinituak? eta unibertsoak? eta sentsazioak? Denok oso lanpetuta gabilta; dirua irabazi beharra daukagu behar ez ditugun hamaika gauza korrika eta presaka erosi ahal izateko. Gure eskrupulorik ezaren esklaboak gara. Eta zu, kabronazo, beste txakur-putza bat zara. Zaunka egitea baino ez zaizu falta. Guau, guau! Altxa ezkerreko hanka eta bota pixa. Markatu zure lurraldea. Jakin bezate gainerako giza-txakurrek hori zure lurraldea dela eta bertan sartzen denak zurekin borroka egin beharko duela. Borroka egiten dugu beti, edozertarako. Bestela, kontsumitu egingo ginatke.

Begira, nik ez zaitut engainatuko: ez naiz «masa-gizona». Esan nahi dut izugarri maite dudala nire indibidualtasuna, nire burujabetasuna. Pertsonak aldraka biltzen diren lekuetatik tximista baino azkarrago eskapatzen naiz. Ez dut gogoko izerdi-usaina; are gutxiago milaka pertsonena. Bide hori beti iruditu zait errazegia. «Tronpatuz gero, errua denona, ezta?» Nik neure hanka-sartze propioak izan nahi ditut. Zu ere barregarria zara, kabronazo. Eta gure gizartea eta bere masa-mugimendu guztiak. Patetikoak. Nahiago dut bakarka hil, aureskurik gabe. Altxatuko ditut hil da gero hankak zeruraino, eta aprobeztatuko dut ostiko bat edo beste emateko aurrean jarriko zaidanari, santua izan ala ez. Lurra kabroiz beteta dagoenez, zerua ere baliteke berdin-berdin egotea. Bestela, zer dela-eta iraun dute isilik hemen gertatzen ari ziren izugarrikeriak ikusita?

Hogeita hamahirugarren atala. Non aldarrikatzen dudan inoiz ez hiltzeko nire borondate tinkoa. Bai, oraintxe bertan erabaki dut: ez dut inoiz hil nahi. Eta liburu batean irakurri dudanez gauza guztiak direla borondate-kontua, ba hori. Begiak itxi eta kontzentratu egingo naiz, inoiz ez hiltzeko nire erabakia behar bezala gauzatu dadin. Zuei ere gomendatzen dizuet gauza bera egitea. Bestela, inbidiaz geratuko zarete hiltzen zaretenean ni bizirik jarraitzen dudala ikustean. Pentsa une batez norbaitek esan didala lauhun

urte pasa arte ez naizela hilko. Zer egingo nuke denbora horretan? Lan egin, noski, gosez ez hiltzeko, kotxe berria erosi, semeari ordenagailua eskuratu... Puaj! Itzul biezadate nire 70 urteko bizialdia! laguntza! Egia esan, askoz hobe izango litzateke jatekoak-eta «auto produzitu egingo dituen gorputz-atala» lehenbailehen asmatuko bagenu. Egia esan, sabelak lotzen gaitu. Hori da okerrena. Hori da zibilizazioari aurre egiten uzten ez diona. Sabela. Egunean hiruzpalau aldiz jaten eman beharra, eta horrek frustratzen dizkigu bizitzari buruz dauzkagun itxaropen guztiak. Hain zoriontsuak izan gintezke jan-beharrik izango ez bagenu! Bakoitzak benetan erabaki lezake bere bizitza nola iragan, zertara eskaini bere burua. Zorionsuenak artistak izango lirateke, alferrontziak alegia: idazleak, poetak, pintoreak, eskultoreak eta poliziak. Baina zer-nolako gorputz-atala asmatu beharko litzateke horretarako? Nire ustez, sabel automatikoa izango zen zentzuzkoena. Azalduko dizuet zergatik: jaten dugun guztia sabelaldera doa, eta hortik hasten da elikadura gorputz osoan zehar banatzeko prozesua. Elikagaiak kanpotik heltzen zaizkio sabelari, beraz. Beno, ba, sabel automatikoari esker sabelak berak produzitu ahal izango lituzke behar dituen proteina, bitamina eta gainerako «-eina» eta «-ina» guztiak. Makina bezalakoak izango litzateke. Makina konplexua, goi mailako zientzia eta teknikaren emaitza: elikagaien propietateak sortzen dituen «sabel magikoa». Sabel zaharra kendu eta berria jartzea besterik ez genuke egin beharko. Eta aurrerantzean, bizi izan jainko

paganoen antzera: kezkarik gabe, gosea berdintzea zer den jakin gabe. Egun osoan poetak irakurtzen, hizkuntzak ikasten, bidaiatzen, atsedean hartzen, lanbide berriak ikasten e.a. arituko ginatke. Paradisua. Agian hori jada Jainkoak asmatu du; eta hala balitz, autoelikatzen den sabela izango litzateke paradisuaren oinarria. Ai, hil arte itxaron behar, sabel horietako bat eskuratzeko!

Hogeita hamalagarren atala. Non geratzen naizen isilik, idazle-frustrazioak hartaratuta. Frustrazioa baita mundua ibilarazten duena, ostia txarraren jatorria horixe delako. Pixka bat pozoituta egon behar dugu denok, goiz guztietan ohetik jauzteko. Saihetsezurretan silikona sartu izan baligute bezala. Zeren mundu honetan kabroiak ez dira ez bat eta ez bi, milioika baizik. Denak. Frustratu-andana polita, bai horixe. Eta zu lehena, kabronazo. Uste duzu salbu zaudela, ezta? Hortxe, zure kartzelako gelan, isolatuta, Aitor Zabaletaren heriotza burutik ezin kenduta. Baina oker zabilta. Zu ere ez zara zutaz libratzen. Hori ezinezkoa da. Beharbada (seguraski) hilda ere ezin izango zara zutaz libratu. Galduta zaude betiko. Hala bizitza honetan nola bestean. Hobe zuretzat ezereza posible balitz. Baina ez dut uste. Eta larrutik ordaindu beharko duzu. Bai, kristoren gola sartu dizute, pepelerdo, eta ez dakizu ezta nondik sartu zaizun baloia, kara-de-kulo. Batzuetan, gure Planeta zabortegi handi bat ez ote den galdetzen

diot neure buruari. Eta bertan nazioak: Estatu Batuak, Frantzia, Ingalaterra, Espainia... Goi mailako zaborteziak (klaseak oraindik egon badaude-eta). Zeru-goietako kaka osoa (gutxi ez dena) gainean erori izan balitzaigu bezala. Eta gu hementxe, haizearen aurka txu egiten, haserreturik haizea gu bainoagoa delako. A, ze puzkarra mundu hau! Apustu egingo nuke Jainkoak puzkerra bota eta gu hortik sortu gintuela. Darigun kiratsak zer pentsaturik ematen du-eta. Egunak ordu asko ditu eta ezinezkoa da beti «alaitsu» egotea. Batzuetan, «kakaztuta» geratu behar, ultzerari bizipoz pixka bat emateko. Emagalduek gu baino alaiagoak direla...? Arrazoi onak izango dituzte, noski. Baina zergatik hasten naiz puten aurka? Gure gizarteko gizakirik ahulenetarikoak direlako, pijo. Ni ere koldar galanta. Boteretsuei bizkar ematen diet egongo ez balira bezala. Gizon ikusezina bihurtzen naiz horien aurrean, ea horrela lortzen dudan zoritxarra saihestea. Baina ez dut uste. Batzuek kaka erakartzen dute imanak burdina bezala. ADNan daramatela uste dut, edo barrabiletan. Auskalo. Jaiotzen gara garen bezala ala dena da prozesu baten emaitza? Txakurraren putza, esaterako, prozesu baten emaitza da edo holaxe izatera determinaturik dago? A priori eta posteriori azter ditzakegu arazo ontologiko hau. Baina ez dut nahi, probetxu handiagoko beste hainbat gauza egiteko dauzkadalako. Esaterako, egiaztatu nahi dut munduaren zabalera benetan zabala dela, eta horretarako bidaia bat egitea erabaki dut. Bidaia luzea, hiriz hiri, oihanez oihan. Arriskuz betea.

Abenturak, gau bateko emakumeak, marrazoak, hondartza bakartiak... Astigarragatik Donostiara noala esan nahi dut. Nire izpirituaren zabalpena hortxe hasi eta amaitzen baita. Itxuraz, behintzat. Zeren benetako bidaiariak badaki lekurik urrunetara iristen... etxetik atera gabe. Gainera, mundua berez ezin da nik ames dezakedana baino ederragoa izan. Hori horrela da. Horrela izango da beti. Giza-harremanak, esaterako, ondo daude, besapeen eta gainerako organoen usaina sudurrera heltzen zaizun arte. Orduan, desodorante on bat behar duzula konturatzen zara. Batzuk oso onak dira, gainera. Baina ordaindu behar. Ai, beti prezio bat ordaindu behar da. Gu sortu gintuen jainkoak asko zekien merkataritzaz, dudarik ez.

Hogeita hamabosgarren atala. Non jartzen naizen munduaren aurrean, zain. Hitzak noiz sortuko. Munduaren aurrean edo orri baten aurrean. Berdin dio. Gauza bera da. Batean zein bestean ez dago ezer, bete-beharreko espazio bat baizik. Eta askatasuna. Bietan. Hori gabe, ez bailuke merezi izango ezta ekitea ere. Asperra. Melankoliak diote batzuek. Poetak batik-bat. Melankoliarik gabe ez omen dago mundua ibilaraztea. Nik, ordea, nahiago dut bortxa, melankolia baino. Bortxa baina barne-bortxa, ez besteen aurka zuzenduriko bortxa. Nire tripei atximurkada ematen dion bortxa baizik. Sentitzeko. Nire burua sentitzeko. Besteak. Gauzak. Mundua. Kabroi piloa, berariaz, munduan.

Eternitatea bezain amaigabeak. Eta denak borrokatzen, kausa on baten alde (nola ez ba!). Nik kausarik gabeko borrokalariengan kausitzen dut halako xarma bat. Galtzaile porrokatuengan batez ere. Zoriona eskura izan baina beti bizkar ematen dioten horietakoak, ez jakiteagatik beren porrota gabe bizitzen, apur bat masokak, martiriak, sadikoak bailiran... Ilargi egunetan sexuaren deia indartsu sumatzen dutenak. Puti-klub batean beren burua galtzen duten horiek, gartzetan, emakume zintzo bat aurkitzeko erabat ezgauza izanik. Erromantizismorik gabeak, esperpento hutsak. «Lirioak» pol-el-kulo sal ditzalkezu zeulk ere, kablonazo holek. Nire burua zentzatu behar dut, zerbait gertatu baino lehen (Willy Lomanek esaten zuen bezala). Gizonak bere burua zentzatzeak esan nahi du marrazoen alde basatia baztertu eta marrazo-zopak jaten hastea. Hortzak garbitzeko oreka amai daitekeen ideiaurrean erabat akonjatuta egotea. Lau edo sei tutu gutxienez edukitzea etxean beti, badaezpada ere. Edo liburu bat argitara ematea beste baten idazkerarekin baina zure izenean. Niri, behintzat, ez zait inoiz horrelakorik gertatu. Zoritxarrez eta zorionez. Zeren bakoitzak bere «idiotankrasia» du-eta. Eta beste batzuek, ezta hori ere. Nik askatasun osoa lortu dut nahi dudana esateko. Ipurtzulotik sartzen ditut irizpide komertzialak. Eta ez dut nire tonto-aurpegia saldu behar liburu zorritsu bat edo beste saltzeko. Zeren «idazle» batzuek, komunikabide ofizialetan lan eginik ere, «outsider-tzat» jotzen baitituzte beren buruak. Tira, ilusioa egiten badie...

Adimena nahasita daukan gizarajo maitagarri bat ezagutzen dut, bere kalean txakurrek egiten dituzten putzak kontatzea asko maite duena, eta bere burua «azterkaritzat» jotzen duena. «Babo arraio!» pentsatuko du norbaitek. Baina niri bost. Ez nago behintzat zorretan inorekin. Ezerezarekin izan ezik (Jainkoarekin akaso). Zure bizitzaren desamortizazioa da benetan kezkatzen nauena, hots, gero eta gutxiago balio izatea. Geuk ere halako burtsa bat daramagu-eta geure barruan. Sentimenduen burtsa, balioena, gaitasunena. Zeren ahalmen horretan baitago gakoa, ezta? Gizakiak depreziatu egiten dira beren maila sozialaren arabera. Eta orduan, den-denak balio du. Tranpa egitea zilegi da, baldin-eta harrapatzen ez bazaituzte, baldin-eta arrakasta baduzu. Gauzak hala dira, ziztrin samarrak. Baina nik ez dut mundu hau asmatu. Galdetu jainkoari, ezerezari, zure amari. Ni bidez nago hemen, zu bezala. Eta belilo esanglo dizut: lilioak por-el-kulo sal ditzakezula, alelia. Bizkarroi baten modura bizitzea egokitu bazait, zer egingo diot ba! Artista naiz. Maite dut isiltasuna, eta bakardadea; eta inkomunikazioa halabeharrez inguratzen zait. Baina pozik bizi naiz. Hala izan da beti, niretzat. Eta gustatu egiten zait. Bai, nire kakaz maiteminduta nago (denak bezala). Jan al duzu inoiz kaka? Tira, ezin dizut sinetsi. Denok jan behar izan dugu bizitza honetan kaka gutxi ala asko. Hori ere gure patuaren zati da. Ez dago saihesterik. Kabroitzarrak saihesterik ez dagoen bezala. Horiek ere perretxikoak bezain ugariak dira-eta (ze onak diren perretxikoak, ezta?).

Perretxikoei buruzko trataktus filosofikum sakonis bat idatzi beharko nuke. Baina zu nire bezeroa zara eta ez zaitut aspertu nahi. Azken batean, ordaindu egin duzu txartela, ezta? Begira, gustatzen ez bazaizu, kontsumitzaileen bulegora jo dezakezu. A, eta ez ahaztu erreklamazio-orriak zure esku dituzula. Hiru kopia dira. Bata (arrosa) zuretzat, bigarrena (berdea) Eusko Jaurlaritzako Kontsumo-Sailarentzat eta hirugarrena (zuria) zuretzat. Edota zure ama ***rentzat, pixa egin eta gero aluko hiletxo bustiak lehor ditzan. Tira, tximeleto, ez haserretu nirekin. Ultzera daukat-eta. Horregatik esaten ditut halako tontakeriak. Mala-letxe guztia ateratzeko; bestela, urdailean pilatzen zait eta hori da txarra. Baja hartu beharko nuke horrelakoetan, baina autonomia naizenez ez daukat baja hartzeko eskubiderik, bezero guztiak galduko baintuzke (eta hori ultzera baino txarragoa litzateke; edo ez; auskalo). Zeren nik zure beharra daukat. Bezero. Bezerísimo. *Tú ere el bezero de mi amor*. Runba eta rona, badakizu. Ez dela runba? Eta orduan zer da ba, listo? Bakailaoa. Ondo da. Begira, ez dut zurekin eztabaidatu nahi, zeren azken finean zu nire bezeroa zara. Ehun pezeta baino ez dizut kobratuko lerro bakoitzeko. Gehi beza ken pfez (=irpf). Ez, ez da erlatibitatearen formula, listo. Hi ere bakailao ederra egina haiz. Zer? Zer esan duk? Barka, baina ping-pong «pilotak» ahotik ateratzen ez badituk, ezin izango diat tutik ulertu. Lasai, egun osoa daukagu-eta. Ez dago presarik. Bertan hiltzen ez banaiz, elkarrekin hitz egiten jarraitzeko modua izango dugu. Ez dugu gidoi-beharrik, ezta? Ez, guk

ez dugu best-seller horietako bat asmatu nahi. Sekulan ez dugu horrelakorik asmatuko. Industria mailako literaturatik kanpo gaude (kanpaiak jotzea gehiegitxo gustatzen zaigu!). Zuk uste al duzu benetan Nobel saridun batek gaez kanpaiak jotzen ari daitekeela ezkutuan? Nik bai. Eta halakoxe ideia daukat gizaki handi guztiei buruz. Ezkutuan, pililari eragiten diote. Dilin-dalan. Berdin Estatu Batuetako presidentea izan ala ijitoen erresumako buru izan. Tximinoarengandik gatoz denok, ala ez? Inguruabarrak, gainera, hortxe daude. Inguruabar aringarriak esan nahi dut. Behin eta berriz epaitzen gaituztelako. Eskandalu pixka bat sortzeko. Distraitzeko, zer arraio! Batzuek ostrukak hazten dituzten bezala, nik arkakuso-azienda jarri nahi dut abian, esnetarako eta haragitarako. Orain Mendikoirekin harremanetan nago arkakuso arren genetika hobetzeko, eta hortik arkakuso emerik onenak lortu. Zorriekin ere gauza bera egitea pentsatuta daukat, baina lehenik arkakuso-aziendaren proiektua bideratu nahi dut, aukerak-eta hobeto kalkulatzeko. Zehatza naiz. Ez zait ezertxo eskapatzen. Lehenik, ondo informatu; eta gero, ondo akabatu. Akabatu sugeak, esaterako. Edo bizi-penak, oro har. Batzuetan lehertzeaz dagoen puzkar handi bat bezala sumatzen dut nire burua. Puzkerra handituz ta handituz doa, inoiz erabat lehertu gabe. Dena den, ondo erabakita daukat, eta badakit nora joan nahi dudana: zuzen-zuzen hilobira. Egunen batean, noski. Ez dut presarik. Zenbat eta beranduago, hobe. Litekeena da nire asperrarekin eta nire melankoliarekin eta nire bortxarekin

kaskoa soberan berotu izana, baina tira. Aukeran, itxarotea nahiago nik. Asperra eta melankolia? Ez, ez. Ni Trumoi Kapitaina naiz. Bortxa. Mundua leherraraziko duen bortxa. Eta egun horretan, jakingo dugu zer zegoen barruan (tapatu sudurrak bazpare). Holaxe, gorputza pixaz garbitzea bezala. Ustekabe ederra, alajaina! Barrez lehertzeko modukoa. Frantsesez ere esango nizueke, horrenbestearaino jakingo banu. Zeren hizkuntza hori behintzat zibilizatuena da. Edo upela batean kaka egin ondoren txotxa ireki eta herri osoa gonbidatzea ekitaldira. Asko eta asko konturatu ere ez lirateke egingo. Zintzoak izategatik. Osea, barkaberak. Egia esan, pittin bat bertsolaria sentitzen naiz. Emadazu gaia eta zerbait asmatuko dut zuretzat. Esaterako, har dezagun «barnebide» hitza. *«Bizitzako barnebideak zabaldu egiten dira sigi-saga moduko labirinto itxia osatuz, zeinetan gu galtzen garen, halabeharrez, Kafkaren gazteluko atea irekitzen zaigun arte, eta orduan, hil egiten gara, isilik, besteek jakin gabe»*. Zer moduz? Gustatu al zaizue? Neurri batean, idazle askok funtzionatzen dute horrela. Hitzak inspirazioa ekartzen die, eta gainerakoa eurek osatu. Dena den, magoei ez zaie gustatzen euren trukuak eta sekretuak jendaurrean argitzea; magia hausten delako. Kasu honetan, berriz, baliabidearen nondik-norakoa baino ez dizuet jakinarazi. Egia esan, gehiago azaltzerik ez dago, zeren, zorionez, oraindik badira hainbat lanbide eta jarduera titulazio unibertsitarioen bidez lortu ezin daitezkeenak. Idazlearena horietako bat da. Baina

egon, eta egun beltz hori ikusteko zoritxarra helduko zaigu oraindik. Zeren bizitza txakur honetan den-dena iristen da, baita zoritxarra ere. Eta orduan, badakizu Vallejo handiak zer esaten zuen, ezta? «Bizitzan badaudela halako kolpe batzuk, gutxi, baina hil arte jota uzten gaituztenak». Eta hala da, bai jauna; hala da. Nire burua imajinatu beharko banu, tira, modu askotara egin nezake hori. Baina, esaterako, hona hemen irudi polit bat: elizaren bateko organojolea naiz. Ai, zeinen inbidia, hori lortu duten zorionekoez! Zeruko soinuen artean igarotzea bizitza osoa... Sentsazioak nagusi. Musikak eragindako sentsazioetan amilduta; bizimodu horretara emanda, haragi ta hezur hartaratuta. Eskuak teklatuan jarri eta hasi mundua interpretatzen, desafiitzen, maitatzen, gorrotatzen... Ez dago irudi ederragorik. Jakina, guk aukera hori ere galdu dugu. Telebista daukagu. Poz gaitezen! Ez zaigu ezer falta. Triste zaudela? Ba joan hipermerkatura eta bete gurditxoa mukururaino, horrek izpiritua bizkortuko dizu eta. Lirainago sentiaraziko zaitu, sexualki ere bai. Edota aldatu sukaldeaz. Oraindik oso ondo dagoela? Ba horregatik motel! Jarri sukalde berria! Gastatu dirua; bestela, zure ondorengoek gastatuko dute zure orde. Eta zuk ez duzu hori nahi, ezta? Ez zara ahul nostalgiko horietako bat izango, ezta? Ez didazu esango maitasunean eta elkertasunean sinesten duzula? garai hauetan! ia-ia XXI. mendean! Begira, ez dizut irakaspenik eman nahi. Hori ez dagokit niri; hori, zure aita-amari dagokie. Baina biak oso lanpetuta

dabilta eta horregatik jotzen duzu nigana aholku eske, ezta? Espinillak (zaldarrak) atera zaizkizu eta jota zaude, ezta, letxuga (letxua) hori? Ba hil ezazu zure burua. Horrela, espinillak (zaldarrak) joango zaizkizu. Zaldarrak. Oso hitz poetikoa. Benetan. Odak egiten jakingo banu, «Zaldarrei Oda» sortuko nuke. Zaldar asko izateak, gainera, badu alde on bat: goizetan, leherraraz itzazu eta likidoa esne katilura bota. Kafearekin hartu eta listo, kafesnea. Desnatatua baino osasuntsuagoa, hi. Katarroa baduzu bota flema on bat haragi-xerra gurinaren gainera, marmelada berdea izango balitz bezala. Eta oka egiten baduzu, jaso dena eta sartu tuperbar batean. Eta egun horretan bertan jatea pentsatu ez baduzu, gorde okak izozkailuan. Eta... Ez, stop. Stop. Ni artista naiz eta gauza ederrak sortzeko ordaintzen didazu. Zeren, zu nire bezeroa zara, ezta? Inporta al zaizu «Mezenas» deitzen badizut? ez? Oso ondo, kabronazo. Orduan, kabronazo deituko dizut eta kito. Orain hobeto, ezta? Ez horregatik.

Hogeita bigarren atala. Non neure burua liberatzen dudana, langile autonomoa naizen aldetik, goi mailako hainbat zereginetan libreki aritu ahal izateko. Zeren letratu handia naizenez, eta herriaren onerako izango delakoan, nire jakituria handiaren berri zabaltzeari iritzi diot zentzuzkoena, eta hori diot apaltasunik handienarekin. Benetan. Zin egiten dizut. Egia, Alberto naizen bezala. Jójó-jorjío-jójó.

Hau ez da serioa, jaun-andreok. Eta zuek jende serioa zarete. Urtean diru asko irabazten duzue; lanean gogor aritzen zarete; Haziendari ordaintzen diozue; zergak pagatzen dituzue. Ni ez naiz zuek bila ari zaretena. Hitzak txu moduan botatzen dituen idazletzat jotzen nauzue; kaltegarria; mamigabea; zirtzila; gutti; ttipia; tiki-tikia; ezdeusa; har txikia; glin-glin-glin. Ke te jodan, esponja ondoz betea. Begira, hamaiketakoa egitera noa eta berehala nago zurekin berriro. Ez joan. Edo joan zaitez zu ere hamaiketakoa egitera. Ni, egia esan, oso ondo pasatzen ari naiz. Ai, egunean zortzi orduz holaxe aritzeko aukera izango banu! Nire ustez, Eusko Jaurlaritzak bekak eman beharrean, hil arteko pentsioak eskaini beharko lizkieke benetako idazleak direla frogatu dituztenei. Eta ni horietako bat naiz. Bai, nazioa asko galtzen ari da, guri ez emateagatik gure artea goratzeko aukera materiala. Soldata txiki bat, besterik ez. Laguntza sozial antzeko zerbait. Baina, joder, lagundu! Pepelerdo halakoak! Ez al dauzkazue bi begi aurpegian ala zer arraio! Zergatik uzten gaituzue agortzen eguneroko lan zirtzilen artean, frogaturik edukita (frogatuta daukagun bezala) zinezko idazleak garela, zinezko artistak garela! Zergatik ez duzue zerbait egiten guri laguntzeko? Ez al duzue ulertzen guri laguntzea zuen herriari laguntzea dela? Nor/zer hartuko duzue abiapuntutzat, erreferentziatzat, aurrera ateratzeko aukera ematen ez badiguzue? Holliwod? literatura arrosa? kanpotik heltzen zaigun literatura kolonialista? kanpoko filmak? Gu hemen gaude,

pepelerdook! Gu hemen gaude eta oraindik ez dakizue zenbateraino eman dezakegun! Idiotak! Lerdoak! Itsuak! Hil zaitezte denak! Baita ni ere.

Hogeita zortzigarren atala. Non kantonalismoa errebindikatzan dudana. Ez arrazoi politikoengatik, izorratzeagatik baizik. «El notas». Badakizu: «Hori inork errebindikatu ez duenez, neu lehena». Baina ez galdetu zertan den. Autonomia bezalakoa ziurraski. Beste batifurrada bat. Batzuentzat pozgarria beste batzuentzat gorrotagarria. Zenbat buru, hainbat aburu. Eta gora Santxo Sabel-Handi. Eta ni erregina, puta guztiena, idazleena barne. Begirunez esanda (zeren nik begirune handia diet guztiei, batez ere boteretsuei —denak bezala—). Nire goitikenetan iraulkatzen naiz, nire *Eldarnio* batean egin nuen bezala. Bizitza eldarnioa delako. Hala uste izan dut beti. Eta eldarnio horretara igo naiz olatuaren gandorrera surfzaleak igotzen diren bezala, hunkituta, beldurrez dardarka, baina gogoia hortik ezin desbideraturik, pentsatuz, ezen, iraultzak ongi daudela egin behar ez dituzunean, zer bestela arazoak baino ez dituzte ematen eta. Zinikoa naizela? Baliteke. Baina okerragoa da tontoa izatea. Begira, niri inporta zaidan bakarra ondo elikatzea da. Badakizu, liburu onak izan eta horiek irakurtzeko denbora izatea. Hortik aparte, a mí plin... Baina ez pentsa pedantearena egitea gustukoa dudarik. Esaterako, nahi izanez gero,

«iraizean» hitzaz baliatu naiteke zu txundituta uzteko. Baina hori egin beharrean, «azal gainetik» erabiliko dut, denok elkarri uler diezaiogun. Dena den, ez dut ezer bestearen aurka. Eta ez dut hori esaten nire burua zuritzeko; edo bai. Beno, ez dakit. Nori axola dio? zuri, kabronazo horri? Ez dut uste, zu oso lanpeturik zabilta-eta labanako odola garbitzen. Gupida dizut. Eguzkiari begiratzen diozunean, gorri kolorea baino ez duzu ikusiko aurrerantzean. Eta barnetik ausikitzen dizun harra baretzeko, jendea hiltzera beharturik egongo zara hil arte. Arriskutsua zara. Ulertzen al didazu, kabronazo? Hi bai kalitate txarreko ganadua! Galtzagorrik galdu zaitu, eta orain ehiztariak atzetik dituen galeperra zara. Txakurraren putza! Mundua noizbait amaituko al da? «akabatuko al da?» Piztiak akabatzen dira; baita mundua ere. Baina ez dut espaziora abiatu nahi. Altura gutxiko hegaldia da nirea. Ni eta nire pertsonalizazioak. Ni eta nire mugak. Ni eta nire paisajeak. Begiak ixtea bezala, barrutik edo kanpoko barruti batetik heltzen zaigunaren zain, erritmoari jarraituz, nota musikal bakoitza geure eginez. Oina bere kasa hasten da perkusioa jotzen, eta burua zigarro-kez betetzen zaizu, eta garagardo baten aurrean zaude, eta neskato batek begietara begiratzen dizu hitz egiten duzun bitartean (zer diozun entzuten ez badu ere), badakielako gauez harekin oheratuko zarela. Eta koartetoari dagokionez, hori da dena. Baina gauzak ez dira hola, besterik gabe, amaitzen. Orain heltzen zaidan melodia desberdina da. Musikari dotorea da benetan. Jazza. Aurrekoa bezala. Saxoak bular osoa

betetzen dizu. Bularrean sartu eta halako hunkipena eragiten dizu. Aldiz, egin nahi dudana interpretazioa bestelakoa da. Musika irudikatu nahi dut. Musikari jarraituz irudiak sortu nahi ditut. Ikus dezagun noraino iristen garen bide horretatik: kai batean izarrak; ontzi erraldoiak gauez. Ez da arrantza-portua, merkataritza-portua baizik. Han, leku guztietako jendea ikusteko aukera dago. Arraza guztiak. Han eta hemengo hizkuntzak. Soinu ulergaitzak. Eta txipli-txapla leuna, eta sokak tiratzean sorturiko aieneak. Itsasontzi bat badoa. Bertan nago. Gaua eta ontzia misterioitsuak dira. Nire presentzia ere bai. Ez dakit zergatik nagoen ontzi horretan, portu horretan, gau horretan. Zeren orain konturatzen naiz leku horietan guztietan nagoela. Badakit. Hilik nago. Marinela hila naiz. Horregatik nago portuan (emakumeak bertan daudelako), ontzian (nire etxea delako) eta gauean (osotasunaren zati naizelako). Portuko klubak zabalik daude eta kanpotik argiak pizturik ikus daitezke. Eme-usainak erakarrira lokalean ez dago bezero-falta. Marinela poetak bezalakoak dira, nostalgikoak, tristeziara emanak. Baina ni ez naiz poeta. Eta tabernan sartzen naiz eta berehala konturatzen naiz denak hilik daudela, ni bezala. Ezin dezaket esan zehatz non nagoen, paradisuan edo infernua. Seguraski, ez batean ez bestean. Heriotza horrelakoa da. Behintzat, marinela heriotza. Portua, portuko kluba, ontzia, gaua eta gure bidaietan beti laguntzen diguten izarrak. Kopa bat eta beste bat. Eta zigarroak. Hilda ere ez da bukatzen bizioa. Marinela heriotzan behintzat, ez.

Den-dena berriro hasiko balitz bezala. Maitasun-kantaren ordua da. Hildako marinela apur bat artega mugitzen dira mahai artetik. Eta maitasuna behar zuten emagalduek (horiek ere hilda) barran ametsetan bezala geratzen dira, gogoratzen, desiratzen egunen batean hortik ateratzea baina, ez, hori da ezagutzen duten paradisu/infernu bakarra. Behintzat, bakardadea gainditzeko balio die. Eta maitasun-kantak hain ederrak izaten dira horrelako tokietan. Ontzi batek sirena jotzen du. Badoa. Beharbada, ez da inoiz itzuliko heriotza horretara. Hor doa emagalduek une batez maite zuela uste izan zuen gizon hila. Eta gauak ontzia irensten du eta klubeko gizonak edalontziak betetzen dituzte berriz, eta pena pixka bat ematen die ontzia portutik joateak, zeren ontzi ederra zen eta bertan izena ematea pentsatuta zeukaten, baina orain, ezinezkoa da. Soinu hori bezala. Ezinezkoa. Edertasuna urratzen du; eta irudiak ordenatu, poligono baten antzera. Formula matematikoa bezain zaila, enigmatikoa. Nonbait galtzen dira musikagilearen sentimenduak, eta begiak ixten ditu barruan dauzkan gauzen artean baten bat azaleratzeko gai ote den... Eta bada, noski, bada. Musikagile ona baita. Sartzen da bere barruan eta zerbait atera arte ez da joaten. Ezin da joan. Baina orain, beste melodia bat sartu da eta «gauza» aztertu behar du. Hor dago, mahai gainean. Gauza txikia da, eta barrutik tripa eta guzti daukala ematen du. Onena da labana hartu eta irekitzea, aber zer dagoen! Jelatina bezalako azala, ukitzean labainkorra. Eta barrutik gureak bezalako organoak

baina txiki-txikiak. Hesteak izan litezkeenak baina odolik gabeak, beste likido batzuekin guztiz ezatseginak ez direnak. Eta halako zain mehe batzuk, zenbait emakumeren bularretan izaten direnen antzera. Orain jar ezazu dena hautsontzian eta begira ezazu zer gertatzen den zigarroak bertan itzaltzean. «Gauza» bihurrikatu egin da. Baina ez minagatik —«Gauzak» ezin du-eta minik sentitu—. Mugimendu erreflexua da. Musikarekin batera mugitzen dela ematen du. Bai, musikaren erraiak direla esango baligute, sinetsi egin beharko genuke! Saltoka hasi da mahai gainetik. Whisky-a gustatzen zaio. Abiadura. Saltoak gero eta handiagoak dira eta laster badirudi hegan hasiko dela. Bai, lokaleko argietatik dabil, lanpara batetik bestera. Jelatina bezalakoa da eta tripak izan litezkeenak zintzilik ditu; txiki samarra ere bada, eskua baino handiagoa ez. Musikaren kreatura da, musikak berak sortua. Musika amaitzen denean, bera ere amaituko da. Eta gu? Gu ere desagertuko gara? Kontuz, musika amaitu da!

Hogeita zazpigarren atala. Non eragiketa guztien eragiketa analizatzen den kontularitzako irizpideak erabiliz. Mesedez, ez izan erabatekoa. Eta fereka nazazu. Zakila sano, bai. Eta familia ere bai, eskerrik asko. Eta bukatzen duzunean, zentrifuga nazazu pixka bat. Hi, nondik atera duk giltzurria aurpegi hori? Salduko al didak? Barka. Une batez, nire bezeroa zarela ahaztu zait.

Gizabidea eta kaka hori guztia zor dizkizut, ezta? Ondo egiten duzu niri gogorazita. Ez, ez nago horditurik. Baina laster horditurik egoteko itxaropena daukat. Bai, hau dena nahiko azkar doa. Ezin naiz jaitsi. Ezin naiz gelditu. Eleberri bat? Idatzi zuk eleberri bat, asto horrek. Ni orain oso lanpetuta nago nire horoskopoa aztertzen. Antza denez, gauza zoragarriak gertatuko zaizkit laster. Esaterako, pentsatu dut txapela erabiltzen hastea. Bai. Txapela eta nire amorante batek oparitu zidan bufanda (oraindik gordetzen dut). Kaosa. Bai hitz ederra. Gauza guztien iturburua! Ordena ona da zuretzat. Nik lirika nahi dut. Li-ri-ka! Eta konponduko gara, ezta? Baina orain, lanera itzuli beharra daukat. Eta holaxe galtzen da une artistiko on bat. Tira, zoaz Titanik ikustera, kabronazo. Horrek negar eragingo dizu, eta zintzo eta duina zarela sinestaraziko.

Hogeita hemeretzigarren atala. Non ez den gomendatzen paper latza (lixa) erabiliz ipurdia garbitzea, eta non aztertzen diren, hala eginez gero, erabiltzailearentzat sor daitezkeen ondorio zinez larriak. Ondo geratzen da, ezta, babo arraio hori? Batzuetan nire buruari galde egiten diot palmipedo horietakoa ez ote haizen. Baina, ez, itxaron. Hi patata-aurpegi horrekin fekula izan behar duk. Oso aberatsa baita gorputzerako. Proteinak, badakik. Baina itzul gaitzen gauza serioetara, pailazo hori. Ni beti filosofiari buruzko liburuak irakurtzen, ea

transzendentzia pixka bat atxikitzen zaidan, eta ez dago modurik. Lastima, diru piloa gastatuta daukate eta gaugerero. Izan ere, ez zait gustatzen liburuak bibliotekatik ateratzea. Ez dakit. Jabetza dut maite. Usatu eta gero ere liburuak «neureak» direla jakitea. Antzekoa gertatzen zaigu bikotekidearekin. Horregatik saiatzen gara harengandik ez banantzen. Txorradak. Bai, halaxe da. Baina denok ez gaituk perfektuak, hi bezala, kabronazo. Denbora-kontua ere bada. Esaterako, irakurtzeko denbora gutxi baduzu, eta noizean behin liburu bat edo beste erosteko dirua baduzu, orduan hobe da irakurgaiak zeuk aukeratzea liburu-dendan bertan, bibliotekako anabasan baino. Logikoa, Wattson maitea. Eta puzker hau hiretzat, kabronazo (opari egiten diat hire urtebetetze-egunerako). Ez esan inori baina neurologoak esan dit beste neurologo batengana joateko: ez-nau-e-la-ko-so-por-ta-tzen. Nerbioetatik omen dago. Esan diot larrua sano jotzeko, horrek gaitza arinduko diola eta. Baina arrunta deitu dit. Ez dudala sentikortasunik. Gazte jendea perbertitu egiten dudala. Eskandalu-sortzaile horietakoa naizela; galgarria, putza. Orduan, zakiletik tira egin diot, hain gogor, erauzi egin diodan. Santo Tomas eguna zenez, frijitu eta ogitarteko ederra egin dugu. Ez zen txarra. Egia esan, lagun bati zati bat eman diot benetako txistorra zelakoan eta asko gustatu zaio. Tira, afrodisiakoa ere ba omen da. Beraz, gizonen zakilak hasiko gara aurrerantzean kontsumitzen, gizonak desagertzeko zorian egon arte. Horixe egiten dugu animalia askorekin. Errinozerontearekin, esaterako. Adarra afrodisiakoa

omen da eta hori dela-eta ehiza izugarria jasaten du, Afrikako animalia eder honen biziraupena arriskuan jartzeraino. Eta elefanteekin berdin egin dugu, boliagatik. Beti aitzakia ederren bila gabiltza, gauza ederrak suntsitzeko. Zeren tristeena da ikustea ez dugula ikasten ezta lau mila urte pasata ere. Koadrupedoak gara, dudarik gabe. Arima karratua dugu, hexagonala izan beharrean. Jolas egiten gara hala bizitzan nola heriotzan ere. Eta gure gizon-emakume argitsuen argazkiak gorde egiten ditugu entziklopedietan, geroago erauzi, horman zintzilikatu eta dardoetan jolasteko. Jainkoa tronutik bota dugu Che Guevara bertan eseriarazteko. Iraultza kontsumitu egin dugu produktu bat gehiago balitz bezala. Gilermo II.a edo gillotinaren asmatzailea pertsona bera dira. Eta Bibliaren eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren arteko aldea ozta-ozta ikusteko gai garen. Eta aitortu behar dut beldurra ematen didala nire baitan biltzeak. Ezereza. Badakizue. Aizue, baina ez ote daramagu ezereza geure barruan? Egon isilik une batez, kontzentra zaitezte zuengan, itxi begiak. «Hori» ez al da ezereza? Ezereza, orduan, ez zegoen kanpoan, gutaz kanpo alegia, gure barruan baizik. Horrek den-dena aldatzen du. Horrek esan nahi du ezereza, ez soilik irudikatzeko, baina sentitzeko, bizitzeko ere gai garela. Avignongo zubia. Orain dela urte asko zeharkatu nuen. Gezurra dirudi: momentu hura, zubi hura, inoiz izan ez balira bezala. Baina... inoiz izan nintzen zubi hartan? Gogoratzen dut, ordea, oso zubi ederra zela, zaharra, hiri osoa bezala, historiaz

betea. Ez du axolarik. Sentsazioa baino ezin dut gogoratu, han izan nintzela alegia, baina «ezin dut ukitu» zubia; «ezin dut entzun» azpitik zerien ura. Sentsazioa geratu zait, hori baino ez. Eta zerua, zeinen urdina zen... Rodano ibaia, bai. Gure mitologia partikularrean halako ibai-izen ederra. Badakit ez naizela berriz izango Avignon-en, Rodanori ez diodala berriz entzungo, ez dudala nire sentsazioa errealitate bihurtuko... inoiz ez, inoiz ez, inoiz ez. Poeren beleak hala esan dit, eta badakit egia dioela. Baina dena ez da beltz kolorekoa mundu honetan. Esaterako, denboran atzera egin eta ikusten dut Pedro Axular bere idazmahaian idazten. Gizon argal, lirain, aurpegi-zorrotz eta euskal gorpuzkerakoa. Paperean idaztean lumak ateratzen duen hots txikia aditzen dut. Bera ez da ohartu nitaz; ezin nau ikusi gainera. Kalera begira jarri da, inspirazio-une baten zain-edo. Ume batzuk euskaraz ari dira jolasten patioan. Elizako sakristauak eguerdiko hamabiak jotzeari ekin dio. Emakume zahar bat edo beste elizatik atera eta beste bat sartu da eliza barrura. Pedro Axularren gelako leihotik udako haizea barneratzen da epel baina aldi berean fresko —udako eta aldi berean menditiko haizea da-eta—. Baratzeetako usainez beterik dago toki osoa. Liztor bat, lorontziko loreek erakarrita, hegalditxo bat egiten du Pedro Axularren paperen inguruan. Axular hari begira geratzen da, begirada urrun duela. Ez du beldur-seinalerik egiten liztorra eskuan pausatzen zaionean. Begirada zuzentzen du liztorraren abdomenera; beltz eta hori koloreak paganoak

direla pentsatzen du une batez, basatiak alegia. Gero, liztorrak hegalei eragin eta etorritako bidetik alde egin du. Pedro Axularrek une horretan idazteari ekin dio gogotsu; zain zeukan iradokizuna heldu zaio eta aprobetxatu nahi du eta. Bazkal orduan gelditu da eta arratsalde partean, siesta txikia egin ondoren, beste pare bat orduz idazten jarraitu du, eguzkia leihoz harantzagoko mendien atzean ezkututzen den arte. Pedro Axular jaiki eta leihoa itxi du, eta lotara baino lehen, lurrean belaunikatu eta Jainkoari otoitz egin dio bere arima salba dezan, bere herrikideak salba ditzan, munduan diren gizaki, animalia eta gauza guztiak salba ditzan, eta batez ere... euskaldunon hizkuntza salba dezan: euskara, lapurtera maitea...

Hogeita zortzigarren atala. Non heriotzaz ondoko bidaiaren berri ematen dudan. Hala da, bai. Hilda nengoen eta kometa batean nindoan espazioa zeharkatzen, beti amestu nuen bezala. Ez dakit zehatz-mehatz nola adierazi. Esan nahi dut jada ez nintzela lehen (bizirik nengoenean) nintzena. Ez, ez. Nitaz halako kontzientzia nuen, bai... Baina, nola azalduko dut? Oroitzapena bezalakoa, bai. Hori da. Zer gogoratzen dugun haurtzaroz? Ba, horixe nintzen. Sentsazioa, oroitzapena, kontzientzia. Kometaren zati banintzen ere, neure indibidualtasunaz jabetzeko gai nintzen. Eta espazioan zehar ari ginen bidaiatzen. Kometa eta biok. Zaila egiten zait azaltzea kometa nola zegoen

osaturik. Argi zuri-urdina zerion, eta gasak, noski: izotza, izotz karbonikoa, hauts-partikulak. Eguzki baten aldera ari ginen hurbiltzen, eta horregatik ginen gero eta distiratsuagoak. Ezin dut esan Eguzki hura «gure eguzkia» zenik; baietz nago; baina ziur ezin dut esan. Hil eta gero, kometan bidaiatzen «esnatu nintzen» (esnatzea bezalakoa izan baitzen). Txikitako ametsa zen hori, orain beteta ikusten nuena: espazioan zehar bidaiatzea. Agian, bat hiltzen denean, txikitako ametsik desiratuena egia bihurtzen zaio, opari gisa edo. Auskalo. Agian gauzak horrela dira eta kito. Hala ere, bidaiaren hasieran bezala sentitzen naiz. Kometa gero eta argitsuagoa da eta horrek esan nahi du eguzkitik gero eta hurbilago gaudela. Jakina, halako distantzia batera heltzen garenean, kometa desegin egingo da, eta argia guztiz itzali eta ni auskalo non amaituko dudan. Baina ez naiz beldur. Badakit-eta espazioa nitaz arduratuko dela, zaindu egingo nauela. Zoragarria da. Kometa honetatik, heriotza honetatik, gauzak beste modu batean ikusten dira. Askatasuna. Kontzientzia garbia. Atzean geratzen da dena: hain une txarrak eman zizkidan urdaileko minbizia, senideen negar eta sufrimendua, momentu latzak... Baina baita oroitzapen ederrak, nire senideen maitasuna, lagunak, eta hainbat eta hainbat gauza on... Baina horrek ez du bueltarik orain. Hil egin naiz eta kometa honen zati naiz. Espazioa zeharkatzen ari naiz eta eguzkiak urtuta laster nire «garraioa» desegino da. Baina ia-ia garraio horren zatia naizenez, nire nolabaiteko itxura fisikoarekin batera

eraldatuko naiz ni neroni ere. Eta berriz izango naiz; bai, izaten jarraituko dut. Izaten jarraituko dut. Eta espazio infinituan badakit oso erraza izango dela lagunak aurkitzea, izan zirenak eta izango direnak, denon heriotza eta aldi berean bakoitzarena. Kometa honetan noa izar baten eta izar guztien bila. Lasai, badakit itxaroten eta.

Hogeita bederatzigarren atala. Non kontatzen baita Minerva estatuaren patua. Patua diot, estatuek ere halako patua dutelako. Bi patu, hobeto esanda. *Kuak-kuak*. Bata, izan baino lehen, eta bestea, izan eta gero. Minervak asko maite zituen eskulangileak, eta erromatarrak, eta jende langilea. Artistak ere maite zituen, eskulangilerik finenak direlako. Eta artistek ere hura asko maite zuten. Baina hitz egin dezagun Minerva estatua bihurtu aurreko patuaz. «Bihurtu» esan dut, bai, haragi eta hezurrezko gizakia baitzen lehen. Grekoen Atenea bezalakoa: jainkosa, alegia. Ez zen Grekoena bezain fina eta goi-mailakoa ordea, zeren erromatarrak ere ez baitziren hain urrun iritsi (praktikoeziak izanik, ezin izan zuten hain altu hegan egin; gainera, bigarren parteak denok badakigu ez direla lehenak bezain onak). Baina kontua hori da (*zenbat?*). Eta egun batean, han zegoen Jainkosa, artistentzat modelo-lanak egiten. Eta... Ez, barkatu. Ez zait gustatzen hau nola bideratzen ari naizen. Nahiago nuke beste ideia bati heltzea. Esaterako, estatua naiz eta nire begien

aurretik pasatzen den guztia ikus dezaket. Eta ikusten ditut bikote gazteak elkarri zirika, eta musuka, eta hasperenka. Eta batzuetan neronen aurrean ere egiten dute amodio, hasi eta bukatu arte. Eta harrizkoa banaiz ere, barrutik urtu egiten naiz. Horien grina eta desiren aurrean, estatua izatea madarikatu egiten dut. Estatua naiz. Mendeak eta mendeak daramatzat estatua izaten. Nire begiek zer ez duten ikusi! Bidaiatu ere egin dut. Eraman egin naute herrialde batetik bestera. Bizi izan naiz museoetan, bilduma partikularretan, ministroen kabinetetan, plaza nagusietan... Orain, plaza horietariko batean nago, kalean alegia. Eta neurri batean, maite dut kalea, bai, baina... Hain kale zatatsusak dira hauek... Hemen denak dabilta kotxez eta motorrez eta autobusez edota, okerragoa dena, metroz. Eta ez daukate nire edertasunaz gozatzeko astirik. Galdu egin dute, gainera, artearekiko sentikortasuna. Kontsumogizartea da. Bigarren Erdi-Aroa, oraindik beste bi-hiru mende iraungo duena, bigarren Errenazimendua loratu arte. Ez dakit nire harrizko begiek ikusiko ote duten momentu lorios hori. Baina gustatuko litzaidake, egon ziur. Egun horretan, nire harria belztu eta kaltetzen duen kutsadura garbitu eta lehen egunean bezain dirdiritsu azalduko naiz herritarren aurrean. Eta berriro maitatua izango naiz, artistek nigan bilatuko dute inspirazioa, maitaleak nire itzalean emango dizkiote elkarri lehendabiziko musuak (musurik gozoenak, sentsualenak). Baina bien bitartean, plaza zatatsus honen erdian jarraitu beharko dut,

automobilek botatzen duten karbonoaz zerri eginda, jendetzaren erdian bakar-bakarrik, ezulertua, ez banintz bezalaxe. Tira, nahi baduzue, beste istorioa ere amaituko dugu. Esaten ari ginenez, Minerva artistentzako modeloa zen. Eta halako batean, artista haietariko batez maitemindu eta harekin haragizko harremana izan zuen. Haren aitak, Zeus handiak, ez zion hori barkatu, eta estatua bihurtu zuen. Eta hori da Minerva gaixoaren istoriotxo. Grekoen jainkoek badakizue izugarri krudelak zirela, eta erromatarrenak ere ez ziren atzean gelditzen. Zeren zigorra zinez izugarria izan baitzen: Minervaren gorputza estatua bihurtu zen, bai, baina... berak barrutik lehengoa izaten jarraitu zuen! Ez zen hil! Haren arima ez zen harri bihurtu, bere gorputzarekin batera. Eta batzuetan, inguruan inor ez dagoenean, gauez, batez ere zeruak bere edertasunik handiena erakusten duenean, Minervaren harrizko begietatik malko bat isurtzen da.

Hogeita hamargarren atala. Non bekatu originalaz mintzatzen den. Bekatu originala edo biluztasuna, hots, biluzik uzten gaituen bekatua. Arimari begiratzea bezala, baina arroparik gabe, azalean nahiz mamian. Bekatu originalak berriro jaio, bestelakoak izan eta erabaki ahal izateko aukera eman digu. Geu izateko aukera. Bekatu originala (kristautasunean daukan zentzuan) izadiak ezarri zigun esklabotasunari aurre egiteko bidea

izan zen. Ezinbesteko urratsa. Gu ez ginen geu, geure gainteko baldintza-multzoa baizik, gure haragian sartuta zegoena, lurrera iltzatzen gintuena. Baina arbasoek guganako maitasunagatik egin zuten bekatu, eta orduan aro berria hasi zen guretzat. Ez okerragoa ez txarragoa, baina bai askeagoa. Askatasunik gabeko bizitza urik gabeko putzua baita: ez du ezertarako balio. Gizonaren lehen bekatua biluztasun horretan gauzatu baldin bazen, orduan ongi etorria izan bedi.

Hogeita hamaikagarren atala. Non sentimen abstraktu batzuei heltzen diedan. Paisaje osoa hartu eta talaiatik ikusten den azalera guztia zuriz pintatzen duen lainoa. Eta badakit hor erdian nagoela. Lainoa naizela. Eta itsaso barea, harkaitz bustiak eta belar freskoa besarkatu egiten ditut. Maitasuna egiten dut Lurrarekin. Lainoa naiz eta nire gorputza milioika ur-tanta tipiez osaturik dago. Biguna naiz, ukiezina ia-ia, eta inon ez banago ere, leku guztietan nago. Gustatzen zait lainoa izatea. Itsasotik heltzen naiz beti, ez naiz menditarra eta (mendia maite badut ere). Baina olatuekin jolasean aritzea maite dut batik-bat, eta poliki-poliki, hiriko hondartzara hurbiltzen naiz, isilean, nire gorputz itzela osotasunari inguratuz. Eta koltxoi bat kokatzen dut benetako bizitzaren eta gauzen artean. Eta koltxoi horretan Fantasiak aharrasi egin eta esnatu egiten da. Eta bere begiekin begiratzen duenean, ikusten dituen gauza guztiak sorginduta

uzten ditu. Eta nagiak ateratzean, sentsualtasuna hedatzen da hiri osoan zehar, eta bederatzi hilabete pasata ume asko jaiotzen dira (euren existentzia lainoak ekarritako Fantasiari zor diotela ez dakitenak). Lainoak katuak ditu adiskide. Lainoa heltzen denean, etxeko katuek leihoan eseri eta buztanari gora eta behera eragiten diote, eta euren jabeak liluratzen dituzten begiradaz zelatatzen dute leiho aurreko espazioa. Eta kaleko katuak harrizko eskaileretan, monumentu zaharretan, itsas aldeko harkaiztian esertzen dira, eta begiratzen dute lainoaren sakonerantz beren begi sakonekin. Lainoa naiz gizonengandik ihes egin dudalako. Ez naizelako preziatua dirua bezala. Horregatik gustatzen zait laino izatea. Eta munduak eskertzen dit, alperreko gauzak beharrezkoak direlako, batez ere naturalak badira. Ni natura naiz. Natura bera. Lainoa. Ur-tanta tipiez osatua. Lur arrasean dabilena eta zeru-goietan hegan doana. Nor naizen badakit.

Hogeita hamabigarren atala. Non bidaiari baten berri ematen den. Bidaiari hori neu nintzen, erromatarren garaian. Erribera zeharkatzen ari nintzen itsasoa ikusteko pozez. Nire inguruan dena zen heriotza eta beldurra, erromatar soldaduen sarraskiak itzelak izanik. Horrez gain, bideak gaizkilez beteta zeuden eta arrotzarentzat zein bertakoarentzat txit arriskutsua zen halako bideetan ibiltzea, bakarrik. Baina niri ez zitzaidan inporta

familia osoa galdu berria nuelako, izurrite baten ondorioz. Izurritea oso zabaldua zegoen (Erdi-Aroko herri zikinetatik oraindik urrun bageunden ere). Gainera, ia berrogei urte nituen eta garai hartan batezbesteko biziraupena berrogeita bost urtekoa baino ez zen (eta hori ere zorreak lagun). Beraz, erromatarren galtzada bati jarraika nindoan itsasoaren alderantz. Mahastien ondotik pasatzean gelditu egiten nintzen mahatsak jatera. Oso gozoak ziren. Aurrerago, beste fruta batzuk aurkitu eta orduan ere gelditzen nintzen. Itsasoa ez neukan inoiz ikusita. Behin, itsas barraskilo bat ekarri zuen herriko norbaitek eta belarrian jarrita itsasoa entzungo nuela ziurtatu zidan. Hala ere, ez dakit hura benetan itsasoaren ahotsa zen. Barraskiloa, ordea, bitxia zen. Ez nuen sekula holakorik ikusi. Frutak jateari utzi eta bideari lotu nintzaion berriro. Toki lau eta berezi batetik pasatzean, iruinari-ilara luzea topatu nuen. Aitortu behar dut beldurrak airean nengoela, leku haiek guretzat sakratuak zirelako. Zenbaiten ustez, bertan lurperatuta lo egiten zuen gure arbasoen izpirituak, eta ez zitzaien gustatzen inork iratzartzea. Gauza asko kontatzen ziren hori egin zutenei buruz, eta pasadizoak ankerrak izan ohi ziren benetan. Igaro zen denbora. Egunak. Erriberako paisaje horiak atzean utzi eta belar berde eta freskoz jositako mendietan barrena sartu nintzenean, erreka baten ondoan etzan eta lotan geratu nintzen. Eta ametsetan oso emakume eder bat azaldu zitzaidan. Biluzik zegoen eta nire aurrean eseri zen. Hurbildu nintzaion eta jolasean hasi ginen. Bularra zeinen gozoa zuen gogoratzen

dut oraindik ere, benetan gertatu izan balitz bezala. Esnatu nintzenean, jantzia bustita neukan brageta aldean. Begiak igurtzi nituen, eta penaz esnatu nintzela onartu behar dut, hain baitzen benetakoa nire ametsetako sentsualtasuna! Iparraldera jarraitu nuen, zeren itsasora iristeko beti iparraldera jarraitu behar nuela esan zidaten guztiek. Eta beste egun bat edo bi igaro ziren. Eta gertatu zitzaizkidan hemen orain kontatu ezin ditudan gauza asko, denbora azkar baino azkarrago doalako eta ni, azken batean, liburutxo honen istoriotxo bat baino ez naizelako, eta den-dena kontatzeko astirik, eta batez ere espaziorik, ez dudalako. Kontua da heldu ere heldu nintzela itsasora, azkenik. Eta uste baino zoragarriagoa zen. Eta ukitu nuen hondartzako harea. Eta oinak lurrean sartzen zitzaizkidala sentitu nituenean, beldur nintzen lurak irentsiko ez ote ninduen. Baina ez zen ezer txarrik gertatu eta aurrera egin nuen. Eta oinetako zarpailtsuak erantzi eta uretan sartu nintzen, ura oinekin ukitzeko, sentitzeko. Eta begiak itxi nituen. Bai, hura itsasoa zen. Eta arnasa hartu nuen sakon. Eta itsasoko ahotsari entzuten geratu nintzen ez dakit zenbat denboraz. Eta pentsatu nuen: erromatarren garaiko gizakia banaiz ere, hogeit hamar mende barru egongo da gizakiren bat ni bezain txundituta geratuko dena, itsasoa lehen aldiz ikustean, oinetan sentitzean. Eta ez nenbilen oker. Gero, makurtu eta itsasoko ura edaten saiatu nintzen, baina bota behar izan nuen barre-algaren artean. Banekien oso gatza zela eta edaterik ez zegoela, hala kontatu zidatelako, baina neronek egiaztatu nahi nuen. Bai, gatza zen. Eta

haizea altxatu zen eta itsasoa harrotu zen. Eta itsasora begira eseri nintzen, nire begiak itsasoz bete nahi nituelako, handik betiko alde egin baino lehen.

Hogeita seigarren atala. Non kriskitin-suge bati buruzko istorioa kontatzen den. Kriskitin-suge bakoitzak bere istorioa du. Eta munduan milaka (beharbada, milioika) kriskitin-suge daudenez, bakar baten istorioa baino ez dizuet kontatuko. Hasteko, esan behar dizuet narrasti-mota honek daukan ospe txarra ondo irabazita daukala, egiatan oso hilgarria den pozoia sartzen baitio kosk egiten dionari. Hori denek dakite (baita zuk ere, kabronazo). Baina nola sortzen dira kriskitin-sugeak? Ba, jakin behar duzue kriskitin-suge bakoitzaren barruan hiltzaile bat harrapatuta dagoela. Hiltzaile bat esan dut, bai. Bizitzan besteak hiltzen ibilitako norbait. Infernua horixe baita (infernu asko badaude ere). Gaizkile handiak izan direnak kriskitin-suge bihurtzen ditu izadiak/jainkoak, haien gaiztakeria zigortzeko. Kasu honetan, gaizkile hura izugarria izan zela esan beharra dago. Ez bat ez bi, ehunka pertsona baizik, hil baitzituen. Haren hil-egarria ez zen inoiz asetzen. Zenbat eta pertsona gehiago hil, orduan eta gehiago behar zituen hil, beste bat hiltzen zuen unean bakar-bakarrik geratzen baitzen lasai, harausikietatik aske. Baina alferrik zen, noski, bihotzeko harraren ausikiak lehen baino indar

handiagoz baitzetozkion oldarrean berriro. Eta ondorioz, berriro ere hil-beharrean aurkitzen zen. Bosniako serbiarra zen, eta ez dizuet izena nola zuen familia zeukalako, eta gizatxar horren ondorengoak kakaztuta utzi nahi ez ditudalako. Kontua da ehunka gizon, emakume, zahar eta haur hil zituela, bosniarrak zirelako (baina serbiarrak izan balira, ez zituzkeen hilko, zeren serbiarra izatea harentzat gauza handia baitzen). Baina hari ere heldu zitzaion haren azken ordua, heldu ere. Eta egin zituen hilketak hain ziren beltzak eta izugarriak, ezen, deabruak berak ez zion utzi bere etxean sartzan, higuinaren higuinaz. Eta Jainkoak kriskitin-suge baten barruan sartu zuen, gainerako gizakiongandik ahalik eta urrunen egon zedin judizioaren azken egunera arte. Noski, bera bezalako borrhoro-ohi asko topatu zituen. Esaterako, milaka palestinar ume hilda zeuzkaten odol gaiztoko judu ugariak ziren han (hori bai lotsa 2. Mundu-Gerratean nazien kontzentrazio-zelaietan hildako judu gizarajo baina duinentzat!), eta Hego Afrikako hiltzaile zuriak, eta Hego Amerikako militar kobardeak, eta... Hainbeste ziren... Hori bai, denek basamortuan bizi beharra daukate orain. Gizakiongandik urrun, gizakiak maitatzen jakin ez zutenez ez baitute merezi gurekin berriz bizi izatea. Gainera, kriskitin-sugea izatea ez da hain txarra. Ohitu egiten omen zara nonbait.

Hogeita bederatzigarren atala. Non heroikotasunaz blaitzen garen. Heroikoak izan nahi dugulako; izan behar dugulako. Heroikotasunik gabeko bizitzak ez du piperrik balio. Heroia sentitzen ez den pertsona txakur baten gisara sentitzen da. Hiltzen ikasi beharra dago edozein tokitan, edozein momentutan, edozein aitzakiatan. Heroikotasuna besarkatu nahi dut, bularra puzten zaidalako inpresioa munduko sentsaziorik ederrena delako. Artearekin bakarrik aldera daiteke. Eta urrutitik datoz, sua botatzen duten zaldietan zamalkatuz; eta gugana datoz, altzairuzko arma boteretsuak eskuetan dituztela. Eta bidera aterata oihukatzen diegu: hil gaitzazue, mesedez. Hil gaitzazue. Zeren ez naizen heroia moduan hiltzeko gai izan eta behintzat heroiek hilda izan nahi nuke. Bai, hil nazazue. Arren! Hil nazazue. Bestela, pentsatuko dut mundua oso txikia dela, unibertsoa zapatan sartzen zaidala. Eta hori ezin da; ezin da. Zuek, zeruertzetik mamuen antzera agertutako jainko zoragarri eta ikaragarriak zarete. Arren: hil gaitzazue! Senti dezagun zuen armen zorroztasuna gure gorputz-atalak mozten. Hil gaitzazue. Mesedez. Ez gaitzazue utzi txakurrak bezala hiltzen, ohorerik gabe, esklabo bihurtuta, sabela ondo beteta, zoriontsu. Emaiguzue beste itxaropen bat. Zuen eskuz hildakoek badakigulako berriz dutela bigarren aukera bat, beren ausartasuna aproban jartzeko.

Hogeita bosgarren atala. Non soldadu ezezagun baten berri ematen den. Aurrean Siberiako lautada izan zitekeen hedadura. Eta gatzelu zaharreko zelata toki batean, soldadu ezezaguna. Hain da ezezaguna ezen aurpegirik ere ez du. Baina bizarra, bai. Eta gaua bezain beltza, gainera. Ez du begirik baina paisajeko gauza guztiak oro ikusten ditu. Gelditasun horretan espazioarekin hizketan ote dago? han jarria bizitzan beste helbururik ez balego bezala? Aukera izanez gero, orkestra magikoren baten kontzertu-gaitzat hartuko luke, pozik, edozein erromantikok. Baina batez ere Wagner-rek. Eta Nietzsche bera ere liluratuko luke. Ez garelako ia tutik ez, amaigabeko hedadurara begira dagoen musurik gabeko aurpegi bizardunaren soldadu ezezaguna baizik. Eta urrunean, haizeak hauts-zirimolak altxatzen dituenean, soldaduaren giharrak atezuan jartzen dira uniformearen azpian. Etsaia! Baina, ez. Oraindik ez dator. Etorriko da halere. Heriotza beti heltzen den bezala. Hil egin behar dugulako. Gure patuan horrela idatzita dagoelako. Gerrarik ez balego, munstro bihurtuko ginateke. Gerraren beharra dugu geure gizatasunari eutsi ahal izateko. Ez perbertitzearren. Halaxe gertatzen baita ongitasun handian bizi diren herrietan: lehenik, gazteek porrot egiten dutela; eta jarraian artearekiko gustu ona galtzen dutela (hala nola baleek norabidearen zentzua galdu eta hondartzara jotzen duten, hiltzera); eta sexuari gehiegizko garrantzia eman eta aukera zoroak eta zikinak bilatzen dituztela; eta azkenik, gizabanakoak

familiaren gunetik kanpo hiltzen direla penaren penaz. Horixe baita gure aurpegirik gabeko soldadu bizarduna zelatatzen duena. Horixe baita etsaiak ekartzen diona. Bizipoza! Gerra! Heriotza! Bake-garaian aurpegia birsortzen zaio gure soldadu ezezagunari; eta izen-abizenak ere otutzen zaizkio. Eta orduan, ez da inor. Etsaiaren zain egoteari utzi diolako. Odolaren gozoa! Suntsipenaren deabruaren hegalak, ai, zeinen diren beltzak! Ezkerreko hegala bere hedadura osoan zabaltzen duenean, lurbiraren erdia (ezkerraldea) ilunpean geratzen da, eta planetak ibiltzetik gelditu eta orduan emakumeen negarra igotzen da atmosferaraino lehenik, eta jarraian, hortik unibertso osoan zehar egiten du bere bidea, oihartzun bihurtuta. Itxi begiak eta ikusi nire soldadua! Zeinen formidablea, zeinen aparta! Etsaia noiz helduko irrikan dago bere adorea erakusteko. Besoa etsaiaren aurka altxatuko duen unearen zain bizi da. Nire aurpegirik gabeko soldadu bizardunak izarrak ditu maite.

Hogeita bederatzigarren atala. Die Meistersinger von Nürnberg. Vorspiel zum I. Aufzug. Zapata hau zurea al da? Barka, ez dakit entzun didazun. Zapata hau zurea al da? Barka, ez dakit entzun didazun. Horrela, infinituraino. Baina zer da infinitua? Ez dut esaten ea zer den infinitua Kant-entzat, ez Levinas-entzat ez Hegel-entzat. Zuri galde egiten dizut eta galdera bera egiten diot

nire buruari. Niri ez zait inporta goi mailako filosofoek bilatu dituzten erantzunak zeintzuk diren. Zerrendatuta daude liburuetan, beraiek idatzitakoetan eta beste batzuek idatzitakoetan. Ordea, neronen erantzuna zein den inporta zait. Nola sentitzen dudan neuk infinitua. Sinplekerietan erortzeko arriskua dagoela badakit. Baina, tira, nik ere ez dakit zein den zure erantzuna. Oso azkartzat jotzen duzu zuk zeure burua, ezta? Tira, ez dut uste horrela denik (ikusirik, filosofia-fakultateak zeinen gaizki dabilizan gure denboretan). Injineruak behar ditugu. Horretan gastatzen ditu Euskal Herriko Unibertsitateak bere aurrekontuaren hiru laurdenak. Gainerako laurdena, probetxuzko beste «zientzia» batzuk ikasteko (enpresa-ikasketak, zuzenbidea, eta abar). Gero letrak daude. Eta azkenik, euskara bultzatzeko aurrekontua dago. Txakurraren putza. Osea, *une merde pinché sur une makila*¹. Baina hitz egin dezagun infinituaz eta utz dezagun letxe txarra ultzera pizten zaigunerako. Erantzun baino lehen, pentsatu egin behar da. Infinitua. Hitzak sortzen didan sententzioaz jabetu eta ondoren sententzio hori deskribatzen saiatu beharko genukeela uste dut. Bai, hori izango litzateke biderik zuzenena. Ni hil eta gero, aurrera jarraituko duen zerbait. Hori izan daiteke infinitua. Eta ikusten denez, heriotza hartu dut abiapuntutzat. Zeren gauza bat dago garbi: hilda ere, munduak aurrera jarraituko duela. Behintzat, hala egiaztatzen dut neure begiekin egunero: jendea hiltzen da baina nik/guk, bertan jarraitzen dut/gu. Ez gara hiltzen, beraz. Hori da

¹ Kretazeoaren garaiko frantsesa (I.O.)

infinituia. Besteen heriotzaz harantzagoko eternitatea. Gizateriak bilatzen duena ugalketa-prozesuan. Eta norbaitek esango du: «Baina gizateria osoa hiltzeko arriskua dago». Edo, behintzat, hori irudikatzeko gai gara. «Orduan, infinituari nolabaiteko “muga” jarri behar al diogu?» Ez, infinitua beste erreferente batzuetan ere ikus dezakegulako. Mendiak, esaterako, infinituak dira (gure finitudasunetik begiratuta). Itsasoak. Lurra. Espazioa. Unibertsoa bera. Gizakiok garen aldetik, onartu behar da gogorrek garela, txit zaila eta pentsaezina dela munduko biztanle guzti-guztiak desagertzea. Hori ia ezinezkoa da gertatzea. Baina gertatuko balitz ere, Lurrak aurrera jarraituko luke. Naturak hartuko luke lekukoa. Egia esan, Izadiaren asmo ikertezin ñimiñoa baino ez gara. Hor ere errepresentatuta dago infinituia. Gure infinituia eta gizabanako bakoitzarena (bertan garbi ikusten da elkartasuna infinituari lotuta dagoela, hau da, elkartasuna Naturan bertan dagoen sentimendua dela, prozesu naturalen osagai izanik). Baliteke hori oso sakona ez izatea, baina behintzat neure-neurea dela esan dezaket. Ez dut plagiorik egin (kontzienteki ez, behintzat; zeren batzuetan guri bururaten zaizkigun gauzak beste batzuei bururatu zaizkie gu baino askoz lehenago, denok baikatoz haragizko enbor beretik). Beste zerbait ere bila genezake, geure infinituia (amaigabetasuna) zehazten jarraitzeko. Baina horretarako, lehenik, hitza ahoskatu, eragiten digun sentsazioa ondo sentitu eta jarraian hura zehazten saiatuko gara. Eta ez ahaztu:

inportanteena ez da infinitua niretzat zer den, baizik zuretzat zer den, nola definituko zenukeen zuk. Horri pentsatzea deitzen zaio. Eta niri gustatzen zait bere kasa pentsatzen duen jendea. Jakina, «Karpov» beti izango da Karpov; baina horrek ez du esan nahi gutxiago dakigunok xakean ondo pasatzeko eskubiderik ez daukagula. Infinitu hitza erabili dut orain arte amaigabetasun hitzaren ordeiz. Beharbada, erdararen kolonialismoa da hori. Baliteke, bai. Ondo legoke «amaigabetasun» hitzaren erroa ondo aztertzea, eta ez soilik euskaraz, baizik baita beste hizkuntza batzuetan ere. Batez ere, infinitu hitzaren etimologia bilatu beharko litzateke. Atzera jo eta grekoen munduan «ideia» edo «kontzeptu» hori nola esaten zuten (nola zehazten zuten) aurkitzea; eta beste hizkuntza batzuetara jo ere bai. Kulturaren bidean ezer ez baitago soberan. Filosofian murgildu nahi baduzu, kultura maitatu behar duzu, gauza berriak ikasteaz inoiz nekatu gabe. Amaigabea, azkengabea, bukagabea, infinitua. Itxaropena bezalakoa ere bada, gure tragedia honetan laguntzen diguna aurrera egiten. Infinitua da jakitea denbora ez dela gugan amaitzen, gure seme-alaben heriotza ezinezkoa dela, heriotzaz harantzago iristen direla gure bizitzak, denbora eskuraz ezin baterantz, baina hala ere denbora hori gauzagarria, egiazkoa dela. Infinitua da jakitea maite ditugun pertsonak, gauzak, ez direla inoiz itzaliko. Horrela, etorkizuna orain bihurtzen da, eta ontologia eta metafisika (p)uz(k)tartu.

Hogeita zazpigarren atala. Non telebista aurrean nagoen, urteko lehen egunean, goizeko hiruretan. Hasteko, sexua. 90. kanala. Sexu merkea. Zeren argitu behar dut gauza bat: Sadeko Markesa nerabezarotik maite dudala. Eta gorroto dut sexu merkea; are gorrotagarria iruditzen zaidana filmak Hegoamerikako gazteleraz bikoiztuta badaude. Zapping egin beharra dago irudi batetik bestera (heriotza batetik bestera ihes egitea bezala). Zergatik erakusten dizkigute, lupaz, protagonista pornografikoen sexu-organoak? Hori al da bigarren mailako amateur kaxkar horiek erotikotzat hartzen dutena? Kulturarik gabeko txakur aluak! Puta ideiarik ere ez daukate sexuaz. En fin (frantsesez esanda, s'il te plaît), edonola ere, pornografia beti izango da barregarria (kaka, pixa eta oka egitea bezala...). Gero, 1. kateara pasatzen gara. Horteroak nagusi. Kantatzen denak. Gizarajoak. Erridikulua egitearen truke jasotzen dute soldata. Zorte apur batez hamar urte iraungo duten idoloak (epe hori pasata eurek ere ez dituzte euren buruak soportatuko). Eta 2. katean, itxuraz interesgarria den filma. Baina hasita dago eta ezinbestez aurrera egin behar. ETB 1. Musika beltza. Bluesa. Rock & Rolla. Estatu Batuak. Modaz pasatako drogaz jositako lau pepelerdo publikoaren belarriak izorratzen beren gitarra elektriko marramiamiau eta desafinatuekin. Zenbat eta modernoagoak, orduan eta tontoagoak pijo horiek. Horien gitarra elektrikoen soinu kataplexiko aspergarriek

flatofagia ekartzen didaten gogora. Kaka zaharra niñato lerdetsu horientzat. Laster «musika» (nolaibat deitzeko) utzi eta sukurtsalen bat irekiko dute Hollywood-en, edo bestela modan inbertitzen hasiko dira. ETB 2ko umorezko filma. Baina hasita dago; eta gainera, umore txarrean nago. Eta gainera, ez nago prest urte berriko lehen eguneko berrogeita bost minutuak film bat osorik irensten alferrikaltzeko. Antena 3an hortera gehiago kantatzen, eta neska «katxondoak» (arruntak) izterrak eskuzabal erakusten. Hobe aluak erakutsiko balituzte eskuzabaltasun berberaz. Tele 5ean munduko gauzarik nazkagarriena topatzen dugu segituan: estatu-mailako kotileo horietakoa. Gero, film pornografikoak berriro. Dena den, pornografia zaborra dela esateak ez du ezer esan nahi: batez beste, bi zabor poltsa produzitzen ditu egunean Euskal Herriko herritar bakoitzak; eta zaborra, denok dakigunez, nazkagarria bada ere, ez dago saihesterik hori produzitzea. Badakizue, kaka edo pixa edo oka egitea bezala. Zaborra: gure kultura bisualaren ezaugarri nagusia.

Hogeita hirugarren atala. Non baieztatzen den mundua putasenez beteta dagoela. Lagunminak batik bat. Horiek dira txakurrik okerrenak. Zu noiz puteatzeko zain daude beti. Baina horrek ez du erremediorik, tontoa edo pobrea izatea bezala. Munduan zaude, beste tokirik ez dagoelako. Ez gustuz; disgustuz baizik. Baina

txakur leialak halakoak dira denak, zaunka gutxi eta horzkada ugari. Horrek ere ez dizu inork irakasten; bizitzak irakasten dizu, Emagaldu Handiak. Eta kristaua izateak ez dizu ezertarako balio, makiladak berdin-berdin jasoko dituzu-eta. Gainera, garrantzitsuena amorrua kanpora ateratzea da. Pozoia. Mundua pozoituko duen amorrua. Behazunezko itsaso berde-mukia (un mar de bilis de color verde-moco). Gizonaren alde mistikoa. Negar pixka bat. Eta listo, berpiz zaitez beste behin, Jainkoak puteatu nahi zaitu-eta. Esan dizuet bizitza ziztrin samarra dela eta ez didazue sinetsi nahi izan, ezta? Ba orain izorrai. Denak. Zu ere bai, kabronazo. Hitzak itotzen zaizkit atera baino lehen eta hiztegiaren beharra daukat, erdal hiztegiaren beharra batik bat. Auskalo. Adimena gure hizkuntzatik kanpo bilatzen duenak ondo egiten ote du...? Baina adimen gutxi daukanari berdin faltako zaio materia grisa, hizkuntza batean edo bestean. Izan ere, hizkuntza baten atzean gauza asko egon daitezke. Ikusten ez diren gauzak barne. Hau ez da jolasa. Norbait hiltzea bezala. Ez da gehiago berpizten. Orduan, seriotan doala konturatzen zara. Eta heriotzan ez ezik, bizitzan ere sinesten hasten zara. Gauzak horrela direlako. Biraoka hasteak ez du laguntzen. Hil zorian zaude eta hala eta guztiz ere herriak *porkulo* ematen dizu, sadiko samarra delako. Herria edo gizartea edo nazioak edo gizateria edo hiritargoa edo herritarrak edo estatua... Kaka putza galanta denak. Berekoi aluak, akatsez beteak... Hobe Saramagoren txakurraren urrikaltasunean sinestea gizonarenean baino.

Bakoitzari berea. Batek barruan ez daukana kanpoan bilatzen du alferrik; eta amorrazioz, ezertan ez sinestera heltzen da, onartzen ez duelako bera «*pringadito*» bat dela, hilda ere munduak berdin-berdin jarraitzen duela bueltak eta bueltak ematen. Idazteak, behintzat, izugarrikeria arintzen digu, baldin-eta hitzek gu liluratzea lortzen badute. Zeren bestela ere jai daukagu. Francoren arimatik zazpi deabruak erauzi nahi izatea bezain alferrikakoa. Benetan. Nik ederki dakit, harrak aspalditik ez baitit atsedetik ematen (Gabriel Aresti gogoratzen dit esaldi honek). Lasai, ez dut inor plagiatu beharrik, are gutxiago Aresti; ez lehengo euskal idazleak ez gaurko euskal idazleak. Nigan ez dute arrastorik txikiena utzi eta denak irakurri ditut. Bai, harriak baino harroputzagoa naiz.

Hogeita zazpigarren atala. Non poetaren hitzek dakarkiguten hizpidea. Erraustu nire gorputza; ez dadila nitaz lekukotasunik gera. Errebela zaitez nire hilotzaren aurka. Jada ezin baitut kemena areago erreduzitu. Endekapenak harrapatu nau (nire belaunaldiko asko bezala). Eta patuari jarraitzen diot orain, isilik. Baina oraindik ematxarrak ditut maite. Eta eminentziek oka eragiten didate. Haragiak salbatu behar du mundua! Biba haragizaleak! Nahasmendutik ordena aterako denez, izan bedi Jainkoaren probetxurako. Esadazu zein den zure prezioa. Eta zergatik hurbiltzen zaren txerpolariengana. Esadazu zergatik hil zenituen

uztaileko zero urdinak, Parisko igande arratsalde hartako bost eta erdietan. Eta uztak zergatik izan ziren hain pobreak handik aurrera. Zorrotada bertso dakart mahuka azpian; baina zuk zornea bilatzen duzu nigan (Zoroastro madarikatua!). Lanbrotu dira nire begietako itsasoak eta putzu beltzetan amiltzen hasi arrantzaleen ontziak. Itsasoaren mendekua izugarria baita. Baina merezi izan du! Eta hazpegietan nabaritzen zaie, gauza batzuk ezkutatzerik ez dagoelako. Hautesleak urduri daude. Hazkurria arriskuan dakusate! Eta hitzen alienazioaren erdian, kaleko txakurra bezain zoriontsu abandonatzen naiz. Eragabeko neurri hau, non bukatzen den unibertsoa eta poetika apurtzen baita zure kristalezko aurpegiaren aurka! Utz iezadazue kartzela honetatik ateratzen. Arnasa hartu nahi dut libertoaren begiradatik urrun. Hiztegitintza landu nahi dut nire ezjakinkeria itzel honetaz baliatuta. Literaturaren lakioan erori naiz. Eta gustatzen zait; onartu behar dut. Ahalegin horretan hizkera bera galdu badut ere. Eta gogamena. Eta loria. Eta zoriona. Eta gizendu egin naiz. Nire ipurdiari atximurkada erotikoak egiten dizkiot, besterik ezean. Eta eztenkadak sortzera akuilatzen nau, zeren nik beti esan dut erotismoa sortzaile dela; areago, horixe dela erotismoaren helburu nagusia: sormena bultzatzea. Erotikoa ez den artistarik ez dago (horregatik daude denak infernuan). Ez esan inori baina... nire zakilaz maiteminduta nago. Nirekin ezkontzeko ere eskatu diot baina oraindik ez dit erantzun. Zain nago. Eta denbora hobeto baloratzeko, hogeita lau erloju

erosi ditut. Bakoitzak ordu desberdin batean jarrita, eguneko hogeita lau orduak des-osatzeko (hemen ez zegok kasualtaterik, motel). Bai, oso garrantzitsua da ordutegi jakin baten arabera bizi izatea. Horrela, zure heriotzaren orduan azken minutuak zenbatu ahal izango dituzu eta horrek emozio handiagoa emango dio jolasari. Zirkuitu honetatik ez baitago ihes egiterik. Zirkuitu itxia delako. Existentzia, zirriborro hutsa. Zipriztina. Zisne usteldua nenufar ustelduen artean. Zeren bi gehi bi 0,004 euro baitira (ez zenuen espero, e, kabronazo?). Txo batek bibragailua barruan sartu eta kaka egin arte ez zen oroitu «han» zegoela. Bai, jaun-andreok, hau da nire bidaia. Bidaia simplea, monoplaza (jarleku bakarrekoa), eta mailua bezain samurra. Nire etxeko erlojuak zerbaitengatik jotzen dituzte eguerdiko hamabiak hamabi orduko atzerapenez. Nagusia haserre dago nirekin; lanera beti hamabi ordu beranduago iristen naizela dio. Eta erantzuten diot pozik egon beharko lukeela, aitzakia ederra dauka-eta ni kalean jartzeko. Egia esan, ez naiz inoiz idazle konprometitua izan. Konpromiso bakarra nire buruarekin daukat. Ez da neurekoikeria; ezta bekaizkeria ere. Bizitzan egoteko jarrera baino ez da. Lursaguarena...? Eta zer? Ni bizirik lurperatzea nahi duzu zuk. Eta nik luzapena eskatu dut, besterik ez. Ez naiz otzana; hala-moduzkoa baizik. Baina zu hamsterra zara niretzat, kaiola batean bueltaka eta bueltaka aritzen den hamsterra. Horregatik, jarrera berbera hartzea erabaki dut. Orain, denborazkoa naiz. Bizigaia. Ezerezako bizkondea. Nire hutsalkean igeri egiten

dut, indukzioz eta konfuzioz. Zeren indartzen naiz besteen ahuldadean. Eta independentzia da nire lurraldea; politikoa baino, kulturala. Industria horretan dut sinesten (atrebentzia ez bada). Eta ez etorri nigana kalteordain bila. Ni eta nire indibidualismoa banaezinak gara. Leku guztietara goaz elkarrekin. Gau-ta-egun. Gatibutasunaren lepotik barre eginez. Bilaketa zoro bati emanda. Eta edan dugu Errioxa Arabarreko upategi guztietatik. Eta mahats-bilketan gogor aritu gara lanean (mahatsak aletu genituen behin!). Halakoxea da gure bizitza. Gustagarria. Anabasa hutsa. Eta pena hauxe baino ez dut: urdail bakarra izatea —ezin baitut nahi adina jan ta edan!—. Minez hiltzen naiz. Horregatik aritzen naiz zortzi orduz jarraian idazten, segundo bakoitza harrapatzeko. Horixe baita zinezko poetaren zeregina: denbora harrapatzea. Nahiz alferrikako saioa izan —segundoak igaro ahala, aldatzen goazelako, eta ondorioz, erabat ezinezkoa delako nortzuk garen jakitea—. Einstein-en teoria da hori, gizon. Alai zaitetz. Alai zaitetz, behintzat, dekretuz. Izan dekadentea. Eta Santo Tomaseko egunean, oroit zaitetz nitaz zozketatzen gaituztenean. Zer besterik esango dizut nik...? *Que este tiempo dedicado a la palabra es sórdido. Y que nos ha impelido hacia la economía como si de una asombrosa fatalidad se tratara.* Hau dramatika hutsa da. Nire kristalezko dorretxo honetatik esaten dizut. Hau dramatika hutsa dela. Bai, irrigarria naiz. Badakit. Baina nigan poeta bat dagoela, hori ez da sekretua. Ala bai? Eta zugan, kabronazo hori, zer dago zugan.

Puta bat? Hiltzaile bat? Funtzionario bat? Soldatapeko bat? Sindikaturen bateko karnetadun aprobetxategi eta ideologiarik gabeko bat? Lotan ere masturbatu egiten den tontolapiko anker bat? Gu ez gara inoiz Aitor Zabaletaz ahaztuko. Ezta zutaz ere. Bien bitartean, irlote honetan murgiltzen naiz, eta nire burua irentsi. Hiltzea antzekoa dela diote. Nik diot, behintzat, idaztea hiltzea bezalakoa dela. Ez zaude inon baina leku guztietan zaude. Hori ez al da jainkotasunetik edatea? Zer higuinaria! Zer erraza! Munduan ez dago gaixotasun okerragorik, ederbera izatea baino. Prestidigitadoreek gehiago irabazten dute, jakina. Eta neskato lirain horailek ere bai. Erabateko miseria da nirea (sasi-kultura batez mozorrotua). Marka guztiak hausten ari naiz gaur. Ken hortik, edo zure gaintik pasatuko naiz. Ez naiz geldituko! Ez nauzu geldiaraziko! Maoista naiz. Apatxea naiz. Paganoa. Nire hitzen idazkariordea. Dignitatea ez zait inporta, auzokoen aurrean ez bada. Eta hori ere, itxura hutsagatik. Ipurdia detergenteaz garbitzen dut, eta leungarri eta guzti ere botatzen diot. Behin, ikuzgailuan sartu nintzen, baina zorabiatu egin nintzen eta bukatutakoan barrukoak bota nituen eta zerri-zerri eginda utzi nituen arropa garbitu berriak. Ipuin bat entzun nahi al duzue? Ba, segi irakurtzen eta ikusiko dugu zer egin dezakedan zuengatik. Baina orain nekatuta nago eta lotara bota nahi ditut nire erraiak. Gainera, Errege-Eguneko gaua da eta goiz joan behar dut lotara; bestela, baliteke oparirik gabe geratzea!

Hogeita pikogarren atala. Non saiatzen naizen elementu poetikoa bilatzen. Eta horrek esan nahi du nire zirtziltasuna onartzen dudala, edo hobeto esan, amore ematea erabaki dudala. Ez zait ezer inporta (justizia eta injustizia txanpon beraren bi aurpegiak baino ez dira-eta). Areago paira dezakegu oraindik. Gainera, gizabanako bakarrari justizia egiteko, hamar milari lepoa moztu behar. Beti izan da horrela. Gure planetan, behintzat. Baina, poesia egin nahi dut. Ez, barkatu. Ez dut poesia egin nahi; bakar-bakarrik, elementu poetikoa aurkitu nahi dut. Edo hamar milaren elementu poetikoa. Pagotxa aurkitu. Kapela kendu edertasunaren aurrean. Denborari zentzu hitleriarra eman, gauza abstraktuetan bizitzen uzten ez didan laztasuna itozteko. Eta jarraian, irakurleei faktura pasatu. «Hamar mila hitzen truke, guztira zortziehun mila eta laurogei pezeta. Gehi B.E.Z.a». Mundua halakoxea da, zekenen neurrirako egina. Badakizue, eraberritu ala hil. Eta gainera, erabat hil. Eta ez piskanaka-piskanaka, edota erdizka, batzuek egiten ohi duten bezala; erabateko heriotza baizik. Heriotza ergela. Ergelduriko heriotza. Ergelentzako heriotza. Soil-soilik ergelak hiltzen direlako. Gertatzen dena da gizakion historia osoan ez dela oraindik gizaki azkarrik izan. Altxa beharko genuke geure ergelkeriaren aurka. Eta hura Jainkoari itzularazi. Ea berari gustatzen zaion. Berriketa gutxiago eta ekintza gehixeago. Hori behar dugu. Gainerakoa, txorradak. Semaforo batez

maitemintzea bezala. Edo leungarria zopara botatzea. Edo «artista» pornografiko batez zoroki maitemintzea. Edo zakila desinfektatzea, emaztearenean sartu baino lehen. Halako gauzak. Gauza sanoak, alegia. Denterarik bat ere ematen ez dutenak. Bakanalak. Orgiastikoak. Debaldekoak (batez ere, hori). Pobreok ere eskubidea daukaguetan aberatsez zer pentsatzen dugun esateko. Baina badaezpada ere, hobe isiltzea, demokraziaren beste aurpegiarekin topo egin nahi ez badugu. Zeren baimena ematen dizute hitz egiteko, bai, baldin-eta txorradak besterik esaten ez badituzu eta itzal onekoak bakean uzten badituzu. Bestela, zigorra, isuna, kartzela, tortura, hilketa, desagerpena... Eta besterik gabe hondatu zaituen epailea joango da segituan ez dakit nora justizia eske. Noizean behin, aurpegia garbitu beharra dauka eta. Badakizu. Eskuinarekin hil eta ezkerrarekin laztandu. Edo alderantziz. Baina nik, poesia maite dut. Abstrakzioa, badakizue. Bakartegia. Hitzen zirikada sentimentala. Amesten diren bidaiak eta kaka hori guztia. Bakailoa ez, ordea (arraina ez zait gustatzen eta). Arraroa naiz, badakit. Eta ez tul egitean, bi aldiz barkamena eskatzen dut beti. Gaixotasunarekin ezteiak ospatzea bezala. Glizerinaz gabonzahar-gauari abegi egitea bezala. Eta hanburgeseekin Eguberriari. Mundua biribila baino, pentagonala izango balitz bezala. Eta prosarik gabeko eleberria idatzi nahi duenak, ba... idatz dezala. Gogaitzea, libre. Erregalokoak ere nahiago nik liburuak. Salmenta-errekorrak ez dutenak. Lasai bota daitezkeenak zaborrera.

Jainkotegi honetan, urdina baita zerua, eta urdina itsasoa, eta urdina nire pixa, eta urdina nire ongarrria. Hori gertatzen zait arbasoen artean hainbeste errege, printze eta duke izateagatik. Pozoitu zait alaitasuna. Hala biz. Hala Madril. Ala handia da. Eta predikatuen artean gauza atsegina da burua galtzea. Gaurko idazle gazte askorekin gertatzen den bezala, euren literatur-puzkerra usaintzen egunak eta egunak ematen dituztela, ezin uxaturik hainbeste maite duten kiratsa. Kaka utopikoa bilatzen dut. Larrua dohainik jotzea. Baina ez dut inoiz lortzen, gogor lehiatuta ere.

Hogeita finitusgarren atala. Non «Kaixo, publiko» esaten dudan. Pultsu onekoa naizela erakusteko. Ez, ez begiratu hiztegian «pultsu ona izan» horrek zer esan nahi duen, zeren oraintxe asmatu berri dut. Ahal dut, ezta? Azken batean, lagundu baino ez dizut nahi... hiltzen. Ibaira erori zarela? Lasai, tori zortzi kiloko harri-puska eder hau. Heldu gogor. Ez askatu. Eta 48 ordu barru, lasai, gainazalera igoko zara berriz. Uholdean itotako txerria ez al duzu inoiz flotatzen ikusi, tripaz gora hilda? Urdaiazpikoarekiko zaletasuna kentzeko modukoa, ezta? Ba zurekin ere berdin. Asko maite zaitudalako, publiko. Bai, badakit, «Pub(l)i(s)ko hori». Baina barrabilen deiari jarraitu diot. Eta gose bazara, ba hartu hiztegi on bat, txikitu ondo eta sar itzazu zatiak katilukada esne on baten barruan. Eta «kopitoak» izango balira bezala

jan. Eta bota gurin eta marmelada pixka bat. Birziklaturiko paperaz eginda badago, ez dizu txarrik egingo eta. Itxaron. Begira, pena pixka batez esan behar dizut, baina ezin dut nire golkorako gorde: gure ibilalditxoia amaitu behar da. Kito. Ez dut jarraitu nahi. Zerbait dago-eta nire lepotik tiraka. Zenbat ipuin, zenbat istoriotxo eta asmakizun! eta ni oraindik ere hemen, denbora alferrikaltzen! Ezin dut, benetan. Gauza berrietan sartzeko premia daukat. Gainera, badakizu zer gertatzen den literaturatik bizi ez garenok: ahaleginak luze eta hitzak motz geratzen zaizkigula! Baina kasu honetan ez du garrantzirik, liburuia zabalik uzten dudalako. Itzuliko naiz noizbait. Eta jarraituko dut «Hogeita zazpigarren atala. Non...». Liburu hau amaiezina baita. Infinituraino luzaturiko egun bat da nire bizitzan. Egunen batean, berriro helduko diogu gaiari. Zahartzarora atzean utzi eta berriz gaztetzen garenean. Eta egun horretan, zoriontsua izango gara. Agian... Hala ere, onartu behar dut despedidak tristagarri gertatzen direla beti. Heriotza eta jaiotza. Auskalo zergatik baina negar egiten dugu kasu batean zein bestean. Sentitzen dut, benetan. Pena ematen dit zuek uzteak, liburu honi amaiera faltsua emateak (eta faltsua diot zeren, esan bezala, hau ez baita alearen amaiera; hasiera baizik). Liburuia zabalik geratzen da —«jarraituko du», «to be continued»—; noizbait aurrera jarraituko dugu. Bidaia honetan miretsitako paisaia, ibilitako bideak, egindako lagunak atzean geratu

behar dira. Bai, hala da. Agur, Aitor Zabaleta.
Besarkada bat denoi (zuri izan ezik, kabronazo...).

Hogeita pikogarren atala 4aren erro
karratura jaso. Non...